



ERAIKUNTZA GEHIGARRIA / 29



Irantzu PASTOR ORDOKI | Lesakako argazkilaria

«EMAKUMEAK EZ DITUGU MEDIOETAN IKUSTEN, EZ DAKIGU ZER SUFRITZEN DUTEN»

«Emakumeen kontrako indarkeria ikusezinak eta erresilientzia historiak bilduz» 'Lumineszenteak' liburua aurkeztu du lesakarrak, Igone Mariezkurrena kazetariarekin elkarlanean.

Elikadura estrategia bateratua xede

Bertan ekoitziz eta bertan kontsumituz, tokiko ekonomia sustatzeko elkarlanean hasi dira Malerreka-Bertizarana eta Bortzirietan / 10



Bidasoa Ospitaleko ebakuntza gelak berritzeko proiektuak ezinegona sortu du / 20

Azaroaren 19an Doneztebeko feriak eta azaroaren 25ean Lesakako feriak / 16•24

Zahar etxea kudeatzeko enpresa publikoa sortu dute Baztanen / 70



Aimar Olaizolaren agurreko partida eta omenaldia larunbatean / 67

SINADURAK

 FERNANDO ANBUSTEGI GONI / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 JOSE RAMON AMOROS OSKOZ / 3	 JOSEBA URROZ TELLETXEA / 4



ZOZKETA / 88

BERA LESAKA

Agenda 2021

AZAROA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

ARGAZKI ERAKUSKETA
AUTOPSIK (ASIER GOGORTZA)

Ordutegia Urriaren 16tik abenduaren 19ra arte.
16:00-20:00 larunbat eta igandeetan.
Antolatzailea Labiaga ikastola

BERA

13 | **AZOKA**
BERTAKO
EKOIZLEEN
MERKATUA

10:30-13:30 Beralandetan

BERA

ERAKUSKETA
LIBURU EREMUA- EREMU LIBREA

Ordutegia 2021eko azaroaren 3tik 2021eko abenduaren 2 arte.
Lekua Lesakako liburutegian

LESAKA

12 | **DOKUMENTALA**
BIZIPREST
Gehiago gara.
(Egilea: Inaki Alforja)

19:00 Beralandetan
Laguntzaileak Euskaltzaileen
Topagunea eta Nafarroako Gobernua

BERA

13 | **EUSKAL KULTUR**
SORKUNTZAREN
TRANSMISIOA
SORMENEAN HEZI,
KULTURAN BIZI.
II. JARDUNALDIA.

09:00-14:00 Harriondoa Kultur Etxea
Informazio gehiago www.ueu.eus

LESAKA

13 | **EMANALDIA**
EASO
ABESBATZA
MISTOA +
ORGANO

18:00 Tourseko san Martin Parrokia
Borondatezkoa ekarpena 5 € ((Xagu,
Telletxea, egunean bertan sarreran)

LESAKA

20 | **BETI-GAZTE:**
HITZALDIA
INTELIGENCIA
ARTIFICIAL.
UTILIDAD EN
LA PRÁCTICA
MÉDICA

18:00 Harriondoa Kultur Etxea

LESAKA

Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

JAKINARAZPENA

2021eko bigarren urterdiko zabor bilketa eta tratamendu
zerbitzuetako tasak kobratuko direla,
ondoren seinlatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak: Abisuan agertzen den edozein kontutan
eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak: Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2021eko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2021eko abenduaren 31ra arte luzatuko da.
Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez
%20ko errekarquarekin kobratuko da.

Etxalar, 2021eko urriaren 20a
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Bagara? Izanen dira?

Ez dakit noiztik, beharbada betidanik, gustatu izan zait *Izarren hautsa* kantua. Liluratu egin nau beti, hunkitu, baita harrotu ere. Zerbaiten parte naizela gogora ekartzen dit eta horrek ongi sentiarazten nau. Pentsatzen dut niri kantu honekin bezala, aunitzi pasatzen zaiela bertze modu batzuetan, baina zerbaiten parte izateak zerbait bagarela gogora ekarri eta gure existentziaren arrazoitzeko balio duela.

«...gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bertzeak...» dio kantuak, eta hala izanen dela espero badut ere, gero eta zalantza handiagoak ditut. Bai, *doike*, sortuko dira bertzeak, afera da nolakoak. *Izan ginela-ko gara*, aunitzetan entzun dugun esaldia da, eta bere barnean mezu arras argia eta adierazgarria du. Aski da gure ingurura begiratzea, familiatik hasita, herritik eta naziotik segituz.

Aitzinakoei esker gaude gu hemen, gure amalurra, gure hizkuntza, gure kultura edota eskubideekin. Baina, ez al dugu atzendu nondik gatozen eta, horrenbertzez, nor garen? Izan ziren, bai, baina bagara? Eta, izanen dira?

**«EZ AL DUGU
ATZENDU NONDIK
GATOZEN ETA NOR
GAREN?»**



EZPALA

AITOR AROTZEN AIBIZU

Zakurrarren ipurdian

Ama Galizia *sakonean* bizi delako (zakurraren ipurdian bizi dela paratzea ez da egoki gelditzen epai batean) haur baten tutoretza Marbella kosmopolita politean bizi den aitari eman berri dio epaile batek. Denak berdinak omen gara legearen aitzinean, baina Zara eta McDonalds etxe atarian dutenak Elamako ola ondoan bizi direnak baino berdinagoak, noski.

NABARMENTZEKOAK

ESTITXU
ABESLARIAHAIRA
AIZPURUA
BERTSOLARIA

Isilik daude herriak diskoa argitaratu du Estitxu Berako abeslariak. Hainbat arrazoi tarteko XX. mendean zentsuratuak izan diren abestiak bildu eta moldatu ditu Mikel Santxezen laguntzarekin.

Haira Aizpurua Ibargarai saratarak irabazi du Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Plazan kantuan segitzeko deia eginez bota zuen agurreko bertsoa eta anaiari eskaini zion txapela.

ATZERA BEGIRA



2011-11-10 · TTPI-TTAPA · 554 zk.

Juan Carlos Pikabea margolaria

Juan Carlos Pikabea Lesakako margolariaren ibilbideari errepasoa eman bidenabar, elkarrizketa egin zion TTPI-TTAPAK duela hamar urte. 12-14 urte zituenetik pintzela eskuetan dabilela onartu zuen: «Juan Ignacio Larramendik margolaritza klaseak ematen zituen eskola orduetatik kanpo eta berarekin hasi nintzen. Margotzeko eskua nuela erraten zidan». Pinturatik bizitzea «posible dela» ere aipatu zuen: «Nik baditut 14-15 urte pinturatik bizitzen. Beti bizitu izan da jendea artetik». «Zaila» dela ere onartu zuen eta bide horretan «mugitzea garrantzitsua» dela nabarmendu zuen: «Ni Euskal Herri osoan ibilia naiz». Horrekin batera, «bertan errekonozitua izateko kanpora ateratzea pauso handia» dela gaineratu zuen».

erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ainhoa Larretxea,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Alizuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Nerea Bazterrika, Aintzane Leiza,
Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea,
Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Otelza,
Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbiltzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Seigarren suntsipen masiboa

Orain dela urte batzuk nire ikasle batek Seigarren Suntsipen Masiboari buruzko idazlan bat egin zuen. Harrituta utzi ninduen 12 urteko mutiko horrek, zenbat informazio zeukan gaiaren inguruan eta zeinen ongi azaldu zien bere ikaskideei. Geroztik behin baino gehiagotan gai honi buruz informazioa irakurtzen aritu naiz. Zientzialariek diotenez, azken urte hauetan, gizakion jardueraren ondorioz, espezien suntsipena bizkortu egin da. Egun espezie aunitz galzorian daude eta mende hau bukatu baino lehen aunitz izanen dira desagertuko diren espezieak, landareak nahiz animaliak.

«Planeta berea eta amaigabea izanen balitz bezala jokatzeko segitzen du gizakiak. Naturak ezin dio guk ezarritako erritmoari eutsi eta dagoeneko amildegira ailegatzen ari garela ohartarazi digute adituek. Hauek ere bioaniztasuna kaltetzen duten motorrak zerrendatu dituzte: Lehen postuan habitata suntsitzea (deforestazioa, nekazaritza industrial, eraikuntzak...); bigarrenean arrantza eta ehiza; hirugarren tokian klima aldaketa; laugarrenean kutsadurak eta bosgarrenean espezie inbaditzaileak» (2019. *naiz.eus*).

Gaur egun arazo aunitz eta latzak ditugu gizakiok: pandemiak, pobrezia, goseteak, bortizkeriak, krisi klimatikoa, bertzeak bertze. Nahikoa lan dugu gure espeziea aitzinera ateratzeko eta ez zaigu

inporta berteze espeziei egiten diegun kaltea. Planetan bizi diren gainerako espezieentzat plaga kaltegarria gara.

«GAINERAKO ESPEZIEENTZAT PLAGA KALTEGARRIA GARA»

IPBES erakundearen arabera –planetaren bioaniztasuna baloratzeko NBEn erakundea–, egun planetan bizi diren

zortzi milioi espezieetatik milioi bat galzorian daude (SEO BirdLife, 2021-09-15).

Kuriositatez, erran daiteke, Estatu Batuetan 23 animalia espezie sartu berri dituztela galdutako espezien zerrendan. Horien artean marfilezko mokodun okila, marrazki bizidunetako *pajaro loco* ospetsua. Animaliak desagertzeko kausa hauek nabarmentzen dituzte: ekosistemen suntsiketa eta ehizaren kontrolik eza (*La Razon*, 2021-10-04)

Eta gure inguruan zer?

Ba, hemen ere espezie aunitz gainbeheran. Espainian 963 espezie daude Babes Bereziko Zerrendan, horietako 198 desagertzeko zorian (Trantsizio Ekologikorako Ministerioa).

Nafarroan ere espezie babestuen zerrenda badugu, hala nola: ugatza, okil gibelnabarra, eper zuria, eper grisa, basoilo haundia, gauenara, hartza, bisoi europarra... (Nafarroako Gobernua, *navarra.es*)

Azken urte hauetan espezie berri batzuk gainbehera haundian sartu dira: hontza zuria (*Diario de Noticias*, 2021-10-24), tortoila arrunta, oraindik espezie zinegetikoa dena, aurtengo ehiza arauetan kuota zero izan arren (Ehiza arauak 21-22).

Nire ustez kezkarria eta ulertezina da erbi europarrarekin gertatzen ari dena, Nafarroako iparraldean bizi dena. Denok dakigu desagertzen ari dela eta oraindik ehizatzen ahal da. (Nafarroako Ehiza Federazioa, *Diario de Noticias*, 2021-02-28).



JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Zerbaitetan sinesteko beharra

Gazta gazuratik bereizi eta biltzen den bezala, saiatuko naiz hainbat burutazio biltzen, sinesmenez, gaurko munduaz...

Hau idaztean, Erroman egin berri dute munduko 20 herrialde haundienek bilkura, G20 alegia, gure kultura aspalditik baldintzatu duen erlijioaren egoitza nagusia dagoen tokian hain zuzen; zeinean Aita Saindua, munduko aberats eta boteretsuenekin batera agertzen ari den ustezko ama lurraren salbamenduan. Hasia izanen da Eskozian COP26 ere, agintarien elkarretaratzea, ustezko klima aldaketa ustez gelditzen saiatzeko.

15 urte inguru arte, mutiko zintzoa izaki, amatxi eta amaren eraginez, apaizaren sermoiak adi entzuten nituen, eta zalantzaren bat izanda ere, kristautasunaren dogmetan sinetsi beharra nuen; betiko biziari beldurra banion ere (bai oraindik ere).

Hortik aitzinera, luze aztertutako arrazoiak pilatuz, Jaungoikorik izatea ezinezkoa zela erabaki nuen eta gorrotoa ere landu ustez kristautasunak sortutako hainbertze madarikazioengatik. Politikan sutsuki sinesten hasi nintzen, benetako egia eta salbamena hori zela uste nuen.

20 bat urte geroago, nire bigarren edo hirugarren krisiaren ondotik, lur jo nuen, Jaungoikorik ez zen noski, laguntza

eskatzeko, baina arrazoiak, politikak edo zientziak oraindik guttiago arintzen zuten nire mugagabeko nahigabea. 50 urte betetzeak bere alde ona ere badu, ari naiz mantso-mantso gauzak ulertzen, puzzlea osatzen.

«DENA HIERARKIA DA ETA HIERARKIA HAUSTEAN SISTEMA GUZIA ERORTZEN DA»

Politika antzerki bat da, eta gehienok antzerkian sartzen gara, fikzio bat dela ohartu gabe. Are okerrago, fikzio horrek gure bizian eragina du. Munduko agintari eta boteredunek inoiz ez dute gogoan izan jende arruntaren ongizatea, zergatik behar lukete orain izan? Bitartean, guk, zenbaki bat bertzerik ez garenok, zerbaitetan sinesteko beharra dugula ikusten ari naiz, eta Jaungoikoa aspaldi samar hil genuenez, orain badugu erlijio berria, agintariak (kristauen Aita Sainduak ere bai) babesten dutena: «ama lurra arriskuan da gure erruz, eta Jainkosa balitz, bera babesteko, guk bere aitzinean belaunika-tu behar dugu, eta *mea culpa* aitortu, garai batean bezala». Eta ukatzen duena «negazionista» da, *herejea* alegia.

Atomoek osatzen dute molekula, eta haiek ez dira haserretzen molekulak bere burua gehiagotzat duelakoan; molekulek ehunak osatzen dituztelako, eta ehunak organoak eta organoek gorputzak. Dena hierarkia da, eta hierarkia hausten denean, minbiziren zelulek bezala, sistema guzia erortzen da.

Ustekabeko heriotza lazarriaren aitzinean, (berriki hurbilean ikusi dudana bezala) gure gainetik deus ez dela sinesten badugu, haserre eta hutsarendako berteze tokirik ez da gelditzen, umezurtz sentitzen gara. Lurra ez da Jaungoikoa, lurra gu eusten gaitu, eta gu berteze zerbaiten eusgarri izanen gara, baina ez dakigu zer eta nola, atomoak molekula izatea zer den ez dakien bezala. Horretan sinetsi nahi dut orain.

11 GALDERA LABUR

AINHOA ALTZUGUREN MITXELENA BERAÑO ABOKATUA

«Inguruan abokatu euskaldunen falta somatzen dut»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Berako neska alaia eta lasaia.

Zein dira zure zaletasunak?

Musika aditza, lagunekin egotea, mendian ibiltzea... Egunerokotasunetik deskonektatzen laguntzen didan edozer.

Zuzenbidea ikasi zenuen. Nolatan erabaki zenuen ikasketa horiek egitea?

Unibertsitateko gradu desberdinetako ate irekietan egon nintzen eta zuzenbidekoa izan zen interes gehien piztu zidana. Gainera, inguruan abokatu euskaldunen falta sumatzen nuen eta hemengo jendeari laguntzeko aukera izan neza-keela ikusi nuen.

Nolakoa da abokatu baten eguneroko lana?

Bulegoko ohiko lana bezeroen arreta eta kasuen analisia zein tramitazioa izaten da, baina, ia egunero mugitu behar izaten naiz epaitegira, udal-administrazioa, ogasuneko bulegora, erregistrora... Beraz, funtsezkoa izaten da astea ongi antolatzea.

Zer da abokatu lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Jende anitz ezagutzen duzu, bai bezero bezala baita dago-kion organo zein lantokiko langile bezala ere, eta horiek denengandik ikasten ahal duzu zerbait.

Eta zure lanbidetik gogorrena egiten zaizuna?

Arazoak gestionatzeaz arduratzen gara abokatuak, beraz, gai gogorrak edo sentikorrak izan ohi dira eta normalean,



denbora anitz pasatzen da erantzun eraginkor bat lortzeko. Ez da erraza izaten bezeroak entzun nahi duen erantzun bat lortzea.

Zein da asteburu baterako plan ideala?

Lehenengo mendian buelta bat eman, etxekoekin bazkaldu, eta ondotik, lagunekin disfrutatu.

Zer du Berak bertze herriek ez dutena?

Jendearen hurbiltasuna; hau da, ezagutu ez arren, ez da zai-

la izaten edonorekin elkarrizketa bat izatea edo zerbaitetan laguntzeko jendea aurkitzea.

Eta zer du faltan bertzeekin alderatuta?

Herri ttiki gehienek bezala, zerbitzu publikoen gestio eraginkorra.

Zein asmo dituzu epe motzera? Formatzen jarraitzea eta eguneroko lanarekin aurrera segitzea.

Eta epe luzera?

Gustura bizitzea egiten dudarekin.



Bilduma berria

70. urteurrena
urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Homo Erectusak Baztanen

GORKA LAURNAGA

Aranzadiko arkeologoek Baztanen egindako indusketetan Homo Erectus espeziearen arrastoak aurkitu dituzte berriki.

Odol tanten ugaritasunaren analisiak argitu dutenez, espantsio garai berezia izan zuten Holozenoaren azken lau urteetan hominido berezi horiek. Indusketetan aurkitzen diren Homo Erectus *Baztandarrensia*saren arrasto ohikoenak tinpano desgastatuak eta edalontzi puskek dira, eta erradiokarbono azterketen arabera, asteburuetako sasoian pilatzen dira gehienbat arrastoak, adituen ustetan, orduan egiten baitzituzten haien purifikazio erritualak. Baztango kasuan, erritual horiek gaur egungo Elizondoko erdigunean kokatzen zirela jakinarazi dute Aranzadikoek. Zientzialariek dakitenaren arabera, zirkuluetan esertzen ziren hasieran, espazioaren erdigunea hartuz, eta hainbat sustrairen kontsumoarekin batera, giroa berotzen joan ohi zen. «Garrasiekin hasten ziren agudo» zehaztu du Mikel Orokiegi Aranzadiko arkeologia zuzendariak: «Dirudienez, garrasi horiek erabiltzen zituzten inguruko gizakien elkarrizketak mozteko, ingurukoaren arreta bereganatzeko saia-kera batean, gainerakoen errespetu eta izuan oinarritzen baitzen haien sistema sozial hierarkikoa». Azpimarratu duenez, «haien kulturen lasai hitz egiteak ahuldadea adierazten zuen». Gehiago erantsi du: «gure hipotesia da elkarren artean eta gainerako giza espezieekin komunikatzeko zailtasunak zituztela. Izan ere, haien laringeen morfologiaren azterketek erakutsi dute organo hori modu ezoahiko batean zutela egituratua eta *lo* fonema bereziki ahoskatzeko diseinatua zegoela. Horrela, *lo* soinuak *buklean* eta ozen errepikatuz protohizkuntza bat garatzera iritsi ziren, hizkuntzalariek *loloismo* izenez ezagutzen dutena, indoeuroparraren aurrekaria».

Are gehiago, *loloismoa* besoak indarrez astinduz laguntzen zela uste dute ikerlariek, eta, itxura denez, inguruko giza espezieak uxatu edo haien lur eremua berenganatzeko funtzioa betetzen zuen: «globo-arrainak, arriskua-aren aitzinean, bere gorputza putzen duenean bezala» argitu du Aranzadiko zuzendariak.

Odol tanta, edalontzi puska eta tinpano hondatuez gain, arrasto gehiago ere aurkitu dituzte ikerlariek: «sekulako loteria arkeologikoa izan zen», erran du Arantxa Zunbeitia, aurkikuntzaren autoreak. «Erectusen kokaleku batean indusketetan ari ginen, Elizondon, eta atsedeneke kafea hartzen ari nintze-la konturatu nintzen pareta batean lerro antropogeniko batzuk zeudela» kontatu digu pozez. «Pareta garbitu eta marrazkia hobeto aztertzean erre-presentazio animista bat zela pentsatu genuen» azaldu du, «zizare jainkotiar baten itxura hartu genion». Baina, kontatu digutenez, hipotesia aldatu zuten Ohioko Unibertsitateko arkeologia departamentuarekin informazioa kontrastatzean. Gaur egungo bertsioaren arabera labar-pintura hori zakil baten erre-presentazioa izanen litzateke. Ohioko departamentuarekin egin dugun telefono deian azaldu digutenez, zakila elementu zentrala zen Homo Erectusen bizitza kulturean: «zakila adorazioko elementua zen, mistizismoz betetakoa, eta paper zentrala zuen haien eguneroko erabakietan. Izatez, espeziearen genero izena, Erectus, hortik dator» erran digute. Hala ere, harreman kontraesankorra zuten organo horrekin, kulture elementua izanik ere, erabat gaitzetsia baitzegoen H. Erectusen artean bertze baten zakila begiko izatea, eta ohikoa zen gizonen arteko maitasun erakustaldien aitzinean nazka espresioak antzetztea. Alemanian-ko Kieleko Unibertsitateko neurologia laborategian lanean ari diren ikerlari batzuen arabera H. Erectusen distribuzio neuronala, H. Sapiensan ez bezala,

sakabanatua izanen litzateke: «haien neuronak ez ziren garunean soilik kokatzen, eta zakilean ere bazituzten sinapsi gaitasunak». Antza denez, fisionomia berezi hori izanen litzateke zakilaren zentraltasuna sinboliko-kultureala azaltzen duena.

Hipotesi hori, dena den, ez dago baieztatua. Izatez, mugimendu feministak gogor kritikatu du aitzineko guztia, haien arabera Homo Erectusa eraikuntza soziala baita: «ez gara Erectus sortzen, Erectus bilakatzen baizik», aldarrikatu dute.

Altzuartan elkarrizketari buruz

JOXE FERMIN LIZARRAGA LAZKANON

Ttapi-ttapa aldizkariak herritarren iritziak eta eskualdeko berriak euskaraz zabalduz gure hizkuntza indartzen eta eskualdea batzen lan bikaina egiten duela uste dut, eta zinez eskertzen dut. Alabaina, kritika txiki bat egitera noakio hurrengo lerroetan.

Trump bera saiatu zen, emaitzarik gabe, Sars-19a laborategietan sortua zela frogatzen; baita klima larrialdia ukatzen ere. Deus frogatu beharrik gabe, Mikel Altzuartek botatzen dituen horrelako eta beste antzeko eldarnioei lehen orrialdean titularra eta barrengo bi orrialde eskaintzea, berriz, ez dut uste oso lagungarria denik jendartearen jakintza maila, eta ondorioz, bizi-modua hobetzen laguntzeko; ukitzen diren gaiak, beharbada, mundu mailan bizi ditugun larrienak baitira. Zorionez, gutxi batzuen sukar-ametsak baino ez dira, eta ez lirateke, zilegi den ekarpen bat bezala, bi orri osoekin zabaltu beharko; esandakoek ez baitute inolako informazio zentzuzko edo koherenterik eskaintzen. Gainera, oso mingarriak iruditzen zaizkit, besteak beste, osasun langileentzat, ikerlariarentzat edo gaitzak larriki joak izan direnentzat.

Zaindu maite duzun hori...

Bitxikeriak

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Duela zenbait aldizkari bezala, Lurdes Irigoien aranztarak bildutako esapide bat ekarri dugu aldi honetan Euskararen Txokora: *etsi*.

Irigoienaren hitzetan, «aditz hau xelebre samarra» da eta «ez da erraza izaten gure hizkuntza ikasten ari direnentzat aditz honen ñabardurak euren ganatzea»:

- **Ez dut etsiko** > Ez dut amore emanen, aitzinera segituko dut.
- **Etsi-etsian hobe dugu etxea saldu** > Bertze erremediorik gabe, hobe dugu etxea saldu.
- **Etsitua nago** > Esperantzarik gabe, amore emanda nago.
- **Berantetsia nago**. Konparazio batera, seme-alabaren bat parrandan atera eta garaiz etxeratzen ez denean haxe erraten diogu: «*Beran(te)tsia nengoen. Non ibili zara? Hau ez da tenorea etxeratzeko!*»
- **Etsia hartu du** agertu denean, bazituen bi egun mendian galdua zela.

Horiez gain, *bazkari-etsia hartu* eta *afari-etsia hartu* bildu ditu Irigoienek. Dioenez, «hauek hagitz gureak dira, hiztegiaren ez baititut aurkitu». Zer erran nahi dute? «Afaltzeko edo bazkaltzeko ordua ailegatzen denean, zerbait jatea, ohiko afaria izan gabe (ogitarteko bat, pintxo batzuk...). Bertze euskalki batzuetan *bazkari-legea* eta *afari-legea* erraten da».

Eta bukatzeko ariketa batzuk ere proposatu ditu, aldi honetan eta aitzinekoetan bildutako esapideekin. Ea ongi osatzen dituzun!

Paratu ondoko hitzak toki egokian: **berantetsi, afari-etsia, gorotza, alfer gorotza, leher eginda, diruz leher...**

Norbait berandu datorrenean _____ egiten gara.

Hamaikak dira, _____ hartu beharko dugu. Bertzela, goazen ohatzera afaldu gabe.

_____ bertze euskalki batzuetan simaurra edo ongarria erraten dute.

Egun guztia deus egin gabe pasatzen duenari _____ dela erraten zaio.

COVID-a dela eta, mediku, erizain eta osasun langile guztiak _____ daudela diote.

ZARA arropa denden jabeak ba omen du _____. Munduko aberatsenetarikoa omen da.

kalko ustelak

altxatu ≠ kendu

Kalko desegokiak dira *zigorra, debekua, bahitura* edo *enbargoa, konfinamendua... altxatu* eta gisakoak (es: '*levantar el veto*' / (fr) '*lever le veto*'). Aukera egokia *betoa* (*zigorra...*) *kendu* da.

Hona hemen adibide batzuk:

- * Bizikleta martxaren aurkako debekua *altxatu* zuen epaileak herenegun > Bizikleta martxaren aurkako debekua *kendu* zuen epaileak herenegun.
- * NBEak *betoa altxatu* ondotik, nazioarteko erakundeek laguntzak ailegatzen hasiko dira > NBEak *betoa kendu* ondotik, nazioarteko erakundeek laguntzak ailegatzen hasiko dira.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Enpatia beharrezkoa da emakumeen testigantzak argazkian biltzeko»

IRANTZU PASTOR ORDOKI LESAKAKO ARGAZKILARIA

Igone Mariezkurrena Fernandez kazetariarekin elkarlanean egindako 'Lumineszenteak' liburua aurkeztu zuen Irantzu Pastorrek urriaren 13an Bilbon. «Emakumeen kontrako indarkeria ikusezinak eta erresilientzia historia zenbait» bildu ditu

AITOR AROTZENA | LESAKA

Lan horiek biltzen dituen erakusketa ere ikusgai izan da urrian Bilbon eta, orain, batean eta bertzean erakustea gustatuko litzaieke. Bartzelonako Unibertsitatean Arte Ederrak ikasi zituen Irantzu Pastor Ordokik (Lesaka, 1985). Karreran zehar irudian espezializatu eta gero, argazkigintza dokumentaleko espezializazio bat ere egin zuen. Gero graduondo bat egin zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, *Gatazka egoeretako komunikazioan*. «Hori guztia internazionalismoarekin ere paraleloan joan zen beti, eta Kolonbian, Guatemalan, Palestinan, Kurdistanen... ibili nintzen, hainbat erakundetan laguntzen, eta aldi berean argazki erreportajeak egiten», aipatu digu. Esperientzia hori 2018tik honat ontzen joan den liburu batean bildu du.

Lumineszenteak liburua argitaratu berri duzu, Igone Mariezkurrena kazetariarekin elkarlanean... Zer topatuko du irakurle-argazkizaleak?

Liburuak emakumeen aurkako indarkeria motak eta 63 emakumeren bizitzako historia eta argazkiak biltzen ditu, diskurtso nagusietan lekuri ez duten emakumeenak, hain zuten. India, Palestina, Lakota nazioan eta Euskal Herrian gauzatutako proiektua da. Kontakizunen protagonistak bortizkeriazko giroetan bizi

edo hazi dira, hala nola, okupazio militar, pobretze, behartutako lekualdatze, genozidio edo asimilazio kulturalako testuinguruetan. Egiturazko indarkeria horiek, baina, emakumeen eguneroko bizitza baldintzatzen duten eta hala ere konozimendurik ez duten bertze indarkeria soti-lagoekin korapilatzen dira. Hain justu azken horiek atera nahi ditu argitara *Lumineszenteak* proiektuak; maiz erre-gistrorik, neurketarik eta ize-nik ere ez duten bortxak ikusaraziz, protagonisten erresilientzia balioan jarritz eta sufrimenduen erromantizazioa arbuia-tuz. Emakumeen inguruko diskurtso homogenizatzailak hautsi eta, horien orde-z, begirada konplexuagoak bideratzeko saiakera bat da hau. Indarkeria patriarkalaren adierazpen-sorta zabala generoarekin, arrazarekin, etnizitatearekin, klasearekin eta sexualitatearekin nola gurtzatzen den ulertzeko ahalegin bat.

2018tik elkarlanean aritu zarete proiektu honetan... Luze egin zaizue gauzatua ikusi arte? Nola izan da prozesua?

«63 EMAKUMEREN BIZITZA HISTORIA ETA ARGAZKIAK BILTZEN DITUGU»

2018tik aitzinera, urtero gure 'bertze lanetak' oporrak erabili izan ditugu gure kabuz egin dugun proiektu hau gauzatzeko. Lehen bidaia Palestinara izan zen, ideia orokor bat genuen zer eta nola egin nahi genuen, baina bidaia horren bueltan, argiago ikusi genuen norantz bideratuko genuen lana, nola kontatuko genituen emakumeen historia horiek eta nola emanen genion forma guztiari. Urtero bidaia bat egin dugu ordutik, azkena 2020ko hasieran izan zen, Hego Dakota, handik bueltatzean pandemia hasi zen eta horrek ere geldiarazi zituen bidaiak, mugitzeko zailtasunak, etxeetan sartzeko zailtasunak... Hasieratik argi genuen Euskal Herrian ere gaia jorratu nahi genuela, beraz... pandemiako azken urtean hori egiteko aprobe-txatu dugu.

Emakumeen begiradan konplizitate bat sortzen dela aipatu izan duzu...

Bai, baina hori bilatu behar da aurkitzeko. Ezinbertzekoa da emakume horiengana umiltasunez eta errespetuz hurbiltzea. Beraien bizitzako traumak eta minak kontatze-

«GERRA BUKATUTA NORK BERREGITEN DU DEUSEZTUTAKO SARE SOZIALA?»

ko eskatu izan diegu, eta ate hori ireki izan digute, errespetutik eta hurbiltasunetik egin dugulako lan. Uste dut enpatia behar-beharrezkoa dela, emakumeen testigantzak aditzeko eta gero hori argazkitan islatzeko. Argazkietan ikusten diren begirada guztiak, ate irekiak dira, elkarrenganako begirada bat, ni eta emakume horren artean, eta denetan nire aldetik behitatzat, admirazio puntu bat dute. Egoera hagitx gogorretan bizi diren edo trauma bortitzak jasan dituzten emakumeak direlako, eta hala ere, altxatu eta duintasunez begiratzeko gaitasuna izan dutelako. Gu biek emakumeak izateak ere eragina izan du noski, emakumetik emakumera ulertu egiten gara hainbat indarkeria motatan sentitzen dena zer den. Hala ere, guk gure pribilegiotatik egindako lana ere badela argi dugu, emakumeak gara bai, eta horregatik aunitzetan zapalduak, baina aldi berean zuriak gara, Euskal Herrian jaio gara, etab,... horren kontzientzia hartzea ere beharrezkoa da.

Mundu zabaleko hainbat herrialdetan ibili zara, eremu gatazka-tsuari aunitzetan... Emakumeenganako indarkeria oraindik bortitzagoa da eremu horietan?

Gatazka egoeretan ere, lehen lerroko protagonistak batez ere gizonezkoak dira. Arme-kin ikusten ditugu, gobernuetan agintzen, kaleetan, bileretan, preso politikoen argazkietan... baina non daude emakumeak? Gerra bat ofizialki bukatu denean, nork berregiten du deuseztatu duten sare soziala? bitartean nork mantendu du familia? Nor dago isilpeko lana egiten? Inguruko guztien zain-tza lanak bere gain hartzen? Beti dira emakumeak. Baina ez ditugu medioetan ikusten, ez dakigu zer sufritzen duten. Egon naizen herrialde guztietan ikusi dut gauza bera, Kolonbian denbora luzez egon naiz, bertako gatazka hurbi-letik ezagutu dut, Kurdistan, Guatemala, Palestina,...



Irantzu Pastorren liburuko argazkietan «diskurtso nagusietan lekurik ez duten emakumeak» bildu ditu.

Zein izan da ibili zaren herrialdeen artean egoera gogorrenak bizitu dituzuna?

2017an Grezian eta Serbian ikusi nuena gogorra izan zen. Milaka gazte migrante afganiar Europako muga saltatu nahiean... Trenak moldatzeko barrakoi abandonatuetan bizirautez negu gorrian, bakarrik zeuden 10 urte inguruko haurrak ere bazeuden. Indian ere, Igonerekin batera, hainbat eta hainbat prostituzio mota ikusi genituen hurbiletik, auzo gorrietan egon ginen bertan lan egiten duten emakumeekin, baita putetxeetan sartu ere, gogorra izan zen.

Munduko fokutik gure ingurura pasatuz, emakumeen lixiba lana erreproduzitzen duen zure argaz-

ki bat ere paratu dute Zubietan... Gurean ere emakumeen lana eta emakumeenganako indarkeria gordean izan direla uste duzu?

Bai! Ilusio haundia egin dit egia erran nirekin kontatu izanak. Gure inguruan ere, erran beharkezdago, emakume gehienak ere bigarren planoan egon direla eta dau dela, etxeko lanak, zaintza lanak,... horiek guztiek ez dute inoiz errekonozimendu publikorik. Horrez gain, garbi-

tokiek emakumeen arteko sareak indartu izan dituzte urtetan gure herrietan eta istorio aunitzen testigu dira pareta horiek. Herriko emakumei aitortza bat da eta ekimen ederra bezain beharrezkoa da. **Zure argazkiak, bertzeak bertze, Gaztezulo aldizkariako portadetan eta Baztan-Bidasoaldeko turismo elkartearen webgunean ikus daitetzeke... Pertsona baten erretratu edo paisaia, zer da zailagoa? Zeinek betetzen zaitu gehiago?**

«EMAKUMEAREN LANAK EZ DU ERREKONOZIMENDU PUBLIKORIK»

«ERRETRATU BAKOITZA ERRONKA BAT DA, MISTERIO BAT...»

Nire ustez, aunitzez zailagoa da pertsonen erretratu onak egitea, beraien izaera begirada batez erretratatzeara. Zerk betetzen nauden gehiago? Horrek! Erretratatu beharreko pertsona bakoitza erronka bat da niretzat, misterio bat... Ez dakizu zer gertatuko den, konektatuko duzuen edo ez, nola jokatu duen kamararen aitzinean... Niri pertsonak interesatzen zaizkit, kontatzen dutena eta gordetzen dutena. Dena nabaritu daiteke argazki batean. Horrez gain, horrelako argazkiak egiteak inoiz hurbildu edo eza gutuko ez nituzkeen egoera eta pertsonak ezagutzea permititu dit, behartu dit, erosotasunetik atera eta 'Aizu barkatu, argazki bat egiten ahal dizut?' Nor zara? zein da zure historia? galde-tzera... komoditatea eta erraza dena alde batera uzten duzunean, zerbait berriakastan duzu beti, eta leku berri batera ailegatzeko zara, ezberdin egiten zara. Horrek betetzen nau.

Zuri-beltza eta kolorea, biak erabiltzen dituzu... Noiz zein?

Argazki eta egoerak erraten dit zer eskatzen duen. Nor-malean kolorean egiten dut lan, baina badira zuri-beltza eskatzen didaten argazkiak. Ez nuke jakinen arrazoitzen, sentsazio bat da, zuri-beltzera aldatu eta denak funtzionatzen du. Edo alderantziz.

Hurbileko argazki horien artean, seguru 2019ko San Fermin Egunean ahizpari Zubigainekoa dantzatzen ateratakoak leku kuttuna duela zure bihotzean...

Batzuetan zaila da argazki ona edo txarra den norberak erratea... Izan ere, argazkiak momentu horretan bizitzen ari zinenarekin erlazio zuzena du, oroitzapen bat da, argazkian izozturik utzi duzun emozio bat. Egun horretan urduri, harro eta zoriontsu sentitzen nintzen, dena batera, argi nuen momentu historikoa zela herriarentzat, emakumeontzat... Egia erran, kostatu zitzaidan burua 'obturazio zenbaki eta denboretan' pentsatzen jartzea.



«Etorkizunera begira azokak indartzeko elementuak» direla uste du Itsasne Mendiberri ikerlariak. Irudian Berako Lurraren Eguna.

Tokiko elikagaiak tokiko ekonomia sustatzeko

Urte hasieran aurkeztu zuten Malerrekako eta Bertizaranako elikadura sistemaren diagnosia eta berriki Bortzirietakoa ezagutarazi dute. Hori eginda, elkarlanean, «elikadura estrategia bateratua» garatzeko bidea hasi nahi dute

G. PIKABEA | BORTZIRIAK

«Egungo kontsumo ohiturak elikagai merkeetan oinarritzen dira. Ez dago kontzientziarik elikadura osasungarri, tokiko, ekologiko eta kalitatezkoaren inguruan». Halaxe dio Itsasne Mendiberri Jaurenak. Bera da lehenbizi Malerrekan eta Bertizaranako eta orain Bortzirietan egin duten elikadura sistemaren diagnosiaren egileetako bat eta hori da atera duten ondorioetako bat: «eskualdean eta oro har gure gizartean orokortutako joera». Alde horretatik, herritarrengan

«informazio edota kontzientziazio falta nabari dela» uste du.

Tokiko Ekonomia Sustatzeko Lurralde Elikadura Estrategia garatzeko abiatu duten prozesuaren barnean egin dute elikadura sistemaren azterketa. Urte hasieran aur-

keztu zuten Malerrekako eta Bertizaranako diagnosia Donezteben eta, azaroaren 5ean gauza bera egitekoa zuten Beran, Bortzirietako azterketa aurkezteko. Egun berean, bi eskualdeek elkarlanean «elikadura estrategia bateratua» abiatzeko lansaioa egite-

«KONTSUMOA ELIKAGAI MERKEETAN OINARRITZEN DA»

ITSASNE MENDIBERRI, IKERTZAILEA

«EKONOMIA SUSTA DEZAGUN BERTAKOA KONTSUMITUZ»

AITOR ELEXPURU, BERA KO ALKATEA

koa zuten eta azaroaren 26an eginen dute bigarren saioa, Donezteben.

Abiapuntua

Mendiberriren arabera, «Bortzirietan Hiri Hondakinen Mankomunitateak Tokiko Agenda 21ean adierazitako lehentasunezko estrategietako bati segituz» hasi dute proiektua. Aitor Elexpuru Berako alkateak gaineratu duenez, Agenda 21a joan den urtean berriro zuten Bortzirietan eta egindako prozesu-hartzailean ondorioztatu zuten, «lehen sektorearen inguruan badela kezka. Urteekin egoera sozioekonomikoa aldatu da. Industria garatzen joan da, lehen sektorea bizibide izatetik osagarri ekonomiko bihurtzeraino». Eta horri «elikagaien inguruko kezka eta sentsibilitate gero eta handiagoa» gehitu zaizkio. Hala, «garaioetan zentzuzkoena bertan ekoiztutako kalitatezko produktuak kontsumitzea dela» sinetsita, bortz herrietako alkateek elkarlanean, «Malerrekan eta Bertizaranako egin zutena begiratu, eta guk ere antzeko zerbait egitea pentsatu genuen».

Tokiko elikagaiak kontsumitzeko prestutasuna

Bortzirietako udalek eskatuta Itsasne Mendiberri, Aintzira Oñederrak eta Marc Badalek egin dute ikerketa, «Bortzirietako elikadura sistemak dituen indarguneak, aukerak eta arriskuak identifikatzeko» eta honela, «bailarako lehen sektorea egonkortu eta sustatzeko proposamenak aztertzeko». Mendiberri «etorkizun hurbilean Ekonomia Zirkularrari eta Tokiko Produktuen Kontsumoaren Sustapenari buruzko proiektu bati egiteko aukera baloratzen ari garena» kontatu du.

Diagnosia martxoan hasita egin dute eta tartean Bortzirietako hainbat aditu, ekoizle eta kontsumo proiektu aztertu dituzte eta «tokiko elikagaiak kontsumitzeko prestutasuna

dagoela sumatu» dute. Horren adibide, «Bidazi elkarte eta hainbat eskoletako jantoki» aipatu ditu. Ekoizpenari dagokionez, ordea, «nahiz eta baserriak egon, profesionalki lehen sektorean ari direnak gutti direla» ondorioztatu dute, «eta guttiago oraindik baratzegintzan edota frutagintzan aritzen direnak». Horren gibelean, «Bortzirietako industria jarduera handia» aipatu du, «zaildu egiten du eskualdeko gazteek nekazaritza lan aukera desiragarritzat hartzea».

Ekoizpen ereduak

Ekoizpen ereduak erparatu, eredu estentsiboak, intentsiboak eta agroekologikoak aztertu dituzte. Hala «Bortzirietako eta oro har, Baztan-Bidasoko nekazaritza eredu nagusia estentsiboa dela» ikusi dute. «Ekoizpen eskala ttiki samarra dute, dibertsifikazio jakin bat, eta tokiko baliabideak aprobetxatzen dituzte, mendietako larreak. Beraz, paisaia mantentzen dute, zuzeneko salmenta bidez saltzen dute ekoizpenaren zati bat...». Hala ere, «gehienek jarduera osagarri edo zaletasun izatera mugatzen» omen dute, «eta abeltzain aunitz jubilatuta edota jubilatzeaz daude».

Bide beretik, «eredu agroekologikoan aztertutako «proiektu guztiak eskala ttiki-ko ekoizpen ekologikoak» direla dio Mendiberrik: «Dibertsifikatuak eta tokiko baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzen dituztenak dira, bide laburren bitartez merkaturatzen dute eta, neurri handiagoan edo ttikiagoan, egitura edo dinamika kolektiboe-tan parte hartzen dute».

Hain zuzen, agroekologikoa omen da «jende gazte gehien biltzen dituen eredu. Gainera, eredu estentsibotik eredu agroekologikorako trantsizioa nahiko erraz egin daitekeela uste dugu». Ez hori bakarrik. «Baserritarraren irudi estereotipatua hausten» dutela azaldu du: «bertzelako gaiekin



Ilbeltzaren 15ean Malerreka eta Bertizaranako diagnosia aurkeztu zuten.

Azaroaren 26an bigarren jardunaldia

Azaroaren 5ean aurkeztekoa zuten Bortzirietako elikadura sistemaren diagnosia, ilbeltzean Malerreka-Bertizaranako egin bezala, eta horrekin batera, bi eskualdeen arteko lehenbiziko lantzaioarekin hastekoak ziren. Azaroaren 26an, bi eskualdeek elkarlanean, bertze lantzaio bat egingen dute Donezteben. Saio horretan elkarlanean aurrerak argitu nahi dituzte. Bortzirietako lantzaioan bildutako emaitzak aurkeztu eta ekintza estrategikoen inguruan izan daitezkeen aliantzak eta sareak bistaratu dituzte. Eta Cederna Garalur elkartekoek elikadura estrategian identifikatutako ekintza plana egiteko balizko dirulaguntzak aurkeztuko dituzte. Bildutakoek eztabaidarako tarte ere izanen dute. Saioa «irekia» izanen da eta Elexpuruk kontatu duenez, «eskualdeko lehen sektoreko elikagai ekoizleek eta kontsumo taldeek eskutitz bidez hartuko dute gonbidapena». Hortik harago, «interesa duen edonori» parte hartzeko deia egin diete Elexpuruk eta Mendiberrik. Orduan zehaztu nahi dute bide orria, «elkarlanean oinarriak eta etorkizun laburrean har ditzaken konpromisoak», dio Elexpuruk. «Talde eragile bat sortzeko» aukera ere aipatu du, eta «akaso dinamizatzaile lanak egingen dituen langile bat kontratatu beharko da».

gehiago lerrokatzen dira: arazo klimatiko eta ekologikoekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin, feminismoarekin...».

Ekoizpen intentsiboa ere aztergai izan dute eta hasteko, «Nafarroa hegoaldeko eredu intentsiboekin alderatuz, hemengoak proiektu ttikiak direla» argitu nahi izan du iker-tzaileak, baina «lurraldearen ezaugarriak kontuan harturik, dibertsifikaziorik gabe eta abere kopuru handiekin dihar-

dutelako» eredu intentsibotzat hartu dituzte. Horrelako eredu «hagitz gutti» ageri omen dira Bortzirietan, «mekanizazio maila jakin bateko proiektuak dira eta normalki eskualdetik kanpo egiten dute salmenta».

Kontsumo ohiturak

Kontsumo ohiturak behatzerakoan, eskola jantokiak, zahar etxeak, jatetxeak, harategiak, fruta denda bat eta kontsumo

«AGROEKOLOGIKOA DA GAZTE GEHIEN BILTZEN DITUENA»

ITSASNE MENDIBERRI, IKERTZAILEA

«EREDU AGROEKOLOGIKOA LEHENETSI NAHI DUGU»

AITOR ELEXPURU, BERAÑO ALKATEA

elkarte bat aztertu dituzte: «Orokorrean elikagai hornitzaile nagusiak banaketara dedikatzen diren enpresak dira baina ikastetxeen kasuan, eskualdeko dendak dira». Ikastetxeetan jantokiaren harira, «kasu aunitzetan bertako elikagai eta komertzioaren aldeko apustu argia» nabaritu du Mendiberrik. Eta «Berako eta Lesakako zahar etxeen kasuan, kudeaketan udalek erabakitze-ko ahalmena izanda, interesgarriak diren jantokiak dira etorkizun batean tokiko produktua txertatu ahal izateko».

Administrazioaren papera

«Tokiko elikadura sistema indartzeko bertzelako eragilean inplikazioa ezinbertzekotzat» jo du ikertzaileak eta «merkaturatze bide laburrak eta oinarritzko azpiegiturak indartu eta egonkortzeko administrazioaren papera funtsezkoa» dela sinetsita dago: «Erosketa publikoa ere tresna bikaina da, bertakoa, garaikoa eta ekologikoa den elikadura sustatzeko». Dioenez, «Bortzirietako udalek euren zerbitzu publikoetan erosketairizpideak ezartzeko eskumena izanda, aukera paregabea dute tokiko ekoizpenei sostengua sendo bat emateko».

Horrekin batera, «tokiko elikagaien banaketa eta logistika sistemak koordinatzekoan izan dezakeen paper aktiboa» ere azpimarratu du eta «azokak bertako ekoizpena herriarrei ezagutarazteko eta indartzeko tresna interesgarriak» direla gaineratu du: «Gauregun bertako ekonomian pisu txikia duten arren, etorkizunera begira birpentsatzeko eta indartzeko elementuak dira».

Bertzetik, erreleboaren kontua aipatu du. «Egun eskualdean abeltzain ez profesionalak betetzen zirela zeregina guztiz ezinbertzeko den arren, sakonki lan egin beharra dago eskualdeko nekazaritzaren belaunaldi erreleboa bermatzeko. Tokiko eta eskual →

«Herrian kontsumitzeak ekonomiaz haratago doan aberastasuna sortzen du»

MAIALEN TXANTRE IRAZOKI BERA KO NEKAZARIA

«Produktuak non, nork eta nola ekoiztiak diren» ikustea eta horren arabera saskia betetzea. Maialen Txantre Irazokirentzat (Bera, 1991) gakoa da hori; «ez baita gauza bera, nahiz eta produktu ekologikoak eta kalitatezkoak izan, enpresa handi batek Hego Amerikan ekoizti baditu eta horretarako bertako jendea lurretatik kanporatu badu, edo bertakoa izanda baldintza txarretan baldin badaude». Kontsumitzaileen aldean arretaz erreparatzen die «hiru faktore» horiei, baina baita ekoizlearen aldean ere. Lanbidez baratze-zaina da eta argi du ez duela edozein ekoizpen eta negozio eredu egin nahi.

Noiz erabaki zenuen nekazaritza bizitzeko?

Prozesu horretan nago. Nire proiektua oraindik ez da bideragarria, baina proiektua epe luzera planteatu dut, eta nahia-ngo izan dut inbertsio haundirik egin gabe hasi, poliki-poliki lanari tamaina hartuz eta zein modutan lan egin nahi dudari ikusiz. Duela bi urte eta erdi hasi nintzen lurra lantzen eta duela bi urte lehenbiziko salmentak egiten. Oraindik proiektua hagitz txikia da eta poliki-poliki ari naiz ikusten zer ateratzen zaidan ongi, zer den egokiena lur eta toki honetan, zertan merezi duen inbertsioak egitea... Nekazaritzan emaitzak urte batetik bertara ikusten dira, aldaketek eta hobekuntzek ziklo hagitz luzeak dituzte eta mantso doa, baina kontent nago.

Nekazaritza bizitzeko bideragarria da?

Nik uste dut baietz, eta nekazaritza bizi den jendea eza gutzen dut, beraz, posible da. Gauza da ongi pentsatu behar

dela zein eredutan lan egin nahi duzun: zer ekoiziko duzun, nola, nori eta nola salduko diozun... Horrek aunitz aldatzen ahal du egin behar dituzun inbertsioak eta izanen dituzun gastuak, eta beraz, proiektuaren bideragarritasuna. Gainera, gure inguruan ditugun eredu gehienetan nekazaria bakarrik ari da, edo gehienez ere familiako norbaitekin. Horrek erran nahi du ardura, antolaketa eta lan guztiak zure gain daudela, eta maiz hori pisu handia da. Ez da zure lana egin eta norbaitek hilabete bukaeran soldata ordaintzea eta listo. Uste dut karga horiek arintzeko nekazarien artean antolatzeko modu berriak bilatu behar ditugula, proiektuak elkarlanean abiatuz, elkarlan puntualak eginez, zenbait lan partekatuz... Hamaika modu egoten ahal dira eta horrek bideragarriago eta bizigarriago egin dezake lanbide hau.

Nolako ekoizpen ereduak egiten duzu?

Eskala txikian lan egiten dut eta baratzeak ia lan guztiak eskuz. Ekoizpen anitza egiten dut, urte guzian zehar 25-30 produktu klase, eta helburua landarearen zikloaren ahalik eta gehiena nik egitea da. Salmenta ere eskala txikian egiten dut, bezeroei zuzenean eta nire inguruko jendearen artean salduz, herrian bertan.

Nolako da zure produktuak kontsumitzen dituenak?

Momentuz, bi salmenta modu ditut: saskiak eta Bidazi. Saskiak

«BATZUETAN EZ GARA SOBERA INFORMATZEN JATEN DUGUNAZ»



erosten dizkidan jendea herrikoa da, ezaguna. Asteroko konpromisoa dut eurekin eta beraiek nirekin, eta nahiko harreman hurbila dela sentitzen dut. Bida-zin nire produktuak erosten dituen jendearekin ez naiz zuzenean egoten, baina eskualdekoa da, eta gehienak bistaz bada ere, ezagutzen gara.

Ekoizle zaren aldetik, zein zailtasun ikusten dituzu?

Zailtasunetako bat bakardadea izan da, inguruan nire egoeran dagoen hagitz jende gutti dagoela ikustea; nahiz eta jendea lan hau gustatu, inor ez dela animatzen ikustea. Horren gibelean daude horrelako proiektu bat bideragarri izateko dauden zailtasunak. Ekonomikoki bideragarria izateko eredu berriak bilatu behar dira eta aunitz jarri behar duzu zure partetik, ez dago ia horretarako eredurik, formakuntzarik, aholkularitzarik... Nekazaritza eta baserria gutxietsi izana ere hor dago. Irri egin zaio, ez da egiazko lantzat hartu eta beti bideratu digute

«SAIATZEN NAIZ AHAL DUDAN GUZTIA HERRIAN LORTZEN»

ikastera edo fabrian lan egitera. Eta zenbait kasutan egia da fabrian edo bertze lanetan segur aski diru gehiago irabazten ahal dela. Baina batzuetan dena ez da dirua eta aukera guziak berdin baloratu beharko lirateke. Ez pentsatu batzuk bertzeak baino hobekien direnik.

Jendea kontzientziatzeko beharra sumatzen duzu?

Uste dut gaur egun mundu guztiak badakiela osasuntsu egoiteki osasuntsu jan behar dela, baina batzuetan ez gara sobera informatzen jaten dugun horren inguruan, eta nik uste hori gure ardura dela. Jaten dugun hori kalitate onekoa den edo ez, gugandik hurbil edo milaka kilometrotara ekoizia den, zenbat plastikotan bildua dagon, zein baldintzetan lan egiten duen hori ekoizti duen jendeak... Horren inguruan denok susmatzen dugula zerbait, baina nahia-ngo dugu ez ikusiarena egin. Ikusten dugu dena plastikoz inguratua dagoela, kamioiak etengabe pasatzen (gure eskualdean bereziki) direla, albistegietan tarteka jendea eskualdean ari dela lanean... Eta gaur egun denok dakigu azukreak eta prozesatuak, adibidez, ez direla onak. Kontzientziatzeko egitea ongi dago eta beharrezkoa da, baina uste dut gauza batzuk

dagoeneko denok dakizkigula, eta aldaketa tikiak norberak egin behar dituela.

Bidazi kontsumo elkarteak hurbilekoa duzu. Halako proiektuek zein ekarpen egiten dute zure ustez?

Niretzat sekulako zortea da Bidazi bezalako toki bat izatea, kalitatezko produktuak, eta gainera, ahal den neurrian hurbilean ekoiztiak eta ekoizleari zuzenean erosiak lor ditzake dalako. Aunitz errazten dit elikadura aldetik bizitza osasuntsua izateko aukera. Gainera, Bidazin ibiltzen den jendearen arteko harremana hurbilekoa eta konfiantzazkoa da, euskalduna... Aunitzetan denda baino gehiago topalekua ere izaten da.

Zein irizpide dituzu kontsumitzerakoan?

Saiatzen naiz ahal dudana guziaz herrian lortzen, maila guztietan. Elikagaiak ere, herriko dendetan erosten saiatsen naiz, baina garrantzia ematen diot produktu horiek non, nork eta nola ekoiztiak diren. Niretzat hiru faktore horiek garrantzitsuak dira: non, nork eta nola. Nahiz eta produktu ekologikoak eta kalitatezkoak izan, enpresa haundi batek Hego Amerikan ekoizti baditu eta horretarako bertako jendea bere lurretatik kanporatu badu, ez dit balio. Edo bertakoa izanda ere, langileak baldintza txarretan baldin badaude ere ez.

Zailtasunik izaten duzu nahi dituzun produktuak eskuratzekoan?

Orokorrean ez, baina zenbait kasutan, batez ere kontserbetan edo elaborazioa daukaten produktuetan, zaila da ekoizle tikiaren produktuak lortzea. Merkaturatzeko eskatzen dituzten baldintzak aunitzetan zentzugabeak dira, horrek merkatutik kanpo uzten ditu eta ekoizle haundiei erostera beharzen gaituzte.

Eskualdeko produktu gehiagok kontsumitzea gustatuko litzazuke?

Egia erran, jaten dudana gehiengo eskualdean ekoiztea da, hemen ekoizti daitekeen guziaz bederen, kafea, txokolatea eta antzeko batzuk izan ezik. Euskal Herrian eguneroko elikaduraren gehiengo ekoizteko aukera dago: barazkiak, fruta, olioak, esnekiak, haragia, arraina, arroza, ogia, lekaleak, arrautzak, kontserbak, sagardoa, ardoa... Alde horretatik sekulako zortea dugu, eremu tikiaren hainbat klima eta orografia ditugunez, ia guztia ekoizten ahal dugulako. Pixka bat informatuz gero, gure zonaldean nahiko erraza da eskualdeko produktuak kontsumitzea.

Elikadura negozio bilakatu dela uste duzu?

Gaur egun, elikadura negozioa da, ia inork ez dituelako bere elikagaiak sortzen, eta beraz, ez dugu erosi bertze erremediorik. Baina elikagaiak sortzea diru iturri denean, diferentea da ekoizpen eta negozio eredu bat edo bertze aukeratzea. Ez da gauza bera lan horretan kalitatezko produktuak ekoiztea, ingurunea zaintzea eta errespetatzea eta lan baldintza duinak izatea; edo osasunarentzat kaltegarriak diren produktu eskasak ekoiztea, ingurunea kutsatzea eta hondatzea eta esplotazio baldintzetan lan egitea. Hor dago koska.

Kontsumo ereduak nolako ekarpena egiten diote toki-ko ekonomiari?

Kontsumoaren bidez mugitzen da dirua, eta kontsumoa non egiten dugun dirua horrat joan da. Herrian kontsumitzen dugunean eta bertako produktuak kontsumitzen ditugunean, badakigu diru hori eskualdean geldituko dela, eta aberastasuna sortzen dugu herrian. Kanpoan kontsumitzean, beriz, aberastasuna galtzen ari gara. Diruaz haratago, herrian eta ezagunei kontsumitzean harremanak, konplizitateak, sareak... sortzen dira, eta horrek ekonomiaz haratago doan aberastasuna sortzen du.

→ deko administrazioek eskura dituzten baliabide guztiak erabili beharko lituzkete gazte gehiagok sektorean instalatzeko aukerak izan ditzaten».

Agroekologikoa lehentasun

Guztiaren oinarrian, «kalitatezko elikadura sistema osasuntsua» dute xede, Berako alkatearen hitzetan, «bertakoa edo ingurukoa ahal bada» eta «ekoizpen agroekologikoan» oinarritua: «Hori izanen litzateke gure iparra, hori da udalek lehenetsi nahiko genukeen bidea».

Eskualdean dagoeneko halako proiektuak badirela eta «eredugarri izan daitezkeela» iruditzen zaio Elexpururi: «agroekologiak balio erantsia ematen dio produktuari, bai kalitate aldetik baita jasagarritasunaren eta osasunaren aldetik ere. Ezaugarri ekonomikoez gain, bertzelako alderdi sozial, kultural eta ekologikoak ere aintzat hartzen dituen diziplina da». Bide horretan, «Oronosen kokatuko duten eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe berrian agroekologia ikasketak jarri nahi dituzte, gero eta ekoizle gehiagok bide hori aukeratzen dutelako».

Bertzeengandik ikasiz

Ez dira hutsetik hasi eta «non begiratu izatea» poztekoa dela dio alkateak: «bertze esperientzietatik aunitz ikas daiteke». Urruti joan gabe eskualdeko hainbat adibide ekarri ditu gogora: «Beran Bidazi dugu, ekonomia sozialaren aldeko lanean kontsumo arduratsua eta ekologikoa bultzatzen duen elkarteak; hainbat ikastetxetako jantokiak herriko dendetatik hornitzen dituzte; Baztanen lan handia egin dute gai horren inguruan eta hurbiltasunagatik eurekin elkarlanean aritzea ongi legoke. Iparraldean ere badira esperientziak martxan, Leitzan ere bai... Elikadura burujabetzaren inguruan Udalbiltzak hainbat esperientzia bilduak ditu».

«Pausoz pauso»

Elexpuruk herritarrak ere «gero eta sentsibilizatuagoak eta kontzienteagoak» ikusten ditu, eta gogoan du, «pandemiaren eraginez konfinatuak egon ginenean bertako eta hurbileko dendek garrantzia ikusi zela. Tokikoak bertze dimentsio bat hartu du. Globalizazioa eta politika ekonomiko neoliberalak ezagutzen ditugu eta badakigu zein ondorio kaltegarri dituzten». Hala ere, «oraindik egiteko aunitz» dagoela uste du.

Iritzi berekoa da Mendiberri eta, herritarrak kontzientziazteko beharraz aritu da: «Herritarren gehiengoaren erosketak ohiturak ez doaz hurbileko sektorea indartzeko norabidearekin bat». Hain zuzen horregatik, «tokiko lehenbiziko sektorea indartzeko asmoz egindako edozein ekimen kontzientziazio edo sentsibilizazio lan sendo batekin lotuta joan beharko lukeela» iruditzen zaio. «Badirudi, elikadura sistema atzendutako esparrua izan dela, nahiz eta gure egunerokoan oinarritzakoa izan. Badaude epe motzean lor daitezkeen helburuak, baina elikadura sistemari beharrezko garrantzia eman nahi bazaio inplikaturakoen konpromisoak irmoa izan beharko luke».

Elexpuruk onartu du helburua «ez dela gauetik goizera lortuko», eta «zailtasunak» ere aipatu ditu: «multinazionalen indarra, jendearen kontsumo ohiturak...». Baina «tikiak eraginez, eta pauso tikiak emanez» lanean segitu nahi dute: «Globalizaziotik tokikora salto litzateke helburua, bertan ekoiztea eta bertan kontsumitzea, tokiko ekonomia sustatuz eta hurrengo belaunaldiei landa eremuan lan eta bizitzeko aukera emanez». Horretarako, «garrantzitsua» iruditzen zaio «ibilbideari eustea eta ez etsitzea. Elikadura burujabetzaren aldeko pausoak ematen ari gara, hasieran gaude eta segida izatea nahi genuke».

Eguberrietarako botako dute Kaxerna gaztetxea

Amiantoa kentzeko baimena lortu ondotik hasiko dituzte gaztetxea eraisteko lanak

AINHOA LARRETxea AGIRRE

Iazko uztailean udaleko kideek eta herriko hainbat eragilek egindako bileraren ondotik, Kaxerna gaztetxea behin betiko ixtea eta etorkizunean botatzea erabaki zuen Berako Udalak. Orduan argudiatu zuten eraikina egoera txarrean zegoela, ez zituela segurtasun neurriak betetzen, eta ezinezkoa zela bertan inongo jarduerarik egitea. Dagoeneko hustu dute gaztetxea, eta amiantoa kentzeko beharrezko baimena lortzean, lehenbizi hori kendu eta ondotik hasiko dituzte gaztetxea botatzeko lanak. Aitor Elexpuru alkateak TTIPI-TTAPATI errandionez, eguberrietarako eraitzia izanen da.

2020ko martxoan bukatu zen eraikinaren kudeaketarako udalak eta Beragazte elkar-

teak sinatua zuten hitzarmena. Beragazteren proiektuak azken urteetan ez du segidarik izan, eta eraikinaren egoera kaltetzen joan da.

Zola eraberritzeko lanak

Herrian barna zola eraberritzeko lanekin segitzen du udalak. Berriki Zalain Beran, Savera eta Alco enpresen parean, Bortziriak auzoan gibelko aldeko pistari, eta Legarreko Bordako maldan aritu dira.

Langile bat kontratatatzeko prozedura abian

Urriaren 27an udalak argitaratutako ebazpenean, euskarra dakien langile bat oposizio bidez kontratatatzeko prozedura abiatu zuen herriko etxeak. Mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofizial lan-



Gaztetxeko Areto Nagusia hustuta.



Egoera txarrean dagoelako erabaki dute Gaztetxea botatzea.

posturako aldi baterako lanpostu hutsa betetzeko egin du deialdia udalak, eta, era berean etorkizunerako lan poltsa ere osatu nahi du deialdi horren bidez.

Udalak enplegu eskaintza egingen du Nafar Lansareko Doneztebeko bulegoan, eta deialdia publiko egingen du udaletxeko iragarki oholean zein udalaren web orrian.

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

JAIONE-COXOTEGIA
Etxean
egindako
produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Ansonea ostatu • jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 • BERA

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Lan aferak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.
BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
K-STRETCH
Helbide berria
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN
Centro Prim regina tolosaechepare

Aparkalekuen bereizgarri banaketa udalean

Banaketa udaletxeko bulegoetan egingen da bulego ordutegian (8:30-13:30), eta hartzeko NANA aurkeztu beharko da

OTIPI TTAPA

Heldu den astelehenetik aitzinera egoiliarren aparkalekuen bereizgarri berriak banatuko dituzte datozen bi urtetarako. Banaketa udaleko bulegoetan egingen dute, bulego ordutegian eta nortasun agiria aurkeztu beharko dute bereizgarria hartzeko eskubidea egiaztatzeko.

Bereizgarria banakakoa eta besterenezina da; beraz, eskubidearen titular bakoitzeko zenbakidun bineta bakarra emanen dute, eta hartze-agiria sinatuko dute. Bulegoetara joaterik ez duenak baimena

eman diezaioke hirugarren bati hartzeko. Hirugarren horrek baimen sinatua eman beharko du eta bertan eskaizalearen izen abizenak, nortasun agiria eta ibilgailuaren matrikula paratu beharko ditu, baita hartzeko baimena duen pertsonaren izen abizenak eta nortasun agiria ere.

Bereizgarria aitzineko haitzetakoan behar bezala itsatsi beharko da, kanpotik ikusteko moduan. Bereizgarri berria hartzen den momentutik baliagarria izanen da. Zaharrak datorren urteko abenduaren 31ra arteko balioa izanen du.

'Biziprest' dokumentalaren emanaldia azaroaren 12an Kultur Etxean

Berako Euskaraldiko batzordeak antolatuta, *Biziprest*, *gehiago gara* dokumentalaren emanaldia izanen da Berako Kultur Etxean azaroaren 12an 19:00etan. Iñaki Alforja Segone da dokumentalaren egilea, eta 2020ko Euskaraldiko zenbait esperientzia biltzen ditu,

tartean Iñaki Castillo beratarrenak. Miriam Balmaseda, Yasmine Khrish Maansri eta Iñigo Martinez dira dokumentaleko bertze hiru protagonistak. Euskaltzaleen topaguneak ekoitzi du dokumentala, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lasarte eta Erdozain txapeldun

Joseba Lasarte eta Ibon Erdozain Gure Txokoa taldeko korrikalariak Nafarroako Mendi Lasterketen XII. txapelketan txapeldun izan dira. Lasartek beteteranoen kategorian, eta Erdozainek seniorren kategorian zirkuituko zazpi lasterketatik seitan korrika eginga lortu dute garaipena.



GURE TXOKOA DANTZA TALDEA

Gure Txokoa dantza taldea Saloun

Saloun ospatutako Nazioarteko Lehenengo Makildantzen kongresuan parte hartu du Gure Txokoa dantza taldeak. Salouko auditorioan dantza emanaldia eskaintzeaz gain bertze 82 talderekin batera kalejira egin zuten Salouko itsas pasealekuan. Esperientzia aberasgarria izan da taldearentzat.

SMAZIZIOR

edariak

BERA

SILVIA MAZIZIOR S.L.

Pol. Ind. Alkaiaga, C. Ziobi, 1, LESAKA

Tel: +34 948 63 15 57

+34 676 05 16 60

maziziorsenper@gmail.com



Nahi al duzu sorta bat erosi edo zure gustura egin?

Azienda eta eskulangile feria azaroaren 25ean

Bezperan ajoarriero lehiaketa izanen da eta feria egunean lehiaketa, herri kirolak, bertsolariak eta musika

AITOR AROTZENA

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, berriz ere feria usaina sumatuko da herriko karriketan azaroaren 24an eta 25ean. Ez da betiko ospakizuna izanen, baina aziendak, artisauak, bertsolariak, herri kirolak eta musika izanen dira. Udalak antolatu ditu ekitadiak, Beti Gazte, Bortzirietako bertso eskola, Lesakako Zerbitzuen Elkarte eta herriko abeltzainen eta gazteen laguntzarekin.

Azaroaren 24an, asteazkenean 18:00etan, ajoarriero lehiaketa izanen da Beheko Plazan, Beti Gazteren eskutik. Biharamunean, frontoiaren gibelean azienda lehiaketa egingen dute, Plaza Zaharreko aparkalekuan elikagaiak izanen dira eta Plaza Zaharrean artisauak. Herriko komertzioak ere karrikara aterako dira.



Aziendak frontoiaren gibelean aurtzen.

11:00etan herri kirolak ikusgai izanen dira Bittiria plazan. 13:00etan Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariak ariko dira eta ondotik sari banaketa egingen dute. Arratsaldean ere segida izanen du ospakizunak musikarekin, 18:30ean kontzertua emanen baitu Kilimak taldeak eta 20:30ean hasita, Distopia elektrotzaranga ibiliko da.

Sukaldaritza tailerra azaroaren 12an eta 19an Basurden

Iñaki Pikabea sukaldariaren eskutik, sukaldaritza tailerra antolatu dute Beti Gazte eta Basurde elkarteek, udalaren laguntzaz. Azaroaren 12an eta 19an emanen dute, ortziraletan 18:00etatik 20:00etara Basurde elkartearen. Izena emateko azken eguna azaroaren 10a izanen da eta Basurdeko eta Beti Gazteko bazkideek lehentasuna izanen dute. Bi elkarte hauetako bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 20 euro. Izena emateko 626 85 61 55 edo kultura@betigazte.net.

Organo eta Easo abesbatzaren kontzertua

Kontzertua eskainiko dute Oscar Candendo Zabala organistak eta Donostiako Easo abesbatza mistoak azaroaren 13an, larunbata, 18:00etan, elizan. Lesakako Roqués Organoaren Lagunen Elkarteak antolatu du, udalaren laguntzaz. Kontzertuaren irudiak pantaila batean proiektatuko dituzte. Horrek aukera emanen die bertaratuiei ikusteko nola interpretatzen duten musika koruan. Sarrerak Telletxea eta Xagu liburudendetan paratu dituzte salgai (baita elizan ere, kontzertua hasi baino lehen), 5 eurotan.



AITOR AROTZENA

Lesakako Realzalik peñaren aurkezpena

Lesakako Realzalik peñaren aurkezpena egin zuten urriaren 31n eta egun hori osasunazaleen Bortzirietako Gorriekin senidetzeko baliatu zuten. Gainera, Realean ari diren bi jokalariei, Iraia Etxarteri eta Jorge Agirreri, peñaren kamiseta eman zioten opari, baita logoa egin duen Iraia Etxabideri ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gau Beltza ospatu dute ttikienek

XXI. mendean lehen aldiz Gau Beltza ospatu dute haur eta gaztetxoek, udalaren ekimenez. Komentuan eskulanetan aritu eta eguzkilore erraldoi bat osatu ondotik, *Harrizkoak* ipuina aditzeko aukera izan zuten. Udalak eskerrak eman dizkie antolaketa lagundu zutenei.



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Gazteek antolatutako asteburua bikaina suertatu zen

Mus txapelketan 28 bikote aurkeztu ziren eta patata tortilla txapelketan 37 talde aritu ziren lanean

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko gazteek antolatuta, ekitaldiz beteriko asteburua izan zen urriaren hondarrekoa. Ortziralean Berri Txarrak taldearen *Dardara* filma ikusgai izan zen Kultur Etxean.

Larunbatean, berriz, 28 bikote hartu zuten parte mus txapelketan eta Alfonso Sueskunek eta Mikel Donazarrek irabazi zuten txapelketa, Elutsa ostatuak emandako otordua irabaziz. Bigarren postua Martin Legazkuek eta Jesus Mari Ezkurak lortu zuten eta botila ardoa eta gasna erdi bana irabazi zuten.

37 patata tortilla

Patata tortilla txapelketak aurreikuspen guzikiak hautsi zituen. 37 tortilla lehiatu ziren eta epaimahaiak ez zuen lan xamurra izan hiru onenak

aukeratzen. Azkenean honela gelditu zen sailkapen orokorra: Txapeldunak Ixa Barberena, Itziar Etxarte eta Oihana Sanz-berro izan ziren eta Herriko Ostatuak emandako otordua irabazi zuten. Bigarren postuan, Sonia Rubio, Sergio Ibero eta Paul Intillaque gelditu ziren eta botila txanpaina eta zartagi bana jaso zuten. Hirugarrenak, berriz, Janire Telletxea, Ane Telletxea eta Naiara Otxoteko izan ziren eta hauek botila ardoa eta gasna erdi bana irabazi zuten. Burrumba elektrotxarangak ere giro aparta jarri zuen karriketan egunari akabera ona emateko.

Etxalarko gazteek eskerrak eman dizkiete laguntzaileei, epaimahaiari eta asteburuko ekitaldian parte hartu zuten guztiei.



Mus eta patata tortilla txapelketen inguruan giro ederra sortu zen. I. ELIZAGOIEN

Etxalarko bizikleta arropa aukeran

Bizikleta arropa egiteko asmoa agertu du herriko bizikleta zale talde batek. Gizon, emakume edo haurren arro-

pa eskatu daiteke azaroaren 21a arte. Tailak probatzeko aukera ere izanen da aitzinago zehaztuko den egunetan.



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA



USOA
Nekazari kooperatiba



T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



UTZITAKOA

Imanol Vicente carcrossen txapeldun

Bigarren urtez segidan, Nafarroako carcross txapelketako sailkapen nagusian lehenengo postua lortu du Imanol Vicentek (bi karreratan bigarren eta azkenekoan, hirugarren). Aurtengo denboraldia bukatuta, orain hurrengorako prestaketetan eta laguntzaileak bila hasia da Imanol. Zorionak!



Berrizaunen egon zen konpainiako soldaduak, Hita ostatuan.

Berrizaunen egon zen konpainiako kontu zaharrak berri

Hogeitaz urtez egon ziren soldaduak Berrizaunen, auzoko Hipolito Iparragirrek aipatu digunez

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Udaran hiru herritarren gasetetako bizipenak idatzi genituen lerro hauetan. Oraingo honetan, Berrizaun auzora jo dugu bertako Hipolito Iparragirren bizitzako pasarte bat kontatzeko. Iparragirrek aipatu digunez, «garai batean, Berrizaunen, *Armas de acom-*

pañamiento soldadu kanpamendua izaten zen: *Campa-*

«KONPAINIA HOGEI URTE INGURU EGON ZEN BERRIZAUNEN»

HIPOLITO IPARRAGIRRE

mento número 14. Gerra zibilaren ondotik laister hasi zen». Iparragirrek gogoan duenez, «hemeretzi urte nituenen soldadu joan nintzen, Berrizaunen bertan. Orduan he-
mezortzi hilabete egiten genituen soldaduskan. Bertan, instruzioa, guardiak eta martxak egiten genituen. Martxak Abelura, Berara,... izaten ziren: dena oinez. Nirekin batera Josetxo Etxarte eta Fermin Otamendi igantziarrak, eta Anjel Yanci lesakarra egon ziren. Kapilla bat ere bazen. Hura *ocreran* egoten zen, lehen pintura fabrika zenean. Guttigoiiti beheiti 50 lagun ginen: ofizial bat eta bi sargentu».

Konpainia estazioan

Konpainia estazioan egoten zela ere gogoan du: «trena egunean bizpahiru aldiz pasatzen zen eta guk guardiak bertan egiten genituen. Trena jendearekin eta sardina kontserbak egiteko *allageekin* (gastainez egindako flejeak) ibiltzen zen. Paso-nibela Bidasoko zubiaren ondoan egoten zen».

Konpainia hogeitaz inguru egon zen Berrizaunen eta alde guztietako gazteak etortzen ziren soldaduska egitera.

Julian lantzik piztu du Irisarriko txondorra

TTIPI-TTAPA

Julian Iantzi telebista aurkezle lesakarrak piztu zuen urriaren 30ean Irisarri Landeko txondorra. 18.000 kilo egur erabili dituzte eta abendu hasieran 5.000 kilo ikatz lortzea espero dute. Besta giroan egin zen ospakizuna, txalapartarekin, joaldunekin, Iñaki Etxepare biolontxelistaren, Gorka Zabaleta abeslariaren eta txondorraren funtzionamenduaren berri eman zuen Iker Iglesiasen azalpenekin.



Julian Iantzi txondorra pizten.



ESKOLAK UTZIA

Bidasoa garbi kontzeko auzolana

Urtero egiten duten moduan, orain ere herriko haurrak auzolanean arituak dira. Kozkorrenak Berrizaun auzora joan eta erreka iskina eta trenbidea garbitzen aritu ziren. Egia erran, ikaragarria da zenbateko zabor pila ateratzen den urtero. Ea hurrengo urtean hurrek lan guttiago duten!

Eramateko janaria
astelehenetik ortzirralera

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoen zainketa egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Gozagarria izan da udazkeneko kulturaldia

Laraburuko bordako gaztak eta Oskozeneko ahariak lortu dituzte lehenbiziko sariak Baserritarren Egunean

NEREA ALZURI

Gogoz zeuden herritarrek udazkeneko kultur egunak hartzeko eta erantzuna ederra izan da.

Euskara batzordeak auzolanean eta elkarlanean antolatutako egitaraua urriaren 29an, abiatu zen *Mendian hil, hirian hil* dokumentalaren proiektioarekin. Herritar andana bildu zen liburutegian dokumentala ikusteko.

Biharamun ilunabarrean, Andreina Jolin musika taldearen emanaldi ederra izan zen herriko etxeko gorapean. Azaroari akabaila emateko berriz, igande arratsaldean, eskolako gimnasioan egindako *Erradikalak ginen* antzezlanak ere harrera ezin hobea izan zuen. Joan den asteburuan, berriz, Maddi Ane Txoperenaren libururen eta Ombuaren itzala proiektuaren aurkezpenak, eta ipuin-kontalariaren saioa egitekoak zituzten.

Herritarren uztza Baserritarren Egunean

Osasun egoeragatik, iaz azaroaren lehenean egiterik izan

ez zen Baserritarren Eguna, ilusioz hartu zuten aurtengo herriarrek eta bisitariek eta XXIV.a emankorra izan zen. Bertako barazki, fruitu, zerriki, gozoki, talo, eskulan, oroigarri, tresna, azienda...erakusketa eta salmenta postu andana izan zen. Herriko trikitilari eta panderojole taldea ere hantxe izan zen, azoka gunea girotuz.

Urtero bezala, merkatu bilakaturiko frontoi sarreran, ostatu ere paratu zuten eskolan egiten diren jardueretan laguntzeko sos batzuk biltzeko.

Gazta eta ahari lehiaketak ere egin zituzten. Zortzi gazta aurkeztu ziren gazta lehiaketan eta Laraburuko bordakoa izan zen irabazle (150 euro); bigarren Otsarrako gazta (100 euro) eta hirugarren Seroren-bordakoa (60 euro).

Ahari lehiaketan, bertalde, Oskozeneko ahariak lehenbiziko saria eskuratu zuen (50 euro) eta bigarren saria Martineko bordakoentzat izan zen (25 euro).

Ohitura den bezala, bertako produktuez osaturiko zarea ere zozketatu zuten eta Pot-



Jende azkarki ibili da kultur egunetako ekitaldietan. L. MITXELENA, JR AMOROS, I. UGALDE

tuneko Joseba Madariagari tokatu zitzaion.

Erantzuna ikusita, antolatzailerak kontent gelditu ziren, herritarren parte-hartzea eta jendearen etorrera txalotu eta bi urteren buruan berriz ere

horrelako eguna antolatzeaz gain, elkarrekin egoteko modua izan baitzen aspaldiko partez. Horrelaxe segituko dugun itxaropenarekin, zilarrezko urteurrena hurbilago du Baserritarren Eguna.

Errigoraren saskiak ortzeguna baino lehen

Ortzegun hau, azaroaren 11, izanen da Errigorako saskiak eskatzeko hondarreko eguna. Saski beltza (55 euro), berdea (65 euro) eta zuria (75 euro) daude aukeran eta saskia Arantzán bertan hartzeko aukera izanen da, eskaera www.errigora.eusen eginda.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

Arduo

arropa-denda
 etxeko osagarriak | lentzeria

Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

«Proiektu honekin paziente aunitzen bizia jokoan egon daiteke»

JOSE IGNACIO KUTZ PEIRONCELY BIDASOA OSPITALEKO TRAUMATOLOGOA

Bidasoa Ospitaleko ebakuntza gelak berriro bitartean, Osakidetzak Donostiara bideratu nahi ditu ebakuntza guztiak. Proiektuak, ordea, ezinegona sortu du osasun profesionalen eta langileen artean. Kutzen hitzetan, proiektuak «ageriko gabeziak» ditu

G. PIKABEA

Hautsak harrotu ditu Hondarribiko Bidasoa Ospitaleko ebakuntza gelak berritzeko proiektuak. Lan horiek iraunen duten 18 hilabeteko epean programatutako ebakuntzak Donostiako Onkologikora eta premiazko ebakuntzak Donostiako Ospitalera bideratu nahi ditu Osakidetzak. Horrek, ordea, «amorrua» eta «beldurra» sortu dute langileen artean, eta «paziente aunitzen bizitza jokoan egon daitekeela» ohartarazi du Bortzirietan ezaguna den Jose Ignacio Kutz Bidasoa Ospitaleko traumatologoa. Proiektuaren «hutsuneak eta gabeziak» izan ditu aipagai eta «pazientearen segurtasunaren gainetik lehentasuna ekonomiarik eman izana salatu du. Gaur egun, Bortzirietako, Irungo eta Hondarribiko 90.000 herritar artatzen ditu Bidasoa Ospitaleak eta Kutzek argi utzi du «gure aldarrikapenak ez direla lan baldintzak hobetzeko. Eskatzen ari garena herritarrek alde batera ez uztea da». **Zein da ebakuntza gelen egoera?** Ebakuntza gelak zaharrak dira eta gehienak hagitz txikiak, ez dituzte guttieneko baldintza batzuk betetzen. Gainera, ebakuntzak egiteko itxaron-zerrenda handitzen doa ez daukagutako nahikoa ebakuntza gelarik. Gehiago izanez gero, gehiago operatuko genuke eta pazienteek guttiago esperatu beharko lukete. Beraz, ebakuntza bloke

berri eta handiago bat egitea ezinbertzekoa da egungo egoera hobetzeko.

Zer iruditzen zaizue proiektua?

Gaur egungo baldintzetan ez dugu obrak hasterik nahi. Planifikaziorik ez da izan eta hutsune handiak ikusten ditugu pazientearen segurtasuna bermatzerakoan. Proiektuari buruz dakiguna ebakuntza gela berrien planoa da. Baina ebakuntza gela berriak izan arte pasatuko dugun prozesua ez da planifikatu. Zuzendaritzak obren kontratua hitzartu ondotik erran zigun 18 hilabeteko lekualdaketa egingen genuela Onkologikora eta erabakia hartu eta gero eskatu zigun zein arazo izan daitezkeen aurreikusteko. Hainbertze arazorekin, proiektua bideraezina dela uste dugu. **Lekualdaketa ezinegona sortu du langileen eta herritarren artean...** Alde batetik, ez da larrialdietarako ebakuntza gelarik mantenduko Bidasoan eta paziente batzuen bizitza jokoan egon daiteke: segur aski jende gehiago hilko da. Bertzetik, zerbitzu aunitzetan ez dago pertsonal nahikoa bi lekuetako jarduerak egiteko, ezin gara inola ere antolatu lekuaren bikoizketa ho-

rri erantzuteko. Zuzendaritzak ere ez digu soluziorik ematen, ez duelako aurreikusi. Gainera, Onkologikoko ebakuntza gelek ez dute suspertze gela on bat. Horretarako han ere obrak egitea pentsatu dute, baina gastu gehigarri hori ez diote Bidasoa Ospitaleko obren aurrekontuari gehitu. Egitea pentsatu duten suspertze gela ttikiegia da eta guttieneko baldintzak ez ditu betetzen. Horrez gain, Onkologikoan ez genduzte esterilizazio gelarik izanen. Batzuetan ebakuntzetan suertatzen diren ustekabekoei aurre egiteko ezinbertzekoa da esterilizazio gela. Hori gabe, ebakuntza batzuk gaizki ateratu daitezke. Beraz, arlo aunitzetatik pazientearen segurtasuna arriskuan geldituko litzateke.

Langileen artean ia erabatekoa da egitasmo honen kontrako iritzia. Zein giro sumatzen duzu?

Alde batetik, amorrua sumatzen da, zuzendaritzak ez duelako osasun langileen iritzia kontuan izan. Gure proposamenei ez adituarena egin diete, jarrera hertsia dute, malgutasunik gabea. Bertzetik, beldurra dugu, paziente aunitzen bizitza jokoan dagoelako. Eta azkenik ez dugu

ulertzen nola ez dituzten ikusten proiektuaren gabeziak hain agerikoak izanda. Onkologikoa krisi instituzionalean dago Osakidetzarekin elkartu denetik eta susmoa dugu Bidasoa Ospitalea ez ote diren arazo hori konpontzeko erabiltzen ari.

Osakidetzako ospitale publiko batean jarduera kirurgikoa osotasunean 18 hilabetez kenduko duten lehenbiziko aldia da...

Orain arte eraberritzeak bi modutara egin dituzte. Ospitaleari atxikitako egoitza berri bat izanen litzateke gure ustez aukerarik onena. Eraikitzen ari den bitartean ebakuntza gela zaharrak erabiliko genituzkeen, jarduera ez litzateke murriztuko eta bertan mantenduko litzateke. Horretaz gainera, bloke handiago bat eraiki ahaliko litzateke eta zaharren lekua bertze arloak handitzeko erabili: kontsultak, ospitalizazioa, errehabilitazio gelak... Gure ustez, ospitalea ttiki gelditzen ari da eta eraberritze hau hazteko aukera paregabea da. Badira berrikuntza faseka egin dutenak ere eta ezagunak dira horren abantailak eta oztopoak. Planteatzen dutena, ordea, ez da inoiz egin eta pazienteekin esperimentatzeko modu bat da, aurreikusi ez dituzten arazo aunitz izanen baitira.

Lekualdatuta pazienteek Bidasoa Ospitalean duten zerbitzua ez dute bermatua izanen?

Zerbitzu gehienak bermatuta izanen dira, baina argi dago gutti batzuek ez dituztela behar dituzten baliabideak aurkituko. Bizitzak galtzea prezio garestiegia dela uste dugu, batez ere alternatiba hobeak daudelako. **Orain itxaron-zerrendak luzeak baldin badira, zer gertatuko da obrak hasten direnean?**

18 hilabete horietan guttiago operatuko genduzte, ebakuntza gela eta medio gutxiago izanen ditugulako. Adibidez, esterilizazio gela bat ez bertan izateak ebakuntza batzuek egiteko aunitz mugatuko gaitu. Gainera, ebakuntza bloke handiago bat egingen balitz, gehiago operatzeko aukera izanen genduzte,

«PLANTEATUTAKOA PAZIENTEENKIN ESPERIMENTATZEKO MODU BAT DA»

«ONGI PLANIFIKATU ETA LANAK BEHIN BAKARRIK EGITEKO MOMENTUA DA»

itxaron-zerrendak murriztuz. Baina hau ez da epe luzera begira egindako plan bat.

Bidasoa Ospitaletik Donostiako ospitaleetara 20 minutu daude. 20 minutuak luzeak izan daitezke...

Denbora kritikoa ez da 20 minutuko tarte hori bakarrik. Paziente bat Bidasoara badator, larrialdietan prozesu bat pasatu beharko du. Operatzeko lekuz aldatzea erabakitzen bada, ambulanzia bat eskatu beharko da eta badakigu batzuetan esperatu behar izaten dela. Lekuz aldatu ondotik, Donostian artatuko dute, bertze profesionalek tratatuko dute eta kasua ongi begiratzeko denbora beharko dute. Tarteko pauso aunitz daude, denbora eta koordinazioa galaraz dezaketenak.

Alde bakarreko erabakia izan da?

Zuzendaritzak ez du osasun langileen iritzia deusetarako eskatu. Proiektua eginen zela erabaki zutenean, hasieratik erran genuen ez genuela hori egitea posible zenik uste, baina ez dute guk errana kontuan hartu. Bueltarik ez duela diote eta orain eskatu digute zein arazo izan daitezkeen errateko. Arazoen aurreikuspen on bat egin izan balute, ez lukete sekula proiektu hau aitzinera aterako. Baina guztia alderantziz egin dute: lehenbiziko baimenak itxi eta gero zein arazo izan daitezkeen ikusi.

Proiektua birplanteatzeko eskatu duzue. Zer espero duzue?

Eskatu dugu, baina egoitza berria egitea garestiegia dela erran digute. Hala ere, ez digute erranzenbat garestiagoa den, horren aurrekontua eskatu duten ere ez dakigu. Balantzan alde ekonomikoa eta pazientearen segurtasuna paratu ondotik, lehentasuna ekonomiarik eman diotela dirudi.

Osakidetza proiektua ez dela behin betikoa erran du...

Guri bueltarik ez duela erran digute. Komunikabideetan aurkakoa erran badute, iritziz publikoaren beldur direlako da. Horregatik da hain garrantzitsua biztanleria mobilizatzea. Jendeak erakutsi behar du eu-



Jose Ignacio Kutz Peironcely Bidasoa Ospitaleko traumatologoa da.

ren osasunarekin ez dutela jostetan aritzerik nahi.

Zer gertatuko da langileekin?

Ez dakigu. Ez digute informazio hori ematen, segur aski eurek ere ez dakitelako nola egin. Lekuaren bikoizketak langile gehiago behar izatea eraginen du eta zerbitzu gehienek ez dute gaitasunik. Pertsonalaren banaketa aurreikusi ez duten gauzetako bat da.

Obrak bukatutakoan Oarsoaldeko herritarrak ere artatuko ditu Bidasoa Ospitaleak?

Duela gutti iragarri zuten agudo Errenteria, Oiartzun eta Lezoko biztanleak artatuko ditugula. 55.000 lagun bizi dira eta gaur egun 90.000 pertsonako biztanleria hartzen dugu gure gain; gure jarduera % 60

igoko da. Orain instalazioak tiki gelditzen ari badira, arazoa are handiagoa izanen da ospitalea ez bada proportzionalki hazten. Ebakuntza gela berriak tiki geldituko dira eta bertze eraberritze bat beharko da. Guztia ongi planifikatu etalanan behin bakarrik egiteko momentua da. Erraza dirudi ulertzen, baina agintariak ez daude ados. **Zein mezu luzatuko zenieke instituzioei eta herritarrei?**

Instituzioei zentzudunak izateko eskatuko nieke, ez dirua alferrik gastatzeko eta planifikazioa epe luzera egiteko. Osasun langileek errandakoa entzuteko ere eskatuko nieke, inork baino hobeki ezagutzen baititugu gure ospitaleko eguneroko arazoak. Herritarrei

parte-hartze aktiboa izateko eskatuko nieke, euren osasuna baitago jokoan. Aldarrikapenak eragina izateko, hagitz garrantzitsua da guztion parte-hartzea. **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Gure aldarrikapenak ez dira lan baldintzak hobetzeko. Ez dugu diru gehiago eskatzen, ezta langileen kontratuak egonkortzeko ere. Ebakuntza gela berrien behararekin ados gaudela, baina ongi planifikatutako proiektu batekin. Eskatzen ari garena Bidasoa eskualdeko eta Bortzirietako biztanleak alde batera ez uztea da. Osasunaren kalitateak guttiengoa bat izan dezala eta epe luzerako proiektu egoki bat sustatu dadila. Gure aldarrikapenak bertako biztanleenak dira.

Igogailua dotorea paratu dute udal pilotalekuan

Erki enpresak egin ditu 61.747 euroko aurrekontuarekin eta udalak % 35a ordaindu beharko du

MAIDER PETRIRENA

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak aprobetxatuz udalak frontoian igogailua paratu du. Erki enpresak egin ditu lanak eta aurrekontua 61.747,20 eurokoa izan da. Bi dirulaguntza mota eskatu zituen udalak lan honetarako, baina Covid-19ak sortutako beharrei erantzuteko laguntzak soilik hartzeko aukera izan zuen, nahiz eta bertze laguntzarako ere baldintzak bete. Honela, lanen % 35 ordaindu beharko du udalak.



Igogailua frontoian.

Estalkietan eguzki-panelak

Nafarroako Aldizkari Ofizialetan irailaren 14ko 216. zenbakian herriko eraikuntzaren ordenantza orokorraren aldaketa behin betiko onetsi zuen.

Aldaketa nagusia estalkietan eguzki-energia aprobetxatzeko teilak edo panelak instalatzeko baimenari dagokio. Orain arte ezin zitekeen horrelakorik paratu eta orain bai.

Ulibeltzak taldearen maillot berria

Hemendik aitzinera lehendik erabiltzen zen Ulibeltzak taldearen maillotaz gain, bertze berri bat errepide eta mendietan ikusteko aukera izanen da.

Urriaren 17an Ulibeltzak elkartean arropa probatu eta eskaerak egiteko aukera izan zen. Eskerrik asko lanean ibili diren guztiei.



UTZITAKOA

Herrera anaiak garaile mendi duatloian

Euskal Herriko mendi duatloi zirkuiturako baliagarria zen proba jokatu zuten urriaren 23an Amasan (Gipuzkoa). Erreleboka, Sunbillako Eneko eta Koldo Herrera Urroz anaiak lehenbizikoak izan ziren eta Anizko Unai Iantzi eta Gartzaingo Jon Maritorea lehengusuak hirugarren.



UTZITAKOA

Bidea hondatua eta bertzea konpondua

Ezkerreko argazkian ikus daitekeen bezala Apezenekoborda eta Itzaldekoborda arteko pista lehertu da, baina badirudi momentuz ez duela gehiagora egin. Eskuineko argazkian, berriz, bide berdean, Espelosingo iturri ondoan, aspalditik hondatua zegoen ur bidea konpondu dute.



T. 948 450 540
M. 660 798 249
M. 636 488 300
SUNBILLA

Plater konbinatuak | Menua | Hamburgesak | Sandwichak |
Pintxoak | Kaxulak | Bokatak



info@campingariztigain.com | www.campingariztigain.com



Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Sunbilla · Tel: 948 450 862

Firin Farandula taldearen emanaldi ederra Narbarten

Herriko hiru neska sartu berri dira taldean eta Halloween bestaren aitzakian antzezlan dotorea eskaini zuten urriaren 29an herriko gelan



Firin Farandula taldearen emanaldia Narbarte herriko gelan. MAITE BERTIZ

MAITE BERTIZ

Narbarte herriko gelan Firin Farandula taldearen antzerkia izan zuten urriaren 29an. Herriko hiru neska taldean sartu berri dira, eta Halloween bestaren aitzakian lehen antzerki emanaldia eskaini zuten urri hondarreko ortziralean. Ikusmin handia piztu zuen antzerkiak eta herritar andana bertaratu zen. Hurrengorako gozoz gelditu ziren herritarrek.

Ardiarana gazta saritua

Espainiar estatuko gazta onen hamaikagarren lehiaketa egin zuten urri hondarrean Madrilgo IFEMA azokan. Estatu osotik 800 gazta baino gehiago aurkeztu zituzten, hamabortz modalitatetan lehiatu zirenak. Legasako Ardiarana gaztandegiko Alberto Migeltorenak eta Ainara Ansak aurkeztutako Ixarri gaztak bigarren saria eskuratu zuen ardi gazta zaharraren modalitatean. 2006an sortu zuten enpresa senar-emazte hauek, eta hainbat motatako gazta egiten dute.



Ansa eta Migeltorena diplomarekin.

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

ttipi-ttapa %10 DESKONTUA eskeletan eta oroigarrietan Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus	 %10 DESKONTUA produktuetan Intzarkardi, z/g DONEZTEBE T. 948 45 03 64
kukuka %10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan Zazpigurutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52	Maite moda %5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan %10 DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27
Malerreka KUTXAK %5 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71	LOREA %5 DESKONTUA kontsultetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com
Amaya Picabea %5 DESKONTUA kosmetikan 50€tik goiti %10 DESKONTUA 100€tik goitiko erosketetan Promozioetan ezik Ameztia DONEZTEBE T. 948 45 01 63	ARRATE ETETIKA ZENTROA %10 DESKONTUA 2. produktua erostean Eliza, 18 behe DONEZTEBE T. 948 45 02 86
Miguelena %5 DESKONTUA 60€tik goitiko elektrogailu txikiak Ameztia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25	KARLOS ALZUGARAY %5 DESKONTUA borts saiko bonoan Elizagibela, 4 behe DONEZTEBE T. 607 85 32 08
Mari Cruz %10 DESKONTUA 30€tik goitiko erosketetan Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12	KIMETZ %5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta elikagai konplementuetan T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com
Taupada Zentroa %5 DESKONTUA estetika naturala, mesoterapia birtuala eta diamantezko pilinga Santa Luzia plaza, 2 DONEZTEBE T. 667 30 88 26	MENDAU PENTSUAK %5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuan Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45
IRACHE lanatorioak %100eko DESKONTUA Beldi-gelaren erabilera *Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren gradu arteko senitatekoek txartela fisikoki aurkeztu beharko dute. Ameztia, 13 DONEZTEBE T. 948 63 74 04 T. 948 19 70 70	CASA ESTEZ %10 DESKONTUA oinetakoetan Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89

Feria egunean aziendak, artisauak eta herri kirolak

Azaroaren 19rako egitarau zabala prestatu dute eta Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapela jokoan izanen da

MARGA ERDOZAIN

San Martin ondorengo ortzi-ralean, azaroaren 19an, aurten bai, baina era berezian, karrikako saltzailerik gabe, udazkeneko feria ospatuko da. Hitzordua goizean eta Merkaturako Plazan izanen da: abeltzainen azienda egonen da ikusgai, Malerreka eta inguruko artisauak egonen dira. Aurten ez dira ohiko postuak egonen karriketan barna.

Herri kirol jaialdia arratsaldean

Feria egunean ohitura den herri kirol saioak ere ez du hutsik egingen. Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketaren finala jokatu dute 18:00etan Ezkurra pilotalekuan. Patxi Mindegia zubitarra izanen da eskualdeko ordezkari bakarra eta berekin batera aizkolari hauek parte hartuko dute: Jokin Urretabizkaia (Gipuzkoa); Julen Gabirondo (Gipuzkoa), Xuban Kañamares (Nafarroa), Andoni Iruretagoiena (Gipuzkoa), eta Suhari Rodriguez (Gipuzkoa). Honako lan hau egin



Honelako irudiak izanen dira aurten.

behar dute: hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako enborrak. Jaialdian Nafarroako lehen-mailako aizkora jaitsieraren kanporaketa ere jokatu beharko dute Oier Kañamares eta Ibai Resanok. Bortz enbor moztu beharko dituzte: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat. Jaialdia borobiltzeko Nafarroako gizonezkoen arpana txapelketa ere jokatu dute. Etzanda jarritako kanaerdiko enborrari 14 korte eman beharko dizkiote eta zutik jarritakoari lau. Josetxo Barberena eta Iñaki Barberena; Adrian Berruezo eta Alberto Oteiza eta Lur Gil eta Iker Goldarazena ariko dira.



UTZITAKOA

Ibarrola Espainiako txapelketan hirugarren

Baxi Basajaun taldeko Mikel Ibarrolak Espainiako Disc Golf txapelketan parte hartu du Chipionako Parque de los Lagos (Cadiz, Espainia). Ez nolanahi gainera, hirugarren izan baita Pro Master 50+ beterranoen mailan. Honela, podiumera igo da Ibarrola, «ustekabeko handia, arras kontent nago».

'Indarkeria kontsumitzen al dugu?' erakusketa azaroren 15etik 26ra

MARGA ERDOZAIN

Azaroaren 15etik 26ra *Indarkeriarik kontsumitzen al dugu?* izeneko erakusketa liburategian ikusgai izanen da. Myriam Cameros artista nafarrak egingako hamabi panelen bidez SETEM izeneko Gobernu Kanpoko Elkarrekin bideratutako erakusketa da. Gogoeta-abiaturiko testuekin, arazo estruktural eta sistematikoa izan arren, normalean ikus-etez eta normalizaturik dauden kontsumoa eta indarkeria matxistaren arteko harremanak ezagutuko ditugu.

Sentsibilizazio ekintza SETEM Erakundeak Nafarroako Liburutegien Sareko hainbat liburutegitan egingen ari da. Erakusketaz gain, azaroaren 18an, datorren ortzegunean, 18:00etan, *Emakumeak fabrikatzen* bideo-foruma egingen dute eta azaroaren 26an (ortziralea) haurrentzako Kamishabai eta tailerra. Bertan, *Laika beldar ausarta* ipuina landuko dute eta 17:00etan da hitzordua liburutegian.

Ekimen hauek azaroaren 25eko ospakizunen barnean kokatu behar dira.

TTPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

ORBELA
SENDERSMOA ATERPENA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

goldea
tailerra s.l.l.



Tel.: 948 450 060
goldeataillerra@gmail.com
Pol. Industrial Aparan, 3 · Doneztebe



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

WhatsApp bidezko difusio kanal berria du udalak

Herriko etxeko eduko praktiko eta interesgarriak ezagutzera emateko tresna izanen da

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko informazio garrantzitsuena zuzenean telefono mugikorrean hartzeko inizatiba martxan paratu du udalak, herritarrekin zuzenean komunikazioa indartzeko asmoa duen WhatsApp difusio kanala. Udal ordezkarien erranetan, eduki praktiko eta interesgarriak ezagutzera emateko tresna izanen da, hala nola, abisuak, erabaki garrantzitsuak edota ekimen bereziak. Mugikortasun eredia berri-
tzeko neurriak adibidetzat jo ditu udalak. Urri hasieratik

urte bukaera arte hainbat mol-
daketa egiten ari dira trafikoan
zein aparkalekuetan, eta uda-
lak azaldu du komunikazio
tresna honek berrikuntza ho-
riei buruz informatzeko ere
balioko duela.

Zerbitzuan alta

Herritarrek difusio kanalean
alta emateko *Alta* dioen Whats-
App mezu bat bidali beharko
dute 641 58 99 08 telefono
zenbakira. Udalak adierazi du
pribazitatea errespetatzeko
asmoz herritarrek ez dutela
beren burua identifikatu be-

harko, soilik *Alta* dioen mezua
bidali.

Ordutik aitzinera alta ema-
ten duten herritarrek udalak
bidalitako informazio interes-
garria hartuko dute eta udalak
neurritz erabiliko duela nabar-
mendu du, «difusio kanala
soilik puntualki erabiliko dugu,
astean behin ziurrenik, web-
gunean eta sareetan argitara-
tzen dugun edukien aukera-
keta praktiko eta interesgarria
zabaltzeko».

«Ez da WhatsApp taldea»

Udalak jakinarazi du ez dela
WhatsApp talde bat izanen,
herritarrek soilik udalaren
mezuak hartzeko kanala izanen
da. Herritarrek beren kezka
azaldu edota kontsultak egi-
teko orain arteko parte har-
tzeko bideak erabili ahalko
dituzte: Udalaren sare sozia-
lak, udaletxeko telefonora
deitu (948 45 00 17) edota
epostaz idatzi (santesteban@doneztebe.eus).

Azaroko kultur agenda anitza eta zabala izanen da

TTIPI-TTAPA

Era anitzetako jardueraz go-
zatzeko aukera izanen da aza-
roan. Hilabeteko asteartetan
ipuin txokoaren ateak zabalik,
11:00etatik 12:00etara. **Aza-
roaren 14an** (igandean,
18:30ean) zineman *Txapeldun
bihotza* bakarrikzeta eskaini-
ko du Ainhoa Ruiz aktore na-
farrak. Umorezko bakarrikze-
ta honek maitasun erroman-
tikoaren mitoak aztertzen ditu,
hala nola, laranja erdiaren
mitoa, minaren mitoa, esku-
sibotasuna eta abar luze bat.

Azaroaren 15ean poesia
tailerraren bigarren hitzordua
izanen dute. **Azaroaren 22an**
El Largo Sueño de tu Nombre
liburuaren tertulia egingen dute
18:30ean liburutegian. Berta-
ko irakurle taldearen ekimena
izanen da.



Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

- Emakume arropak
- Osagarriak
- Bitxi-denda



@amayacentro

denda berria!

Amezti, 5 · DONEZTEBE
T. 948 450 163



Piz&Lohi Pest jaialdia antolatu dute astebururako

Ostiralean Olaia Velutineren emanaldia eta taloak izanen dira eta larunbatean bazkaria eta hainbat musika talde

F. ETXEKOLONEA

Piz&Lohi Pest jaialdiaren bigarren edizioa antolatu dute aurten, azaroaren 12 eta 13rako. Ostiralean, 18:00etan estalpean Olaia Velutineren emanaldia izanen dute eta 20:00etan taloak dastatzeko aukera izanen dute.

Larunbatean, berriz, bazkaria izanen dute eta bazkalondan, hainbat musika talde eta musikari aditzeko aukera izanen dute: Zorromono DJ's, Pleura, Zakill, Sodarde, Matxarda, 2Sont, Ozpinduk, Rig3l eta DJ Tape. 2019an antolatu zuten lehen edizioa.



UTZITAKOA

Ultzama-Atez garaile desafioan

Herriarren eta Ultzama-Atezkotako taldeen arteko herri kirol desafioan bisitariak suertatu ziren garaile urriaren 23an, lehia estuaren ondotik. Gero, 75 bat lagun bildu ziren plazako zikiro-jatean giro ederrean (argazkian) eta Frantxiskoren eta Hauspolariek taldearen doinuekin borobildu zuten eguna.

Patxi Mindegia Euskal Herriko 3. mailako finalean

Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketako finala jokatu dute Doneztebeko ferietan eta Patxi Mindegia bertan izanen da. Mikel Indakoetxea, berriz, Nafarroako bigarren mailako finalean aritzeko zen igandean Iganztzin.

Herriko etxeko ostatua kudeatzeko enkantea zabalik

Zubietako Herriko Etxeko ostatua kudeatzeko enkantean parte hartzeko aukera zabalik da azaroaren 22ra arte. Udaletxera deitu behar da astegunnez 08:00etatik 11:00etara. Hasierako prezioa hilean 200 eurokoa da eta bertan bizitzeko aukera ere bada.



Giro ederrean biltzen dira astelehenero jubilotekan. UTZITAKOA

Jubiloteka zerbitzua martxan paratu dute astelehenero udaletxeko egoitzan

TTIPI-TTAPA

Donamarian martxan paratu dute jubiloteka astelehenero 16:00etatik 18:30era udaletxeko egoitzan. Apuntatukoek hagitx gustura egin dute hasiera. Egunetikegunera norbait berria apuntatzen da. Inguruko herrietakoendako ere irekia da. 10 euro ordaindu behar da

(gainerakoa udalak eta mankomunitateak ordaintzen dute). Gimnasia pixka bat, kafetxoa hartzeko tarte, eta ordu libre izaten dute, jokoren batean ari, margotu, idatzi, solas egin, kantatu.... Denetarik egiteko prest. Ramoni Ordokik gidatzen du, Ezkurran eta Sunbillan ari den monitore berak.

Soinuliruli tailerra egiten ari dira azaroko asteartetan

TTIPI-TTAPA

Donamariako Udalaren eta Hazi musikoterapia tailerrak antolatuta, Soinuliruli tailerra egiten ari dira Donamariako erabilera anitzeko gelan azaroko asteartetan (azaroak 9, 16, 23 eta 30), 17:30etik 18:30era. Hiru eta sei urteko haurrei zuzendutako tailerra da eta musikak eta mugimenduak, jostetak eta koloreztatzea landuko dituzte.

Leku berean, *Letrekin dantzatzan* ikuskizuna izan zuten azaroaren 6an. Malerrekako Mankomunitateak eta Donamariako Udalak antolatuta.

Mendiburu

aziendak · tratantea

608 67 62 21
948 45 00 84
DONEZTEBE



Gau beltza ospatu dute herriko txikiak. UTZITAKOA

Aurtizko bestak modu xumeagoan ospatuko dituzte

Postre lehiaketa, mus txapelketa, haur jokoak, meza eta Imuntzo eta Belokiren kontzertua izanen dira

TTIPI-TTAPA

Aurtengoan, halaber, Aurtizko bestak era xumean ospatuko dituzte. Gazteek zenbait ekitaldi antolatu dituzte, adin guztietan pentsatuta; Postre lehiaketa, mus txapelketa, haur jokoak, San Martin egunean meza... Imuntzo eta Beloki bikoteak azaroaren 13an, Koianea txikian emanen duen kontzertuarekin dantza egin, abestu eta giro onean egoteko aukera izanen da.

Gau beltza

Urri bukaeran, bertze herrietan bezala, gure herrian ere

ospatu zuten Gau beltza txikiak. Ituren eta Aurtizko karriketan barrena mozorroturik etxez etxe ibili ziren *Truko o trato* oihukatuz, goxokien eskean. Gisa guztietako pertsonaia beldurgarriak irudikatu zituzten eta gau ederra igaro zuten.

Santo guztien egunaren ondotik hilerria dotore

Gure herriko hilerria dotore dotore geratu zaigu Santu Guztien Egunaren ondotik. Gure artetik joan diren guztiak gogoratuz kanposatua lorez beterik dago, txukun-txukun.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Urrezko Ezteiak bikoiztuak

Urri bukaeran herriko bi bikotek 50 urte bete dituzte ezkontuta. Meliton eta Klotilde urriaren 30ean ezkondu ziren, Jopeitzenean beraien kabia sortuz. Bertzetik, Simon eta Ixabel urriaren 31n ezkondu ziren. Familia giroan ospakizun handiekin eta bazkari dotore batekin borobildu zituzten Urrezko Ezteiak.

Errigorako saskiak eskatzeko azken egunak

Errigorako saskiak eskatzeko azken egunak dira. Saski hauekin euskalgintzak laguntza ekonomiko handia eskuratuko du egitasmoak aitzinera eramateko. Gure herrian saskiak eskatzeko Iker edo Maxirekin harremanetan jarri behar da edo errigora.eus webgunean.

Maika Ariztegi Sherpa.ai txapelketan bikain

Mungian ospatu zen Euskal Herriko emakumen aizkora txapelketan laugarren izan zen Maika Ariztegi, podiumetik 25 segundora. Sherpa.ai txapelketan aldiz, azaroaren 21ean Bilbon jokatu den finalerako sailkatzea lortu du herriko aizkolari handiak.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 450 272
T. 948 450 787

BEZEROARENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA ITXIA DAGOENEAN BETE DEPOSITUA MAKINA AUTOMATIKOAN TXARTELAREKIN EDO ESKUDIRUTAN

GASOLIOA ETXERA
 eramaten dugu

Ctra. N-121-A · Km 48,9 · DONEZTEBE

SUPERMERKATUKO PREZIOAK

Mendizale eta ibiltarientzat ikastaro ederra

Zarbo Ibarrolaren eskutik egiten ari dira Donezteben, azaroan Leitzan eginen dute eta nonahi antola daiteke

P. IRASTORTZA

Urriaren 26 eta 27an hasi ziren Donezteben mendizaleentzat ikastaroak eskaintzen. *Garmin Explore* aplikazioa mugikorrean sartuaz, mendi-bideak behar bezala eta ustekabekorik gabe kudeatzeko balio du, baita istripuaren ondorioz edo larrialdi zerbitzuei arazorik gabe deitzeko ere. Sei-zortzi ikasleko taldetan, Zarbo Ibarrola aditua da gidaria. Ikasleek Doneztebeko Merkatari karrikako Zarboren dendatik pasa beharko dute ikastaroa hasi baino lehenago, aplikazio berria mugikorrean sartzeko.

Gaurko aurrerakuntzen beharra ikusten denez, aisa osatu dira kurtsoen jende kopuruak, Doneztebekoez aparte, azarorako prest dago bertze ikastaro bat, Leitzan. Ikastaroen arrakasta ikusirik, lerro

hauen bidez jakinarazi nahi zaie bazkideei, gutxienez sei-ko talde bat elkartuz gero, bertze edozein herritan emanen litzakeela ikastaro hau.

Santiago bidea

2019ko maiatzaren 15an ailegatu zen Obradoiro plazara Arkupeaken izenean azkeneko ibilbidea egin zuen zortziko taldea, Donibane Garazitik, 29 egunez *bide frantsesa* osatuz. Oraingoan, Sevilla aldean hasiera emanez ia mila km luzeko *Zilarraren bidea* egin nahi dute. Antolaketa partehartzaileek elkarlanean adostu behar dute, dena den, behar dutenerako, elkartearen Doneztebeko atea irekiak izanen dituzte. Prestaketek bere denbora behar dutenez, taldea osatzeko izena emateko azken eguna 2022ko urtarrilaren 28a izanen da.



P. IRASTORTZA

Mendizaleak Pagoeta natur parkean

Lehenengo aldiz zapaldu ditu Gipuzkoako Aiako lurak mendi taldeak. 27 mendizale bildu ziren urriaren 19an. Bide eta baso ederrez inguratutik, Pagoeta kaskora ailegatu ziren (733 m.). Ederki gozatu zuten Orio-Zarauzko kostaldeko eta Gipuzkoa barreneko mendi eta bailaretako ikuspegiekin.



P. IRASTORTZA

Hamaika eguneko egonaldi bikaina Benidormen

Benidormen hamaika eguneko egonaldi arrakastatsua egin dute ehun bat bazkidek, urriaren 1ean hasita. Eguraldi bikaina izan zuten eta hondartza, mendi-irteerak, inguruko herrietara txangoak, paseoak, erosketak egin zituzten, aspertzeko astirik gabe. Ederki disfrutatu eta kolore pixka bat hartu ondotik, itzulera hilaren 11n egin zuten.

2021

ERAI KUN TZA

gehigarria



Miguelena

Egurrraren erabilera gero eta ugariagoa da, lurra eta paretak estaltzeko batez ere. Komunaren, laboaren eta bainuontziaren zuritasunak argia ematen dio eta altzairuzko txorrotekin, dutexarekin eta heldulekuekin emaitza dotorea lortuko dugu.



Usainen garrantzia

Usainak berebiziko garrantzia du bainugelaren batez ere atsedean hartu eta erlaxatzea bilatzen dugunean. Lurrin zitrikoak, izpiliku usainak edo arrosaren aromak freskotasuna ematen diote gelari eta lasaitzen lagunduko digute.



Kontsumo kontrolatua

Ur aunitz kontsumitu ohi dugu komunean, bazuetan sobera. Ura aurrezteko hainbat modu ditugu gaur egun: txorrotan aireadoreak paratuta, termostatoekin uraren tenperatura kontrolatuta edo zisterna husteko sistema berrieekin, adibidez.

erran.
eus

INDARRI

Hotz komertziala eta industrial
Aire girotua

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharr@gmail.com

EZPELURA ITURGINTZA



Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emaila
Biomasa • Aerotermia



T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

Gasa
Ura
Kalefakzioa

froling

Alemanian gehien
saltzen den egurrezko
galdara



diele
markako
pelletezko estufak

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Osiña karrika 14 1.A
31790 Arantzua
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45
BERA

ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK | MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516 • 948 610 678



BAZTAN Ferretería

PINTURA · AROZTEGIKO GAUZAK
KRISTALAK · TRESNERIA · OPARIAK ...

T. 948 580 423

Santiago, 79 · Industrialdea
31700 ELIZONDO



- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK



- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
LEGIA, 23 - BERA

ELEKTRIZITATEA

Argia aurrezteko bortz pauso

Eraginkortasun energetikoa garrantzitsua da gaur egun, ingurumenerako eta baita gure sakelarako ere. Hainbat modu badira argindarra alferrik ez galtzeko



Agindarraren prezioak etengabe goiti egiten duen honetan, gero eta jende gehiagok bilatzen ditu gastuan aurrezteko metodoak. Hainbat aholku ekartzen dizkizuegu hemen argindarraren fakturan aurreztea errazago izan dadin:

1 Tarifak konparatzea

Aunitzetan konpainia guztiak berdinak direla pentsatzen dugu, baina hori ez da inola ere horrela. Tarifa batetik bertzera alde handia izan daiteke eta gomendagarria da konpainia bakoitzak eskaintzen duena eta kobratzen duena konparatzea. Horretarako, hainbat doako konparadore daude eskuragarri Interneten.


2 Kontratututako potentzia behar dugunera egokitzea

Kontratututako potentziak garrantzi handia dauka fakturaren atal fin-koan, hau da, kontsumoa edozein dela ere beti ordaindu behar dena. Honen kostua fakturaren %20a izatera irits daiteke. Horregatik, kontratatutako potentzia gure beharretara egokitzeak eragina du fakturaren azken prezioan. Lege berriarekin, bi potentzia kontratatu daitezke, bat gain denboraldirako (30€/kW-ko) eta bertzea denboraldi apalerako (1,20€/kW-ko). Gomendagarria da potentzia handiagoa kontratatzea denboraldi baxuan eta txikiagoa altuan.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean



3 Gure kontsumo orduak aldatzea garestienetik merkeenara
Potentzia erregulatzea alferrik da ez baditugu gure kontsumitzeko ohiturak aldatzen. Beti ez da erraza orduko-prezioa baxuen dagoenean egitea etxeko kontsumo gehiena, baina saiatuz gero, ahaleginaren emaitzak fakturan ikusten ahalko dituzu. Ordu garestienak aste tartez dira eta merkeenak, berriz, gauzez 00:00etatik 08:00etara, asteburuetan eta jaiegunetan.

4 Etxetresnek duten kontsumoari kasu egin
Etxetresnak dira argi gehien behar duten aparatuak eta hauen erabilera egokiak izugarri lagundu dezake hilabeteko fakturan aurrezten. Hainbat truko daude horretarako: garbigailuko uraren tenperatura jaustea, gailuak itzaltzea *stand by* moduan utzi beharrean (telebista, ordenagailua...), berogailuaren eta aire egokituaren erabilera murriztea... Honez gain, etxetresna efizienteak gero eta hedatuagoak daude, eta fakturan aurrezteko aukera ona dira.

5 Etxean LED argiak jartzea komeni zaigu
LED bonbillen erabilera arras gomendagarria da, bonbilla normalekin alderatuta %80ko aurrezpena ekartzen baitute. Garestiagoak izan daitezke erostrerakoan, baina 12 aldiz gehiago irauten dute eta guttiago kontsumitzen dute. Gainera, bonbilla hauek ez dute merkuriorik ezta gas kaltegarriarik ere. Beraz, ez dira arriskutsuak ingurumenarendako. Bero-disipadoreak dauzkate, gainberoketak ekiditeko, eta kolpeak eta dardarak hobe jasaten dituzte, beraz iraunkorrak dira.

Begi bistakoa bada ere, argi gutiago kontsumitzeko aholkurik garrantzitsuenak aunitzetan ahazten dugu, eta arras sinplea da: behar ez dituzun argiak itzal itzazu!



elictxe
suministros electricos

material elektrikoak

Tel: 948 581 261 · Faxe: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO
elictxe@elictxe.es

Jaukena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak



- Probexu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
- Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.

ekoiztu zure energia, izan EKologikoa

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Proiektu elektrikoak | Argindar instalazioak
Domotika | Eguzki panelak

Zalain Ind., 42 | BERA
T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

ELEK BERRI

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK (ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

INSTALATZAILE BAIMENDUAK

Santiago 118, Elizondo (Na) · elekberri@gmail.com · 646854825 // 616898065

DANI
INSTALACIONES
- TRINTATTA -
LESAKA

ELEKTRIZITATEA
ALARMAK
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com



- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

PINTURA

Kolore egokiak aukeratzearen garrantzia

Etxearen itxuraz aspertzen hasten garenean, aldatu dezakegun elementu simple baina eraginkorrenetakoa da kolorea. Gela bakoitzarentzat aukeratzen dugun kolorea arras garrantzitsua da, era guztietako sentsazio eta emozioak transmitituko dizkigulako. Hona hemen zure etxea pintatzeko erabili ditzakezun hainbat ideia:



Berdea

2021ean berdea da paretak margotzeko kolore nagusietako bat. Tonu gama zabaleko kolorea da: apioa, menda, ahuakatea, urdinxka, oliba... eta konbinatzeko erraza. Paretak ez ezik, besaulkiak, sofak eta estiloko altzari berdeak ere aunitz ikusten dira kolorea eta bizitasuna ematen diotelako etxeari, deigarriegia egin gabe.



Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

pinturasalzuyet@gmail.com
www.pinturas-alzuyet.com

- Fatxaden zaharberritzea
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura industrialia
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan



Melo Pinturak

T. 609 873 178
LEITZA



melopinturas@hotmail.com
www.pinturasmelo.com



Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com



BARNIZADURAK

- Naturalak
- Tindatuak
- Zahar itxurakoak
- Suaren kontrakoak

LAKATUAK

- Horitzearen kontrakoak
- Patinatuak
- Testuratuak
- Mate-distira

ATEETAN,
ARMAIRUETAN,
ZOKALOETAN...



KANPOALDEKO UR-BERNIZAK

mota guztietako egurretan eta kalitate haundieneko materialekin leihotetan, leiho-ateetan, balkoietan, teilatu-hegaletan...

BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA:

Etxebizitzak, lokalak, bulegoak, auzo-komunitateak, fatxadak...

AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK, ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...



Urdina

Erlaxatzeko lekua dugu etxea, eta urdina da lasaitasun gehien transmititzen duen kolorea. Itsaso- edo zero-urdinak altzairu zuriekin konbinatzeko paregabeak dira efektu lasaigarria lortzeko. Urdin iluna berriz marroiarekin eta egur-kolorearekin erabili ohi da etxeari sofistikazio puntu bat emateko.



Beixa

Kolore neutroa da, zuriarekin, kremarekin edo izokin-kolorearekin erraz konbinatu daitekeena, eta etxeari goxotasuna eta xumetasuna ematen diote. Dekorazio minimalistarekin emaitza interesgarriak eman ditzake kolore honek.



Horia

Bere neurrian erabilia, alaitasuna eta energia ematen dio etxeari, batez ere zuria eta grisa bezalako koloreekin konbinatuta, gehiago nabarmentzen baita kolore apaleko inguruan.



zeramikaren
Benta
venta du carrelage

asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:30-18:00

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-17:00

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

ALMACO BAZTAN GRUP **GAMMA**

* erakusketan ditugun su-aparatu guztien likidazio osoa *

"Hotza hurbiltzen ari denean,
gozatu suaren magia"

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857
www.almacobaztan.com



Jaurena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak



Sukalde eta bainugeletarako
enzimerak egiten ditugu
Arizkunen.



Ind. Ordoki - ARIZKUN | T. 948 45 33 69 | graykosl@gmail.com | www.grayko.com



Amet's®
MUEBLES | ALTZARIAK



30
URTEko
esperientzia

FABRIKAZIO PROPIOA
sukaldeak eta armairuak

SALMENTA
dekorazioa, altzariak, komunak...

4.000 m²-ko erakusketa

Sastrin k., 2 · Lesaka · 948 63 05 37
www.mueblesamets.com



Sukalde berriak

Tradizionalki, familiako kide guztiak suaren goxotasunean biltzeko lekua izan da sukalde, eta aunitz aldatu bada ere, ez du garrantzirik galdu.



Sukalde etxeko gelarik garrantzitsuenak izan da beti Euskal Herrian. Gaur egun koloreak, materialak, altzarien kokapenak... aunitz aldatu dira, eta mila aukera ditugu sukalde toki polit eta funtzionala bihurtzeko, gure beharretara egokitua:

Materialak

Egurrak, harriak eta hormigoioak modernotasuna emanen diote sukaldeari eta egurrezko altzariekin, marmolarekin eta altzairuarekin erraz konbinatzen dira. Sukalde haundi eta zabalentzako egurra material aproposa da, sakontasuna ematen baitiote. Gainera, egur jasangarria gero eta gehiago erabiltzen da, bertako oihanetatik datorren egurra.

Koloreak

Alde ilunera pasatuko gara aurren, izan ere, sukaldeak jada ez dute guztiz zuriak izan beharrik. Beltza eta grisa nagusitzen hasiko dira mahai, altzari, sukalde-gaineko eta baita paretetan ere. Arraroa badirudi ere, egurrezko altzariekin elegantzia ematen dio gelari, eta elementu zuri eta argiak nabarmentzen ditu. Gainera, sukalde berrietako materialek arrastoen aurkako akaberak dituzte, olio edo irinez zikindutako behatzek arrastorik ez uzteko.


sukalDeco
estudio cocina y baño



IRURITA
Tel.: 948 580 666
www.sukaldeco.com

muebles
ORDOKI
altzariak

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 638 076
info@mueblesordoki.com



www.mueblesordoki.com

BIDASOA ALTZARIAK

ALTZARIAK · DEKORAZIOA

*Altzariak, oihalak,
alfonbrak,
eta dekorazio
eskaintza berriak.*

Nafarroa ibilbidea, 9 IRUN
T. 943 63 29 32
info@mueblesbidasoa.es
www.mueblesbidasoa.es





KULTURKARI

Diseinu grafikoa | Publizitatea



Koskontako bidea, 7 -1
LESAKA - T. 948 63 54 58
www.kulturkari.com

Txartelak | Folletoak | Egutegiak
Irudi korporatiboa | Inprenta lanak
Aldizkariak | Katalogoak | Liburuak
Pegatinak | Lonak | Txapak | Rotulazioa
Boletoak | Poltsak | Mapak | Web | Multimedia

SUKALDEAK

Txorrotak

Altzariak eta paretak ez dira kolorez aldatuko diren elementu bakarrak. Altzairuaren koloretik haratago, txorrotek beltza, urre-kolorea eta kobrearena hartuko dute aurten. Aunitzetan ez dugu arretarik paratzen txorrotan, baina sukaldeko elementu garrantzitsuenetako bat da eta inguruarekin bat egiteak, urre-koloreko txorrotarekin adibidez, elegantzia emanen dio sukaldeari.



Sukaldea zeure neurrira

Dekorazio aldizkarietan ohikoa da sukalde zabal eta argitsuak ikustea, irlarekin erdialdean eta etxetresna handiekin. Baina errealitatea bertzelakoa da eta apartamentuetan bizi direnek leku mugatua izaten dute. Zorionez, espazioa optimizatzeko eta sukaldea ahal bezainbat probesteko manera aunitz daude gaur egun. Zokalo ttikiek biltegitratze bertikalari leku gehiago ematen diote, konpartimentu erregulagarrieekin kaxoiak nahi ditugun modura antolatu ditza-kegu eta paretetan apalategiak hainbat altueratan paratuta, izkinak eta paretak hobe probestuko ditugu.



Leitzako Bidea, 39 · 31740 DONEZTEBE
Tel.: 948 45 03 05
F. 948 45 00 68



www.menditxuri.com



Nola akabatu etxeko labezomorroak?

Etxean labezomorroak daudela ikusiz gero, hobe da kontu handiz jokatzea, horiek baitira akabatze-ko intsekturik zailenak. Ezinbertzekoa da etxe osoa zehatz-mehatz garbitzea eta, gainera, pozo bereziren bat erabiltzea, izurritea kontrolatzen laguntzeko.

Labezomorroek bizitzeko janaria, hezetasuna, beroa eta egunez ezkutatzeko babeslekuak behar dituzte. Desagertzea nahi badugu, elementu horiek guztiak kendu behar dizkiegu.

Janariari dagokionez:

- Ez utzi inoiz janaria eskuragarri. Elikagaiak hozkailuan edo tapakiak ongi itxita dituzten ontzietan gorde behar ditugu. Horrek garrantzi berezia hartzen du gauetan, orduan egoten baitira labezomorroak aktiboen.
- Platerak eta tresneria erabili eta berehala garbitu.

- Lurrean, sutegetan, apalategietan, altzarien azpian eta abarretan gelditu daitezkeen janari-hondar guztiak ondo garbitu.
- Zabor-poltsa ongi itxi eta maiz ateratu.
- Etxean animaliak baditugu, gaueetan ez utzi kanpoan janaririk.

Urari dagokionez:

- Ura duen ontzirik agerian ez utzi.
- Tantaka dauden txorrotak eta hodi-tako edozein ur-ihes konpondu.
- Sukaldeko arraskaren hustubidea labezomorroak igaro ezin diren taparekin estali.
- Ongi lehortu dutxa, harraska eta, oro har, hezetasuna sor dezakeen edozein iturri.



Labezomorroen babeslekuak:

- Paretetako pitzadura guztiak, zolak, mobleak edo sar daitezkeen edozein zirrikitu zigilatu.
- Etxean ez pilatu kutxarrik, egunkaririk edo paperik eta, oro har, labezomorroak ezkutatzeko balio dezakeen edozein material.
- Etxean paper-margotua baldin badugu, kontuz ibili, ez dadin inon sueto edo urratuta egon. Hala bada, konpondu.
- Etxeko ateak eta leihoak zirrikiturik ongi ixten direla egiaztatzea, hala ez bada, zerbait jartzea intsektuak ez sartzeko.

Azken batean, etxe osoa ongi garbitu behar da, eta ondotik xurgagailua pasatu. Eta arazoa gure kontrolatik kanpo baldin bada, jarri berehala harremanetan profesionalekin.



T. 667 680 238
www.desinbera.com
info@desinbera.com

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK




Makina bidezko tratamenduak

Termita, xilofago, onddo eta lizunen aurkako tratamenduak. Egur egituren bizi iraupena luzatzen lagunduko dizuegu.




Termiten aurkako tratamendua amu bidez


Tratatu aitzinetik



Produktuarekin



Produktua xurgatu ondotik



Gel bidezko xilofagoen aurkako tratamendua

Bertsolari txapelketako azken finalaurrekoa

Sei bertsolari igoko dira kiroldegiko oholza gainera, tartean Joanes Illarregi leitzarra

TTIPI-TTAPA

Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu ditu igandean, azaroaren 14an, herrian egitekoa den Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren eta azken finalaurrekoa. Hasiera batean Herri Aretoan egitekoa zen, baina uste baino lehenago agortu ziren sarrerak, eta eskari handiagatik aretoz aldatzea erabaki zuen Nafarroako Bertsotzale Elkartek, Herri Aretoetik herriko kiroldegira.

17:30etik aurrera sei bertsolari hauek ariko dira: Joanes Illarregi Marzol, Eneko Fernandez Maritzalar, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Julen Zelaieta Iriarte eta Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ainhoa Larretxea Agirre gai-jartzaile dutela. Egun horretan jakinen da azaroaren 28an Iruñeko finalean ariko diren zortzi bertsolarien zerrenda.

Azoka etaazienda erakusketa

Eguneko beste hitzordu nagusia, LeitzEKO kontsumo taldeak, udalaren laguntzarekin, antolatutako Leitza eta Aresoko produktuen azoka etaazienda

erakusketa izanen da. Euskal Herria Plazan izanen da, eta eguraldi txarrarekin Amazabal frontoian eta inguruan.

10:00etatik 14:00etara baratzetan, alor eta etxetan egindako ogia, glutenik gabeko gutiziak, arrautzak, gozokiak, banabarrak, intxaurrak, eztiak, gaztak, garaiko barazkiak eta frutak, etxeetan prestatutako janaria, sagardoa eta gehiago erosteko aukera izanen da. Herriko hamar baserritarrek piriniotar arrazako behiak, artantzulaxak, euskal asto eta pottokak, sasi ardiak, antzarak, txerriak, oiloak.. ekarriko dituzte eta kontsumo taldeak jarritako zozketa postua ere hortxe izanen da. Bertako produktuekin osatutako lote paregabea zozketatuko du. Taloez gain, txerriki eta axuria burrunzian egindako pintxoak dastatzeko aukera ere emanen dute. Eta bertako txistulariak eta trikitilariak giroa alaitzeaz arduratuko dira.

Guraso elkartearen 'pesta'

Denok Bat Guraso Elkartek, berri, udazkeneko *pesta* egingen



Joanes Illarregi izanen da larunbatean kantuan ariko den bertsolarietako bat.



Larunbatean 10:00etatik 14:00etara azoka egingen dute. Irudia 2019koa da.

dularunbatean. 16:30ean udazkenari buruzko marrazki bat egiteko aukera emanen dute eta 17:30ean marrazkiaren truke gaztainak banatuko dituzte. Dena plazan egingen dute eta musikarekin alaituko dute.

Ostegunean hitzaldia

Larunbateko hitzordu hirukoitza baino lehen, ostegunean, hilaren 11n, 19:00etan, *Plenipausa... hasi da jolgorioa!* hitzaldia emanen du Maite Aran-

buru emaginak. Emakumeak menopausia garaian sentitzen dituen gorabeheraz hitz egingen du eta nahi dutenek zalantzak argitzeko aukera izanen dute.

Heriotza duina hizpide

Heriotza duina: eutanasia legea eta bizi testamentua izenburupean, azaroaren 18an hitzaldia izanen da Herri Aretoan, 18:30ean. Azken orduko aldatearik ez bada, Manu Ezizola medikua izanen da hizlaria.

Turismo eredua lantzeko ekintza planari begira

JUAN MARI BARRIOLA

Urriaren 28an egin zuten turismo eredua lantzeko *Gure lurraldea gure eredua* lelopean Plazaola Partzuergoak abiatu duen prozesuko azken eta hirugarren saioa Herri Aretoan. Hainbat esperientzia jarri zituzten mahai gainean Niko Osi-

naldek (Goitur), Amairu Anzuetak (Cederna Garalur), Xabier Velascok (Nasuvinsa), David Orozek (Sakana Mankomunitatea) eta Patxi Saenzek (Nafarroako Gobernuako Turismo Zuzendaritza). Marko estrategikoa definituta, orain ekintza planean jarriko dute arreta.



Urriaren 28an Herri Aretoan egindako saioa. PLAZAOLA PARTZUERGOA

Zapatistak Leitzan eta Areson izanen dira aste honetan

Ostiralean Atekabeltzen izanen dira eta larunbatean Aresora joanen dira

JUAN MARI BARRIOLA

Mexikoko zapatisten mugimenduko lantalde bat Europan dabil bertako mugimendu eta esperientziak ezagutzeko eta bide batez beraien borroken berri zabalduz.

Euskal Herriatik ere pasako dira eta hain zuzen, aste ho-

netan, Leitzan eta Areso bisitatuko dituzte. Ostiralean, Atekabeltzen izanen dira. Goizean Atekako proiektua aurkeztuko diete eta ondoren bazkaria egingen dute. Nahi duten guztientzako irekia izanen da. Biharamunean, Areson egun osoko festa antolatu dute



ALBERTO LLONA

Etxalderen jardunaldia

Etxalde baserriarren mugimenduak antolatuta, hainbat esperientzia bertatik bertara entzuteko aukera izan zen urriaren 28an Herri Aretoan. Tartean, Gotzone Sestorain herritarrek Etxalderen txostena aurkeztu zuen. Lau orduko jardunaldia eztabaida saio irekiarekin borobildu zuten.

Udalak WhatsApp hedapen kanala sortu du

Udalak «herriarregana zuzentzeko» WhatsApp hedapen kanala sortu du. Udalaren jardunari buruzko jakinarazpenak, albisteak, berrikuntza, ekitaldiak eta informazio interesgarria mugikorrean hartzeko aukera izanen dute 617 38 56 22ra Alta mezua bidaltzen dutenek.

Txertaketa kanpaina abenduaren 3ra bitarte

Abenduaren 3ra arte luzatuko dute gripearen eta Covid-19aren kontrako txertoak jartzeko kanpaina. Ordua hartzeko *citassalud.navarra.es*en sartu, *citassalud.navarra.es*era idatzi edo 948 37 01 30ra deitu behar da. 70 urtez beherakoek osasun etxera deitu behar dute.

Bertso zahar musikatuak eta pilota partida asteburuan

TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, asteburu honetan sanmartinen seinalea egingen dute herritarrek. Larunbatean, azaroaren 13an, 20:30ean, Unai eta Eñaut Agirre anaiek bertso zaharrak kantatuko dituzte, Imanol Kamioren musika doi-

nuek lagunduta. Ikuskizunaren bueltan, gaztainak ere erreko dituzte. Igandean, berriz, Ados pilota enpresako pilotariak partida jokatu dute 12:00etan.

Ostiralean, bestalde, azaroaren 12an, San Roke elkarteak urteko batzarra egingen dute, 19:30ean.



UTZITAKOA

Gau beltzean hainbat ekitaldi

96 lagunek parte hartu zuten Kontsejupe tabernan kalabazaren pisua asmatzeko egindako lehiaketan, eta sei hurbildu ziren pisu zuzenera. Umeak etxetik etxera gozokiak biltzen eta kalabaza hustu eta apaintzen aritu ziren. Pelikula ikusi, beldurrezko jokoetan ari eta beldurrezko historiak entzuteko aukera ere izan zuten.



UTZITAKOA

Herritarrek Bhutan proiektuan

Bhutan proiektuaren harira, pantailen erabilerak duen eraginaz hausnartzeko hainbat poster jarri zituzten urriaren 29tik azaroaren 1era elkarteko arkupeetan. Horrez gain, aranoarren eta goizuetarren mezuak bilduz bideo bat zabaltu zuten sare sozialetan. Irudian udal ordezkariak aipatutako bideoan.

Patinaje ikastaroa eskainiko dute bi larunbatetan

Azaroaren 20an eta abenduaren 18an izango dira saioak eta haur eta helduek parte har dezakete

TTIPI-TTAPA

Udan egindako ikastaroak izandako arrakasta ikusita, beste behin ere, patinaje ikastaroa antolatu du KirolMank kirol mankomuniateak. Azaroaren 20an eta abenduaren 18an izango dira jardunaldiak 12:30etik 13:30era, eta bi saioetan edo bakarrean izena emateko aukera izango da.

Lehenbiziko jardunaldian parte hartu nahi dutenek, azaroaren 17ko 14:00ak baino lehenago eman beharko dute izena. Bigarrenarako, berriz, abenduaren 15eko 14:00akarte izango dute apuntatzeko aukera.

Saioak aurrera ateratzeko gutxienez zortzi lagun bildu beharko direla adierazi du kirol mankomuniateak eta interesatuek kirolmankomunitatea@gmail.com helbidera



Udan egindako patinaje ikastaroa.

idatzita eskatu beharko dute inskripzio-orria. Saio bakoitza ordaindu beharko da, haurrek sei euro eta erdi eta helduek hamar euro.

UEMAk antolatutako ikastaroa azaroaren 16an

Azaroaren 16an, asteartean, *Sendotu arnasguneak gure herriak hasita* tailerra antolatu du UEMAK. «Udalerri euskaldunak dira euskararen birrikak!» dio kartelak eta saioa 17:30ean hasiko da. Izen-ematea udaltxera deituta edo idazkariarekin harremanetan jarrita.

Errigorako saskien kanpaina

Errigorako saskiak azaroaren 11ra arte eskatzeko aukera izango da. Hiru saski izango dira oraingoan ere aukeran eta ahal dela eskaerak online egiteko eskatu dute. Saskien banaketa hilabete honen bukaeran, plaza zaharrean egingo dute.



UTZITAKOAK

Mugikorrarekin argazkiak egiten ikasiz

Urriaren 21ean *Argazkilaritza mugikorrean*, Instagram baino gehiago ikastaroa eskaini zuen Oier Fuentesek udaletxean. Bi orduko saioa izan zen eta mugikorraren kameraren ezaugarriak ezagutu eta hamaika trikimailu ikasteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.



UTZITAKOAK

Haurrak eta gurasoak gaztainak biltzen

Urriaren 27an plazan elkartu eta saskiak eskuetan mendira abiatu zen 45 lagunetik gorako kua-drilla; umeak eta gurasoak. Gaztainak biltzeko asmotan mendi buelta polita egin zuten Azpikotxeko gaztainaditik ermitako bideraino. Bukaera gozoa izan zuten, guraso elkarteak antolatutako arratsaldeko ederra jancez. Bildutako gaztainak jateko laster egingo dute berriz ere hitzordua.



Aimar Olaizolak larunbatean jokatu du profesionaleta azken partida.

Dena prest dago Aimar Olaizolaren agur handirako

Izena eman dutenak gehiago izan badira ere, 760 lagunek izanen dute Aimar Olaizolaren azken partida ikusteko aukera

TTIPI-TTAPA

Handia izan da Aimar Olaizola Apezetxeak pilota profesionalean egin duen ibilbidea, eta handia izanen da larunbat hau ere, azaroaren 13a. Baita berezia ere, 23 urtez profesionalean ibili ondoren bere azken partida jokatu duela, 42 urte beteko dituen egunean, eta mutiko kozkorra zela hainbat eta hainbat pilotakada eman zituen pilotalekuan.

Frontoia txiki geldituko da

Ikusmin handia sortu du agurreko partidak eta datuak dira horren erakusle. Miel Joxe Lekuona Umore Ona elkarte-ko lehendakariak TTIPI-TTAPA-ri kontatu dionez, «sarrerentzerrendan apuntatzeko epea ireki zen lehenengo egunean, 280 lagunek eman zuten izena».

Pilotalekuak 760 lagunek edukiera du eta eserleku guztiak beteko dira. «Aimarrek eta Baïkok 425 lagunentzako gonbidapena eskatua dute. Horrez gain, herrian erroldatutako 329 lagunek eman dute izena eta erroldatu gabeko 288k». Erroldatuak eta herri-

tarrek izanen dute lehentasuna eta Lekuonaren arabera, «herriar guztiek pilotalekura sartzeko aukera izanen dute la uste dugu». Hortik aparte, eserlekuren bat hutsik geldituz gero, «zozketa bidez erabakiko dute nor sartu».

Bi partida eta omenaldia

Agurreko partidaren bueltan, pilota partidak eta omenaldia izanen dira. Aurreneko partidari, Iker Salaberria herriar eta Erasun, Zubizarreta III.a eta Elizegiren aurka ariko dira. Bigarrenegian, Olaizola II.ak Imaz izanen du atzean, eta Jaka eta Aretxabaletaren aurka jokatu dute. Partidak 17:15ean hasiko dira.

Omenaldiarekin borobilduko dute larunbateko hitzordua. Lekuonak «sorpresa asko» izanen direla aurreratu du. Gainera, bi partidak bukatu eta berehala, frontoiko ateak irekiko dituzte sarrerarik gabe gelditu diren guztiak omenaldia ikustera sartu ahal izateko. Bateko eta besteko, «nahiz eta jende asko sarrerarik gabe gelditu, jende asko hurbilduko da larunbatean».

Errigoraren saskiak eskatzeko azken egunak

Ostegun honetan, azaroaren 11n, bukatuko da Errigorako saskiak eskatzeko epea. Aurten ere hiru saski jarri dituzte: beltza (55 euro), berdea (65 euro) eta zuria (75 euro) eta Amaia kafetegian, estankotan eta arropa-dendan edo www.errigora.eusen egin daiteke eskaera.

Baserritarren bilera eginen dute azaroaren 17an

Baserria lantzeko proposamena aurkeztuko dute baserritarrek azaroaren 17an udaletxeko ganbaran, 19:00etan. Azien-dak izan edo ez, baserrimundarekin zerikusia duten guztiei parte hartzeko deia egin diete eta hitzordu «garrantzitsua» izanen dela aurreratu dute.

'Minondotarren gutunak' liburuaren aurkezpena eginen dute azaroaren 19an

TTIPI-TTAPA

1790tik 1807ra Jose Ramon Minondo herritarak idatzitako euskarazko gutunak biltzen dituen liburua aurkeztuko dute azaroaren 19an, 18:30ean. Juan Jose Zubirik *Xapo* aldizkarian jakinarazi zuenez, joan den urtean, «nonbait Paskualuze-

nea hustu behar zutenean» aurkitu zituzten gutunak, eta «denetarik» izan arren, «gehienak komertzio harremanak eta kontabilitate kontuak» zituzten hizpide. Berriki gutun horiek argitaratu dituzte eta Juan Jose Zubiri eta Iker Salaberri azalpenak ematera etorriko dira.

Bhutan proiektuaren barnean, bertso marraztuak eta erakusketa aste honetan

TTIPI-TTAPA

Arrakastatsua izaten ari da Bhutan proiektuaren aurtengo kanpaina. Pantailen erabilerak izan dezakeen arriskuaz ohartaraztea izan da aurtengo helburua eta horren bueltan hainbat ekintza egin dituzte. Hasteko, urrian «mundu birtualak eta digitalak gudan duen eraginaz hausnartzeko posterrak» jarri zituzten kalean. Joan den astean, berriz, garbilekuan jarri zituzten. Ostirala arte egonen dira bertan. Horrez gain, goizuetarren eta aranoarren mezuak bilduz bideo txukuna ere zabaldu dute sare sozialetan.

Urriaren 25ean, bestalde, *Gurasoak eta seme-alabak pantailen aurrean* izenburupean hitzaldia eman zuen Miren Ros hezitzaileak. Oihane Kalderon prebentzio programako teknikariak eta Amaia Paz berdin-

tasun programako teknikarien hitzetan, «oso arrakastatsua izan zen. 28 lagun elkartu ziren eta jendea oso gustura gelditu zen. Gurasoek haien kezkak adierazi zituzten eta Miren hauek lantzeaz gain, gaiari buruzko gauza orokorrak adierazi zituzten».

Bertso marraztuak ostiralean

Eremu digitalean zainduta kanpaina borobiltzeko, ostiral honetan, azaroaren 12an, bertso marraztuak izanen dira. Saioa Alkaiza eta Alaia Martin bertsoari ariko dira eta bitartean Unai Gaztelumendi marrazten ariko dira, denak IKT edo pantailen munduaz hausnartzen. 18:00etan udaletxeko ganbaran izanen da. Zaintza zerbitzua eskaintzekoa dute baina horretarako astearterako apuntatu beharra zen.

'Histoire de Navarre' liburua erosi du Amaiurko herriak

1612an André Fauvynek Nafarroako konkistari buruz idatzitako liburuaren lehen edizioa eskuratu dute

TTIPI-TTAPA

Amaiurko Arkeologia Zentroan *Histoire de Navarre* liburuaren lehen edizioaren aurkezpena egin zuten urriaren 27an. Liburua 1612an idatzi zuen frantsesez André Fauvyn-ek, garai hartan Pariseko Parlamentuko abokatu zenak, orduko Nafarroako Parlamentuaren enkarguz. Amaiurko Gaztelu Elkartek erosi duen historia-aren harribitxi honen aurkezpenean Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidenteak, Isabel Aleman Amaiurko alkateak eta Juantxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkari nagusiak hartu zuten parte.

Lan hau euskal-nafar historiografiaren mugarriztat jotzen da, Nafarroako Erresumaren zati bat independente zenean idatzi baitzen. Bertan, Nafarroako erregeen jatorria, bizitzak eta konkistak jasotzen dira, eta erregealdietan izandako gertakari garrantzitsuenak deskribatzen dira. Portada ikusgarria L. Gaultierrek egindako kalkografia bat da, non Iruñea eta



Amaiurren dago ikusgai liburua.

Jakako herrien aurkako alegoria jasotzen den.

«Amaiurko historiaren zati»

Lehen edizio honen bi ale gehiago daude Nafarroan. Horietako bat Nafarroako Unibertsitatean dago, eta bertzea, Arturo Campionen funtsaren parte da eta Iruñeko Udal Liburutegian dago.

Isabel Aleman, Amaiurko alkateak adierazi zuenez, «hau hemengeldituko da Amaiurren, gure historiaren zati gisa; izan ere, liburuaren barrenean Amaiur hartzeari buruzko hainbat pasarte deskribatzen dira».

Liburua Amaiurko Arkeologia Zentroan ikus daiteke asteotan.



Kalabazak hustu eta apaindu zituzten haurrek. MAIALEN IANTZI ETA PELLO IRIARTE

Gau Beltza ospatu dute hainbat herritako haurrek urriaren 31n

MAIALEN IANTZI

Hondar urteetan bezala eta antzinako ohitura berreskuratuz, Gau Beltza ospatu zuten Baztango hainbat herritan urriaren 31n. Haurrak izan ziren protagonista igandean Berroetan; goizean kalabazak husteko tailerra izan zuten, gero, Gau Beltzaren nondik norakoak azaldu zizkieten eta

arratsaldean herriari buelta eman zioten kalabazak piztu eta goareak joz. Anizen ere kalabazak hustu eta apaindu zituzten, eta haurrak mozzarratuak ibili ziren herrian barrena. Iluntzean merendu afaria egiteko elkartu ziren. Iruritan musikariak izan zituzten, eta kalejiraren erritmora apaindu zuten herria kalabazekin.

Boys in the Hill taldearen kontzertua azaroaren 14an

Folk Ametsetan zikloaren barnean, musika irlandarra jotzen duen laukotea Arizkunenean izanen da igandean 19:00etan. Alvaro Carbonellek, Jesus Carbonellek, Salvador Dazak eta Jorge Friasek osatzen dute kontzertua emanen duen laukotea. Sarrera doan izanen da.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Orabideko barrideak kezkatuak daude basurdeek sortutako kalteengatik

Azken urteetan basurdeak nabarmen ugartu direla diote eta belaietan kalteak egiten dizkietela salatu dute Balleko Etxean

Urriaren 25ean Orabideko 20 baserrietako bizilagunen ordezkariak Baztango Balleko Etxean hainbat zinegotzi eta Joseba Otondo alkatearekin bildu ziren, beren kezka berri emateko eta etorkizunera begira, konponbidea bilatzeko bidelagun izatea eskatuz.

Azaldu zuten, duela lau urtetik honat, hain zuzen ere, inguru horretan ehiza-jardura murriztu zenetik, basurdearen agerpena arazo errepikakor eta gero eta larriagoa bilakatu da. Belaietan kalte handiak egin dituztela salatu dute, bazter guztiak muturtuz. Beren lurretan izandako kalteek erakusten omen dute, gainera, maiz jaitsi direla animaliak beren etxebizitzan inguruetara elikagai bila.

Aspaldiko arazoa

Baserritarrek azpimarratu dute arazoa ez dela oraingoa. Nonbait, lau urte daramatzate horrela, eta azken aldian basurdeek belaietan eragindako kalteak areagotu dira, epe laburrera kalte konponezina izanen dutenak, baserrietako aziendarendako elikagaiak galtzen ari direla kexatu ziren.

Orabideko bizilagunek basurdeen ugartzeari muga jartzeko ahalegin berezia eskatu dute, eta egoera bere oneratzeko bidean, ehiztariei sartzen uztea aldarrikatu dute, uxaldi kontrolatuen bidez basurde populazioa murrizteko.

Elkarretaratzeak ortziralero Osasun etxean

Elizondoko Osasun zentroan azken urte eta erdian mediku bakarra izan da zentroari berez dagokion pediatria jardunaldia behin-behinean betetzen, «horrek suposatzen duen lan kargarekin». Orain bi pediatria plazak hutsik daude, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubiko neska-mutikoei pediatriarik gabe utziz. Hau salatzeko, elkarreta-

ratzea egin dute bertze behin eta arazoa konpondu arte ortziralero elkartuko dira 18:00etan Osasun etxeko ateetan. Gainera, bailarako gurasoek zentroan erreklamazio-orriak betetzea eta aurkeztea eskatu dute, «egoera hau administratiboki jasota uzteko. Pediatria lanpostua orain betetzea behar dugu, gure seme-alaben eskubidea delako».

INBERTSIO-FUNTSAK

Zure izenaz deitzen zaitugu

Rural Kutxan, badakigu nola deitzen zaren eta zer behar duzun.

Marcela

MARCELA IRUÑEKO
LIBURU-DENDA BATEN JABEA DA

Horregatik, zure izaerara eta gauzak egiteko zure modura hobekien egokitzen den inbertsio-funtsa eskain diezazukegu.

Zure izenera.

Inbertsio-funtsetan, ez inbertitutako kapitala, ez errentagarritasuna ez daude bermatuta. Funtsetan egindako inbertsioen balioa merkatuen gorabeheren mende dago.

Informazio hau komertziala da, eta ez da inolaz ere eskaintza. Harpidetza gomendatzen edo inbertsio-arioko finantza aholkularitza. Bertan dagoen informazioak ez du ordenakiz inbertsioari buruzko erabakia hartu aurretik kontsultatu beharrekiko legerik dokumentazioa. Funtsetan liburuak eta inbertsioaren erantzukizuna funtsetan dagoen dokumentuak bertan dagoen dokumentu Rural Kutxako bulegoetan, ruralkutxa.com helbidean eta CNMV-n kontsultatu daitezke. Kudeatzailea: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.L.C. Gordailuzaina: Banco Cooperativo Español.

CAJA RURAL DE NAVARRA

Zaintza Lanak Baztan enpresak kudeatuko du zahar etxea

Enpresaren memoria teknikoari eta estatutuei behin betiko onospena eman dio Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 28an egin zen ohiko bilkuran Baztango Udalbatzak udalaren jabetzakoa den Francisco Joaquín Iriarte zahar etxea kudeatuko duen enpresa publikoaren memoria teknikoari eta estatutuei behin betiko onospena eman zien. Bidenabar, enpresa berriaren izena onartu zuen; Zaintza Lanak Baztan. Erabakiak EH Bilduren eta Ezkerraren aldeko 7 bozka izan zituen, Navarra Sumaren kontrako 3 eta Geroa Bairen 2 abstentzio. Bilkuran administrazio kon-

tseiluko kideak izendatu ziren: Joseba Otondo eta Idoia Sobrino (EH Bildu), Florentino Goñi (Ezkerra), Ruben Zigan-da (Geroa Bai) eta Tasio Nagore (Navarra Suma). Enpresa berria notariotzan eskrituratu beharko da eta, ondotik, merkataritzako erregistroan altan eman.

Buruileko osoko bilkuran, bertalde, enpresa berria kapital sozialaz hornitzeko 3.300 euroko aurrekontu moldaketa egin zen, gaurgero indarrean dena eta enpresa eratu bezain fite emanen dena.

«Ostatuetan indarkeriaz beteriko jarrearen normalizazioa» salatu dute feministek

TTIPI-TTAPA

«Gauak eta karrikak denonak direla» aldarrikatuz Elizondoko plazan bildu ziren Baztango hainbat eragile feminista urriaren 28an. Berrogeialdiaren ondotik, «biolentzia forma guztiak areagotzen ari direla» salatu zuten, bertzeak bertze;

«neskak jazartzea, presioa sortzea, hitzeko eta ez hitzeko biolentzia, garagardoak ebas-tea, espazioa bereganatzea...». Talde politikoek, kirol eta kultura elkarteek, talde feministek eta bertze hainbat erakundek haien atxikimendua erakutsi diote aldarrikapenari.



ONDIKOL

Udazkeneko feria jendetsua Elizondon

Udazkeneko feria bereziak izan dira aurten Elizondokoak, hala ere, jende andana bildu zen. Goizean, azienak eta makinak izan ziren Merkatuko Plazan eta bertako artisauen eta komertzioen postuak plazan eta Jaime Urrutia karrikan. Arratsaldean, berriz, pilota partida egin zen frontoian.



PINTURA eta DEKORAZIOA

BIDASOA

Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23

Lakadura eta bernizadurak
Armairuak, azulejuak, etab.
Etxe eta enpresen mantentze-lanak
Etxeko konponketa ttikiak

Oiz (Malerreka).
 Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.
 pinturasbidasoairun@gmail.com





Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA

T. 948 631 218

joxemi@kateabike.com

www.kateabike.com





ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

«Agindutakoa betetzen ez bada, esleipena gibelera egiten saiatuko gara»

IDOIA GOÑI OTXANDORENA ELIZONDOKO ESKOLAKO JANTOKIKO ARDURADUNA

Nafarroako JanGela elkarteak bere desadostasuna adierazi dio gobernuari jantokiei enpresa kudeatzaileak esleitzean eskolen iritziak kontuan ez hartzeagatik

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Elizondoko Eskola Publikoan egiten du lan Idoia Goñi Otxandorenak eta jantokiko arduradun lanetan ibiltzen da; «ikasleak antolatzen, menuak gainbegiratzeko, janaria probatzen eta orokorrean zerbitzua ongi atera dadin lanean». Nafarroako bertze hainbat eskoletako arduradunek bezala, aurten jantokia kudeatuko duen enpresaren aukeraketa «irregularra» izan dela adierazi du Goñik.

JanGelak, Nafarroako guraso elkarten mahaiak, «kontratazio prozesuan ikastetxeen iritziak kontuan hartu ez izana» salatu du, eta esleipena lortzeko dirua «erabakigarria» izan dela. «Prezioak beheiti jautsi dituen irabazle atera da. Nafarroako enpresa handienak 39 eskoletatik 31 lortu ditu».

Zenbatero aldatzen da eskola publikoetan jangela kudeatuko duen enpresa?

Kudeaketa lau urtetik behin aldatzen da, baina Covid-a dela eta, azkenekoa urte bat luzatu zen. Azken bortsu urteetan Irigoien Comida Saludable izan da Elizondoko jangelako kudeatzailea eta esperientzia baikorra izan dugu, hortaz, beraiekin segitu nahi genuen.

Nork hartzen du erabakia?

Nafarroako Gobernuak lizitazioa atera zuen eta hor prozesu guztia azaldu zuen. 100 puntutatik, Eskola Kontseiluak 25 puntu banatzen ahal zituen



90 haurrek bazkaltzen dute egunero Elizondoko eskolako jangelan. UTZITAKOIA

eta gainerakoa Hezkuntza Departamentuak.

Eskola Kontseiluaren iritziak kontuan hartu dituzte?

Aitzineko esleipenean, 2016an, gure iritzia kontuan hartu eta gure puntuaketa onartu zuten, baina aurten ez da horrela izan. Enpresa bakoitzari 0 eta 25 arteko puntuaketa eman behar genion eta horrela egin genuen, baina ez zuten gure puntuaketa onartu. Eskola Kontseiluak berriz bildu behar izan zuen uztailean, denok oporretan ginenean, eta puntuaketa aldatu behar izan genituen. Hala ere, ematen duenez, ez zen beraiek espero zutena, berriz ere korreo bat bidali baitziguten gure

puntuaketa onartzen ez zutela erranez. Puntuazio bat proposatu ziguten argudio eta guzti. Kontseiluak berriz ere elkartu behar izan zuen eta bertan proposamena ez onartzea erabaki genuen, baina ez zuten gure iritzia errespetatu eta haien proposamena aurkeztu zuten. Hortaz erraten dugu esleipen prozesua irregularra izan dela. Badakigu bertze ikastetxeetan, Donezteben adibidez, gauza bera gertatu zela eta prozesuarekin lehenbailehen akitzeko haien proposamenak onartu zituztela, baina hori ez zen ikastetxeen hasierako puntuazioa. **Zein dira enpresa kudeatzaileen ardurak?**

Enpresako dietista eta nutrizionistek menua sortzen dute, hornitzaileek janariak ekartzen dizkigute eta langileen presaketaz ere arduratzen dira.

Zein enpresak kudeatzen du orain Elizondoko jangela?

Ausolan enpresarekin gaude orain. Menua aldatu dute eta astean bitan arrain freskoa izanen gurela promestu zuten baina ez da beti ailegatzen. Sukaldariak egunetik egunera menua aldatu behar izaten du eta sukaldean duenarekin bazkaria inprobisatu, aunitzetan ez direlako lehengaiak ailegatzen. Gurasoei ez zaie hau gustatu. Hortaz aparte, sukaldaria kontent dago produktuen kalitatearekin eta denbora gutti daramagu oraindik fundamentuzko iritzi bat emateko.

Agindutakoa betetzen ez badute, neurririk hartuko duzue?

Nafarroako Gobernuak agindutakoa betetzen dela ziurtatzeko ikuskariak bidaliko dituela suposatzen da, baina ez gara sobera fidatzen. Agindu dutena betetzen ez badute, argi dugu esleipena gibelera egiten saiatuko garela. Hala ere, eskainitakoa betetzea espero dugu, gure ikasleen onerako.

Jangelak garrantzi handia du ikasleen heziketan?

Ikasleek etxean ongi elikatzen eta arau minimo batzuk ikasi behar dituzte baina eskolako jantokiak horiek bulkatzen laguntzen du eta denek ildo beretik joan beharko genuke. Gure helburua ikasleak pertsona osasuntsuak izatea eta ongi jaten ikas dezatela da, baita bizikidetzara arauak erakustea ere.

Hezkuntza Departamentua jantokiak kalitatezko zerbitzua eman dezaten lanean ari da?

Aurtengo esleipenak ikusita, bide onetik doazela erranen nuke, kontent gelditu gara enpresendako atera dituzten eskakizunekin eta ados gaude. Baina Eskola Kontseiluaren iritzia ez errespetatzearekin ez gaude ados.

«Euskal gizarteari kritika egin nahi diogu ikuskizun honen bitartez»

ANDONI MUTILOA IRAZUSTA 'ESNATU NAIZ' KABARETAREN SORTZAILEA ETA AKTOREA

Azaroaren 21ean Iruritan Gizarte Bilgunean aurkeztuko du 'Esnatu naiz' ikuskizuna 19:00etan. Nortasuna, generoa eta sexu-joeira anitzak izanen ditu hizpide

R. OSKARIZ

Kazetari lanetan aritu da urte aunitzetan Andoni Mutiloa (Hernani, 1976) Gaztean eta Euskadi Irratian, baina ttikitatik izan ditu zaletasun dantza eta antzerkia. 2017an hartu zuen eszedentzia eta «sorkuntzan sartu nintzen burubelarri. *Esnatu Naiz* kabareta izan da lan horren emaitza». **Zein helbururekin sortu duzu kabareta?**

Antzezlan baterako sortu zitzaidan ideia izan zen abiapuntua: *Beyoncé izan nahi duen baserritarra*. Proiektua martxan nik paratu dudan arren, jende aunitzen laguntza izan dut, eta 2020an estreinatu genuen. Nortasuna, generoa eta sexu-joeira lantzen ditugu, LGBTI+ kolektiboko pertsonak gaur egun oraindik Euskal Herrian normaltasun osoz bizitzeko ditugun arazoei buruzko gogoeta bat da. Izan ere, pertsona aunitzek euren herriatik alde egitea erabakitzen dute, bertan ezin dutelako modu lasai eta irekian bizi euren nortasuna eta sexu-joeira. Hori arras tristea da, eta erantzukizuna herritar guztiena da. Horregatik, kabaretaren bitartez errealtate hori ikustarazteaz gain, gaiari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu nahi ditugu ikusleak. **Zer kontatzen du istorioak?**

Elur da protagonista, Londresen bizi den trans kolektiboko artista. Istorioak aitzinera egin ahala, gibelean dagoen per-



Andoni Mutiloa da kabareteko antzezle bakarra. UTZITAKOIA

tsonea ezagutuko dugu; Peio baserritar euskalduna, 10 urte lehenago bere herria uztea erabaki zuena bertan ezin zelako bere nortasunaren arabera bizi. Peiok azken urteetako bizipenak kontatuko ditu, hainbat gai jorratuz; harreman sozialak, autoestimua, lotsa, beldurrak, sexualitatea... Gaurkotasan handiko gaiak, baita unibertsalak ere. Euskal gizartea kritikatu eta errotuta dauden hainbat ohitura eta arau zalantzan jartzen ditugu.

Nondik dator izenburua?

Hasieran *Zergatik Ez?* izenburua zuen obrak, Etzakit taldearen kantuari erreferentzia eginez. Baina aspalditik Kerobia taldearen jarraitzailea

naiz eta *Esnatu Naiz* nire kanturik kuttunenetakoa da, eta abestiaren leloak ikuskizunarekin bete-betean egiten duela konturatu nintzen egun batean. Peio 'esnatu' egingen da, eta ondorioz Londresera alde egingen du.

Zergatik kabaret bat?

Antzezlan baten gidoia idazten hasi nintzen, baina dantza eta musika leku gehiago hartzen hasi ziren. Egitasmoari forma ematen lagundu zidan Amancay Gaztañagak, nire antzerki irakasleak, eta berehala erran zidan kabaretaren arima zuela. Gainera, kabaretaren drama eta komedia ederki nahasten dira. Ikuskizuneko aktore bakarra naiz, eta pertsonaia

aunitzen azalean sartu behar dut; Peio, ama, lagunak, lan-kideak... Antzezteaz gain, kantatu eta dantzatu egiten dut. Ez da zeregin erraza, baina aunitz gozatzen dut emanaldietan eta uste dut hori ere antzematen dela ikusterakoan. **Nolako harrera izan duzue Euskal Herriko herri ttikietan?**

Lan handia egiten ari gara txoko guztietara ailegatzeko, eta dagoeneko 45 emanaldi baino gehiago egin ditugu. Poz handia ematen dit horrek, kabaretaren mezua bereziki herri ttikietan zabaltzeko nahi dugulako. Ez da kasualitatea kontatzen dugun istorioa herri ttiki batean gertatzea eta Peio baserritarra izatea. Apropos egin nuen hori. Kolektiboko pertsona batentzat errazagoa da hiri handi batean bizitzea, anonimotasunak babesten duelako. Zorionez, gauzak aldatzen ari dira pixkanaka. Kabaretarekin harreara bikaina eskuratzen ari gara orokorrean. Jende aunitzen interesa piztu du eta hori seinale ona da.

Emanaldiaren ondotik solasaldia ere egiten duzue, ezta?

Bai, hasieratik hori zen gure asmoa, solasaldirako tarte labur bat zabaltzea, 15 minutu ingurukoa, ikusleek galderak egiteko eta euren iritzia emateko. Pandemiaren ondorioz moldatu behar izan ditugu, baina egoera lasaitu denez hasierako formatura bueltatu gara eta benetan ederra izaten ari da jendearekin solasean aritzea.

Iruritan izanen zara azaroan...

Bai! Nafarroan emanaldi batzuk egin ditugu eta azaroaren 21ean lehen aldia izanen da Baztanen. Gogo handia dut bertan kabareta egin eta baztandarrek zer nolako harrera egingen diguten ikusteko. Gizarte Bilgunean izanen gara 19:00etan, eta sarrera doan hartzen ahalko da bertan 18:30etik aitzinera. Ongi pasatu eta batez ere zer pentsatu emanen dizuen ikuskizuna ikusi nahi izanez gero, animatu!

Bus aldageltokia eta aparkalekua egingen dituzte Oronozen

Azpiegitura berrian hainbat autobus aldi berean aparkatzeko tokia izanen da, baita 21 autorentzako aparkalekua ere

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak urriaren 27ko bilkuran premiazkoztat jo zuen Oronoz-Mugairin garraio aldageltoki bat eta aparkaleku bat eraikitzeak ondasunak desjabetzea. Azpiegitura NA-8303 errepidean eraikiko dute, Martin Urrutia etorbidean. Gisa honetara, «garraio publikoko, aparkalekuko eta pasabideko erabiltzaileen segurtasuna hobetu» nahi du Nafarroako Gobernuak, eta erabilera bereizteko bi plataforma eraikiko dituzte: horietako bat autobusak aparkatzeko eta horiek maniobrak egiteko, eta bertzea, aparkaleku publikorako. Bi eremuak bata bertzearen artean bereiziak izanen dira.

Aldageltokiak 1.500 metro koadroko eremua izanen du



Oronoz-Mugairiko aparkalekua.

guztira eta hiru dartsena izanen ditu. Autobusen aparkalekuek zortzi metroko zabalera eta 12 metroko luzera izanen dute, eta nasek 12 metroko luzera eta hiru metroko zabalera. Aparkaleku publikoak, bertzalde, 1.200 metro koadro izanen ditu, eta autoentzako 21 plaza eraikiko dituzte, horietako bat mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitua.

Obra ttikien baimenerako prozedura erraztuko du udalak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 28ko bilkuran Baztango Udalbatzak obra ttikiak erantzukizunpeko adierazpenaren bidez tramitatu ahal izateko ordenantzari hasierako onespina eman zion EH Bilduren, Ezkerraren eta Geroa Bairen aldeko 9 botorekin eta

Navarra Sumaren 3 abstentzioarekin. Ordenantza behin betiko onartzean, edozein konponketa eta berritze lan ttiki erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiten ahaliko dira, betebeharrak kontuan hartuta eta agindutako agiriak aurkeztuta.




UTZITAKOAK

Mugimendua Lanbide Eskolan

Erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko ikastaroa hasi dute Lanbide Eskolan, langabezia daudenei bideratua. Bertzalde, Irurritako Gizarte Bilguneko segurtasuna hobetzen aritu dira OHL2 Elementu Metalikoen Fabrikazioko ikasleak.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Julen Zubieta irabazlea Txomin Iribarrenekin. UTZITAKOA

Landibar garaile Dantxarinako pintxo lehiaketan

Julen Zubietaren pintxoak lortu zituen epaimahaiaren eta publikoaren sariak

ARANTXA ETA IRAIA

Urriaren 15ean hasi zen Dantxarinako Pintxoaren Hamabostaldia 8. edizioa eta urriaren 31n erabaki zuten epaileek irabazlea: Landibar bentako Julen Zubieta. Gainera, publikoaren saria ere irabazi zuen. Zazpi bentetako jatetxeek parte hartu zuten lehiaketan; Agusek, Axularrek (Drunken Duck), Biokek (Lapitxuri Jatetxea eta Snack), Landibarrek, Pacok, Pantxok eta Peiok.

Aurtengo baldintza sukaldariak onddoak eta urdaiazpikoa erabiltzea zen, eta Zu-

bietaren pintxoak irabazi zuen ogia, kalabazin arrautzaztatua, urdaiazpikoa eta gasna erabiliz pintxoan eta onddo saltsaz, porru frijituaz, piperraz eta ozpinez lagundua.

Honez gain, pintxoak datatu eta gustukoenaren alde bozkatu zutenen artean, bi zozketa egin zituzten. Dantxarinako bozkatu eta haien datuak sartu zituztenen artean Mutrikuko Haitzalde landetxean asteburu bat zozketatu dute eta Facebook bidez bozkatu dutenen artean bi lagunendako bazkaria Landibar jatetxean.

Kantu zaharren bazkaria prest dute azaroaren 27rako

Zaletasuna ez galtzearen, azaroaren 27an kantu zaharren bazkaria antolatu da Karreteiron. Honela, izen eman nahi duen orok 600 66 96 23 telefono zenbakiratzat mezu bat bidali bertzerik ez dute egin beharko berriz ere kantuen aire goxoez gozatzeko.

'Hezur berriak' film laburra grabatu dute bi asteburutan

Film laburra grabatu dute herriko hainbat xokotan Lesakan egoitza duen Skullmendi Films etxearen eskutik. *Hezur berriak* filmean ikusten ahaliko dira irudiak. Itsulapikoa plataformaren bitartez proiektua laguntzeko aukera dute nahi duten guztiek.



UTZITAKOA

Etxelekua berriz ere saritua

Madrilgo IFEMAn ospatu zuten estatuko gasna onenen lehiaketa eta bertan izan ziren Etxelekukoak. Estatu osoko 800 gasna baino gehiago aurkeztu zituzten lehiaketara, 15 modalitatetan. Tartean, Etxelekuko gasnak bigarren saria eraman zuen ardi gasna onduen kategorian.



UTZITAKOA

Kalabaza uzta ederra

Nahiz eta arimen gauarekin zerikusirik ez izan, kalabaza uzta ona izan da herrian: Pablo Olaizola aitaxi-bilobek kalabaza ikaragarriak bildu baitituzte baratzetik. Bien artean ateratako kalabazen artean 60 kiloko fruitua bildu zuten. Lan bikaina egin zuten bien artean!

JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Aparkaleku berria bisitatu zuen Irujok, udal ordezkariekin batera. **MARIFA ETA KORO**

Azketako azpian aparkaleku berria egin dute

Berrogei bat auto sartuko dira, 53.000 euroko inbertsioa egin da eta 25.000 euroko dirulaguntza eman du gobernuak

MARIFA ETA KORO

Hiru astez lanean aritu ondotik, finitu berria dago Azketako azpian sortu duten aparkaleku berria. 2.000 metro karratu ditu, eta 40 bat auto sartuko dira. Frontoiko gibelako bidetik dauka sarrera, beraz, kotxeak ez gurutzatzeko, semaforoak paratu dituzte, txandakako pasabidea emateko. 53.000 euroko balioa izan du, eta erditsua dirulaguntza bidez ordaindu dute.

87.183 bisitari iaz leizean

Urriaren 27an Mikel Irujo, Nafarroako Gobernuako Turismo Kontseilariaren bisita izan genuen herrian. 2018tik 2025era, diruz laguntzeko proiektuak babesten ari da Nafarroako Gobernua, ingurumena, gizarte eta ekonomia aldetik turismo jasangarria bultzatzeko asmoarekin. Hori dela eta, Erratzun eta Amaiurren egindako lanak ikusi ondotik, Zugarramurdirat etorri zen, aparkaleku berria ezagutzera.

Horretaz gain, turismoaren inguruko zenbait xehetasun aipatu zituen Irujok: «Agerikoa

da Zugarramurdik turismoa erakartzeko duen gaitasuna. Eta aipatu beharra dago Soriginen Leizea dela, Oliteko gaztelua eta gero, Nafarroako bigarren kulturgune bisitatuen, 87.183 bisitari izan dituen 2021ean. Egoera hau ez dago arazoetatik salbu, zeren data jakinetan, auto pilaketa nabarmena izaten da», adierazi zuen.

Inpaktu hori ahal den neurrian minimizatze aldera, «udalak apustua egin du ibilgailuak aparkatzeko partzela bat egokitzearen alde, 2.000 metro kuadro erabilgarri dituen horretarako. Proiektu honek 53.300 euroko gastua izanik, Nafarroako Gobernuak 25.000 euroko dirulaguntza eman du».

Azterketa batek dioenez, gure inguruko herritarrek dira turismoaren ondorioekiko kritika gehien adierazten ari direnak: % 24k erraten du trafikoaren handitzea ekartzen duela, garbiketa zerbitzuen lana trabatuz. Eremu honetako % 34k soilik erraten du turismoaren etorrerak hobekuntza dakarrela herri tikietan.



Kilimak taldea, tartean Ione eta Ihintza. **UTZITAKOA**

Kilimak taldeak diskoa plazaratu du Baga-Biga diskoetxearekin

MARIFA ETA KORO

Herriko Ione eta Ihintza partaide diren Kilima musika taldeak bere lehenbiziko diskoa ezagutzera eman zuen urriaren 21ean.

Rumba estiloa oinarri hartuz, beraiek 'euskal-runba' ukitua eman diote, irrintzi eta guzti. Arras aire alaiak eta mugituak

dituzten sei kanta daude diskoan, eta segurtatzen ahal da kanta hauekin ezin dela gorputza geldirik kontu.

Baga-biga diskoetxeekin atera dute diskoa, eta abenduaren 5ean aurkeztuko dute Durangoko azokan. FNAC, Elkar eta Eroski dendetan eros daiteke, eta herrian, Palazioan.

Xareta aldeko pastoralara prestatzen segitzeko bilera igandean pilotalekuan

Hiru bilera egin ondotik, ematen du Xareta aldean egin nahi duten pastoralara aitzina doala. Hurrengo hitzordua azaroaren 14an, igande honetan, izanen da, 15:00etan Zugarramurdi-ko pilotalekuan.

Bertan parte hartzeko asmoa duten guztiak bilduko dira pastoralaren egilareekin eta errejentarekin, eta hor ikusiko dira pastoralaren oinarritzakoak eta pertsonaiak.

Hala ere, proiektu honetan parte hartu nahi dutenek oraindik aukera daukate, e-mail honetara mezu bat bidaliz: xaretanpastoral@gmail.com,



Gerardo Mungiak idatzi du pastoralara.

edo aipatutako egun horretan agertuz.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa



Sarako Izarra elkarteak urteko bilkura egin zuen urriaren 26an. GANEX

Sarako Izarra errugbi elkarteak 50 urte beteko ditu

2022ko maiatzaren 28an egingen dute ospakizuna, urri hondarrean egindako bilkuran aipatu zuten bezala

GANEX

Sarako Izarra errugbi taldeak bere bilkura nagusia urriaren 26an egin zuen Animainea errugbi zelaiko gelan. Patxi Jauregui-Basurko lehendakaria, denei ongietorria egin ondotik, bere taldeko errugbilariezt mintzatu zen.

Joan den urtean euskal liga-ko lehen mailan txapeldun izan ziren, baina taldea aldatu egin da, «jokalaria batzuek utzi dute eta gazte batzuk hasi dira, denak saratarrak, denera 30 jokalaria badira. Badira 20 urtez azpikoak, horiek ari dira jokoan, baina teknikarik ez dute oraino», aipatu zuen lehendakaria. Honela, aurreko sasoiak nekez hasi dute, «baina behar da kuraia hartu, pixkanaka etorriko zaie». Sasoi honetako lehen partida galdu egin zuten Elorri (Bizkaia), Betsaide Elorrio RT taldearen kontra (33-14), baina bigarren irabazi egin zuten Animainean, Kanpanzar Arrasate taldearen kontra (16-6).

Jean Michel Sarrie diruzainak eman zituen kontuak, pandemiarengatik 2020an Iparraldean ez zuten jokatzeko ahal

eta denak hegoaldean egin zituzten. Horregatik, gastu gehiago izan dute autobusetan jokalaria hegoalderat eramateko, baina halere, kontuetan ongi dira, positiboan.

Sarako Izarra elkartearen 50. urteurrena

Sarako Izarra elkarteak 2022an egingen ditu 50 urte, eta maiatzaren 28a, larunbata, hautatu dute urtebetetze hori ospatzeko. Baina nola egin? Ideia ainitz dituzte buruan, oraino badute astia, baina beharko dituzte pentsaketa onak egin elgarren artean, egun horrek izan dezan oroigarria.

Bulegoa

Patxi Jauregui-Basurko, Stephane Lassaga eta Simon Arinordoki, hirurak lehendakaria dira bulegoaren buru; Marie-Jo Berrouet idazkaria eta Jean Michel Sarrie diruzaina.

Bukatzeko, bilkuran ziren 19 kideek otordu on bat egin zuten denek elgarrekin. Zorte ona eta handia denei, jokalaria nahiz buruzagiei!



2024an mendea beteko du Larhango trenak. UTZITAKOA

Larhango trenak itxia dago apirilaren 16ra arte materiala eramateko

GANEX

2022 eta 2023 urteetan Larhango trenaren bidea eraberritzeko lanak egingen dituzte. Horregatik, 2021eko urriaren 17an itxi zuten, burdinezko materialak garraitzeko eta hertsirik egonen da 2022ko apirilean 16ra bitarte. Egun horretatik buruilararen 4ra arte trenak erabiltzeko modua izanen da, baina orduan berriz itxiko dute, lanak hasteko. 2023ko uztailaren zabalduko dute berriz, lanen arabera agian lehenago. Pirinio Atlantikoetako Departamentuko kontseilua da Larhango Trena

ekipamendu turistikoaren jabea, 1924an sortu zenetik. Beraz, mendeurrena behar bezala ospatzeko inbertsio handiak egingen dituzte, bai trenbidean, baita trenetan ere. Trenaren aparkalekua itxia egonen da lanen denbora guzian, urriaren 23tik goiti.

Hirugarren txertoa

Bertze aldetik, Covid-19aren kontrako hirugarren txertoa egiten ahalko da hazilaren 18an, ortegunean 15:00etatik 19:00etara. Izena emateko herriko etxera deitu behar da: 05 59 54 20 28.



BERTSOZALE ELKARTEA

Haira Aizpurua Euskal Herriko txapeldun

Haira Aizpurua Ibargaraik irabazi du Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Abadiñon jokatu zuten finala urriaren 24an, 230 bertsolareren aitzinean. Igor Elortzak paratu zion txapela Aizpuruari eta plazan kantuan segitzeko deia eginez bota zuen agurreko bertsoa. Anaiari eskaini zion txapela.

Auzo batzordeen lehen bilkurak egin dituzte kartierka

Haur Herri Kontseiluaren lehen bilkura, berriz, azaroaren 16an egingen dute herriko etxean, asteartean 18:30ean

JEAN LOUIS BESSONART

Auzo batzordeen lehen bilkurak: iragan dira kartierka gune ezagunetan urriaren 30ean, 09:00etan. Familia bakoitzak errezebitua zituen xehetasun guziak gutun-ontzietan, hala nolana hiztunek parte hartzen ahal zuten beren galderak azalduz. Modu horretan auzo bakoitzak badu bere e-posta helbide berezia, edonork bere xedeak idazteko. Dirudienek ekintzak arrakasta izan du, biztanle anitzek parte hartu baitute harremanetan.

Haur Herri Kontseilua

Haur Herri Kontseiluaren plantan ezartzea bozen bidez eginga izan da berrikitan. Honen ondorioz, lehen bilkura iraganen da azaroaren 16an, asteartean 18:30ean, herriko etxean.



Herriko etxean egingen dute bilkura.

SPUC batasunaren biltzarra iragan da

Bertzalde Senpereko Spuc Kirolak batasunak bere biltzar nagusia egin du urriaren 22an. Elkarte honek 800 bat kide biltzen ditu orotan hainbat kirolotan. Biltzarraren berri emanen dugu hurrengo aldizkarian. Batasun honek osatzen ditu pilota, futbola, eskubaloia, errugbia, txirrindularitza eta kayaka.

Zurezko joku festibala asteburuan Larrekon

Zurezko joku festibala izanen dute asteburuan Larreko kultur gunean. Ekitaldi hori urte-rik urtera ohikoa bilakatzen ari zaigu kultur egitarauan. Aurten ere Arbaso elkarteak antolatu du azaroaren 13an eta 14an eta Larreko kultur gunean iraganen da 10:00etatik 18:00ak arte. Sekulako arrakasta behar luke, bereziki haurren ikusmin handia sortzen duelako, jakinik 50 joku inguru proposatuak direla ongi jostatzeko gisan. Sartzea bi euro gostako da eta lau urtez beheitikoek doan izanen dute.

Kultur eskaintza zabala proposatu du herriko etxeak

Herriko etxeak zabaldu du azaroa eta abenduko programazioa, aitortzekoa da kultur eskaintza aunitz iragarriak direla. Hilaren 11n, ortzegunean 17:00etan kantaldia antolatu du Segi Aintzina elkarteak Larrekon. Artxeroak, Gezi Taldea, Maider Cigarroa, Gorka Robles, Gerard Luc, Michel Claudio, Yannick Tellechea Azaroaren 12an, 18:00etan Amotzeko Larraldean Garaien emanen du hitzaldia, Aiaraldea Ekintzen Faktoriari buruz. Ekimen hori Lapurdi 1609 elkarteak antolatu du.



Eliza arrosaz argitua, bularreko minbiziaren kontra. JL BESSONART

Bularreko minbiziaren kontrako Urria arrosa ekimenarekin bat egin dute

JEAN LOUIS BESSONART

Herriko etxeak bere moduan parte hartu du *Urria Arrosa* ekimen berezian, bularreko minbiziaren kontra eramaki diren ekintzetan.

Urriko arratsetan herriko eliza arrosa kolorez argitua

izan da. Hari beretik, ekainean herriko kontseiluak erabaki zuen tabakoa erretzea debekatzea aintzira inguruan, hemen ere minbiziaren aurka egiteko asmoarekin, natura eta osasuna babestuz denbora berean.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Beti Gazte, Txantrea eta Amaior, emakumeen podioan. UTZITAKOA

Beti Gaztek irabazi ditu sokatirako lehen txapelak

Gizonezkoak zortzinaka eta emakumeak seinaka Nafarroako txapeldun izan dira eta Amaioruko emakumeak hirugarren

TTIPI-TTAPA

Nafarroako sokatira txapelketa irabazi du Lesakako Beti Gaztek, gizonezkoek 620 kiloz behehitiko kategorian zortzinaka eta emakumezkoek 375 kiloz behehitiko kategorian seinaka. Bietan Txantreari irabazi zioten urriaren 23an Barasoainen jokaturako fina-

letan, bi txapelketetako tiraldi guztiak irabazi ondotik. Emakumezkoetan, Beti Gazte eta Txantrearen gibeletik, zazpi urteren ondotik lehiara itzuli den Amaior izan zen hirugarren. Laugarren Berriozar izan zen eta bosgarren postuan berdindu egin zuten Antsoainek eta Araxesek.



Beti Gazteko gizaseme eta emakumeak txapelarekin. UTZITAKOA

Gizonezkoetan Berriozar izan zen hirugarren, Amaior laugarren eta Antsoain bosgarren.

Emakumezkoetan, seikote txapelduneari, Amaia Leiza, Irantzu Goienetxe, Maria Iantzi, Maialen Lopez, Ainhoa Ubiria eta Arritxu Muxika aritu ziren tiran, Joxe Angel Mitxelena entrenatzaile zutela. Gizonezkoetan, berriz, Joxe Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Guy Larralde (Ezpeleta), Unai Gurrutxaga, Beñat Ordoki, Iñigo Alzugarai, Eneko Saldias eta Paskual Taberna aritu ziren, Julen Palenzuela entrenatzaile zutela.

Txapelketa mistoa

Gizonezkoen nahiz emakumezkoen txapelketak erabaki

ondotik, orain txapelketa mistoa (lau emakume eta lau gizaseme, 550 kiloz behehitiko kategorian) jokatu dute taldeek eta hau irakurtzen duzuenerako txapelak banatuak izanen dira. Lehen jardunaldia urriaren 30ean izan zen Antsoainen eta berriz ere Lesakako taldea nagusi izan zen, Txantrea, Berriozar, Amaior, Antsoain B eta Antsoain A taldeen aitzinetik. Halere, Berriozarren kontrako tiraldi bat galdu zuten lesakarrekin. Bigarren jardunaldia azaroaren 6an jokatzea zuten Elizondon eta bi jardunaldietan puntu gehien bildutako bi taldeek finala jokatzea zuten, Nafarroako txapelketako hirugarren eta azken txapela jokoan.

Nerea Sorondo beratarrak irabazi du Euskal Herriko aizkora txapelketa

TTIPI-TTAPA

Herri kirol hitzordu garrantzitsua izan zen urriaren 25an Mungian (Bizkaia). Inoiz baino emakume gehiago ikusteko aukera izan zen bakarkako lehiari, Euskal Herriko aizkolari eta harri-jasotzaile txapelketan. Denera hamabi emakume, seinak modalitate bakoitzean.

Aizkoran aritu ziren sei emakumeek bosna enbor moztu behar zituzten: 36 ontzako bi enbor, 45 ontzako bi enbor eta kanaerdiko bat (54 ontza). Nerea Sorondok 15 minutu

eta 41 segundo aski izan zituen lana burutzeko. Txapeldunorde izan zen Laiene Pikabea gipuzkoarrak ia lau minutu gehiago behar izan zituen (19.24) eta podioa osatu zuen Uxue Ansoategi bizkaitarrak ia zazpi minutu gehiago (22.32). 25 segundorengatik podiotik kanpo gelditu zen Maika Ariztegi iturendarra (22.57), bosgarren izan zen Xanta Sousa lesakarra (26.09) eta seigarren Beatriz Tanco (29.31).

Harri jasotze txapelketan ere sei kirolari aritu ziren lehiari eta hiru harriekin lanik onena egin



Mungian lehiari aritu ziren hamabi emakumeak, sei aizkoran eta sei harri jasotzen.

zuen Karmele Gisasola bizkaitarrak. Lucia Orbe bizkaitarra izan zen bigarren, Marina Blanco bizkaitarra hirugarren, Uda-

ne Ostolaza gipuzkoarra laugarren, Naiara Zumeta gipuzkoarra bosgarren eta Aroa Sanchez gipuzkoarra seigarren.



Lizuniagako XL. Igoerako podioa ezkerrean. Eskuinean, Bouziane eta Maayouf irabazleak. UTZITAKO ARGAZKIAK

Maika Ariztegiren errekorra erraustu du Maayoufek

Lizuniagako 40. Igoeran, gizonezkoen artean Aimad Bouziane nagusitu zitzaion azken sprintean Xabier Macias

TTIPI-TTAPA | BERA

Lizuniagako Igoeraren berrogeigarren edizioa jokatu zuten irailaren 23an Beran, Gure Txokoa elkarteak antolatua. Aipagarriena emakumezkoen lasterketan gertatu zen, Majida Maayoufek errekorra egin baitzuen. Ez nolanahikoa gainera. 1995ean egin zuen Mai-

ka Ariztegi iturendarrak aitizneko markarik onena, 20 minutu eta 18 segundo. Maayoufek izugarritzko lasterketa egin zuen eta 18 minutu eta 30 segundo aski izan zituen Lizuniagako helmugara heltzeko, Ariztegi baino minutu eta 48 segundo guttiago. Lasterketa burutu zuten 51 korri-

kalarien artean zazpigarren izan zen Maayouf. Emakumezkoetan bigarren izan zen Teresa Igoa Dozagarat beratarra (25.10) eta hirugarren Nahia Iturria beratarra (25.36).

Emakumezkoen artean alde handiak izan ziren, ez horrela gizonezkoen artean, sprintean erabaki baitzen irabazlea. Aimad Bouziane izan zen bizkorrena (17.28) eta segundo bat gehiago behar izan zuen Xabier Macias. Eneko Garinek osatu zuen podioa (17.48). Seigarren sartu zen Gwendal Larque izan zen lehenbiziko beratarra. Beteranoetan, Erlaitz taldeko Juan Carlos Korta eta Gure Txokoa-ko Veronica Cuevas beratarra izan ziren bizkorrenak.

LIZUNIAGAKO IGOERA

SAILKAPENAK

GIZONEZKOAK

1. Aimar BOUZIANE	17.28
2. Xabier MACIAS	17.29
3. Eneko GARIN	17.48
4. Joseba ELIZAGOIEN	17.55
5. Alberto BARBERENA	18.14
6. Gwendal LARQUE	18.18
7. Patxi AROZTEGI	18.41
8. Oier ETXEBERRIA	19.40
9. Juan Carlos KORTA (Bet.)	19.45
10. Christophe PAJOT	19.52
11. Juan Luis IRAZOKI (Bet.)	20.14
14. Angelxo ARANIBAR	20.39
15. Adur IANTZI	20.44
16. Xabier GARMENDIA	20.51
17. Josema HUIZI (Bet.)	21.12
18. Mattin GARBISU	21.30
19. Jorge ARACUES (Bet.)	22.39
20. Felix ALTZATE	22.57
21. Joseba IRIARTE	22.57
22. Juan Ramon PIKABEA (Bet.)	23.08
28. Juanma MOLINERO (Bet.)	24.40
30. Mikel ZAPIRAIN	24.56
31. Antonio RODRIGUEZ (Bet.)	25.02
32. Andoni GARBISU (Bet.)	25.13
33. Iñaki LARRAÑAGA (Bet.)	25.20
34. Iñaki ITURRIA (Bet.)	25.38
37. Iñaki ENDARA	27.39

EMAKUMEAK

1. Majida MAAYOUF	18.30
2. Teresa IGOA	25.10
3. Nahia ITURRIA (14-18)	25.36
4. Begoña AROZTEGI	25.51
5. Ana Paula TAMAYO	26.23
6. Nahia FAGOAGA	28.42
7. Ane BERAISAIN	28.42
8. Veronica CUEVAS (Bet.)	30.57
9. Estibaliz BERRUETA	32.07
10. Adela ARLEGI (Bet.)	33.14



UTZITAKO ARGAZKIA

Bixente Igarzabal Zaragozako Maratoian

Bixente Igarzabal korrikalari lesakarrak seigarren postua lortu zuen urriaren 24an Zaragozako XIV. Maratoian. Beti Gazteko korrikalariak 2 ordu, 42 minutu eta 19 segundo behar izan zituen 42,192 km.k osatzeko eta lehenengoa izan da bere kategorian, beteranoen M45 kategorian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Azpiroz txapeldun buruz burukoan

Banakako erremonte profesionaleko txapelketako 2021eko Martiko Sari Nagusiko hiruko finala jokatu zuten urriaren 22an Iruñeko Labrit pilotalekuan. Azpiroz izan da txapeldun, Josetxo Ezkurra doneztebarra (20-18) eta Ion (20-15) menpean hartu ondotik. Ezkurra II.ak 20-14 irabazi zion Ioni.

AZAROAK 11 - 25

INFORMAZIOA BIDALETZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKO IRUDIA

GOIZUETA Aimar Olaizolaren agurra

Aimar Olaizolaren azken pilota partida eta omenaldia. Xehetasunak 67. orrian.
Azaroaren 13an, Goizuetako pilotalekuan

BERTSOAK

GOIZUETA

Berto marraztuak

Saioa Alkaiza eta Alaia Martin bertsoan eta Unai Gaztelumendi marrazten.

Udaletxeko ganbaran, azaroaren 12an, 18:00etan.

ARANO

Bertoak eta gaztaina-jatea

Unai eta Eñaut Agirre kantari Imanol Kamioren musikarekin.
Azaroaren 13an, 20:30ean.

LEITZA

Nafarroako Bertsolari

Txapelketako finalaurrekoa

Kiroldegian, azaroaren 14an, 17:30ean.

LESAKA

Bertoak eta gaztaina-jatea

Andoni Egaña eta Ane Zuazubiskar kantari eta Josu Sanjurjo gai-jartzaile.
Azaroaren 20an, 20:00etan, Basurde elkartearen.

AZOKAK

LEITZA

Azoka eta erakusketa

Leitzako eta Aresoko produktuen azoka etaazienda erakusketa.
Plazan, azaroaren 14an.

DONEZTEBE

Doneztebeko Feriak

Azaroaren 19an. 24. orrian.

LESAKA

Lesakako Feriak

Azaroaren 25ean. 16. orrian.

AURKEZPENAK

ARIZKUN

'Jesus Yoldi Bereau' liburuaren aurkezpena

Roque Hidalgo Alvarezaren eskutik.
Herriko ostatuan, azaroaren 12an, 19:00etan.

GOIZUETA

'Minondotarren gutunak' liburuaren aurkezpena

Azaroaren 19an, 18:30ean.

ESKU-PILOTA

GOIZUETA

Aimar Olaizolaren agurra

Azaroaren 13an, 17:15ean.

ARANO

Adoseko pilotarien partida

Pilotalekuan, azaroaren 14an, 12:00etan.

KONTZERTUAK

LESAKA

Easo Abesbatza organoarekin

San Martin elizan, azaroaren 13an, 18:00etan.

ELIZONDO

Boys in the Hill

Arizkunenean, azaroaren 14an, 19:00etan. Dohainik.

ZIGA

Baztan Kantuz

Azaroaren 21ean, herriko plazan 12:00etan.

SOLASALDIAK

LEITZA

'Plenipausia... hasi da jolgorioa!' hitzaldia

Maite Aranburu emaginaren eskutik.

Azaroaren 11n, 19:00etan.

'Heriotza duina: eutanasia legea eta bizi testamentua'

Herri Aretoan, azaroaren 18an, 18:30ean.

ELIZONDO

'Turismoa nola antolatu'

Daniel Otamendiren eskutik.
Arizkunenean, azaroaren 11n, 19:00etan.

LESAKA

'Inteligencia artificial: utilidad en la práctica médica'

Miguel Angel Imizcozen eskutik.
Harriondoan, azaroaren 20an, 18:00etan.

TAILERRAK

LESAKA

Sukaldaritza tailerra

Basurde elkartearen, azaroaren 12an eta 19an, 18:00etatik 20:00etara.

ARESO

Patinaje ikastaroa

Azaroaren 20an, 12:30etik 13:30era. Izena emateko azken eguna azaroaren 17a.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

'Esnatu Naiz' kabareta

Gizarte Bilgunean, azaroaren 21ean, 19:00etan.

Nire aukera

«Larrua lantzen ikasteko eguneroko lana izan da gure eskola»

MARTA CHIVITE DE MIGUEL ARESON BIZI DEN LARRUGILEA



Bere ideiekin bat egiten bizi-tzen saiatzen den emakumea da Marta Chivite de Miguel (Donostia, 1961). Sutondoan irakurtzea gustuko du eta «gauza askori ekiten diot; lorezaintza, dekorazioa, apainketa... baina gutxiago bukatu». Areson bizi da gaur egun Ramon kataluniarrarekin, eta larrua lantzea dute ogibide.

Lasaitasun bila

«Betidanik ohiko bizimodutik aparte bizi nahi izan dut. Lantegi batean zortzi orduz lanean aritu eta bizimodu kontsumista bat ez nuen nahi». Donostiatik atera nahi zuen Chivitek, «naturari lotuago zegoen eta beste modu batera bizitzea posible izango zen leku batera.» Hainbat aukera begiratu zituen; Katalunia, Lakabe... Eta orduan ezagutu zuen Ramon.

Bidea elkarrekin egin dute geroztik, «eta Aresora iritsi ginen 1983ko apirilaren 3an. Egun hartan ahari-demazegoela oroitzen naiz». Naturan bizitzeko aukerak ekarri zituen Aresora.

Eskulangintza

Duela 37 urte inguru hasi ziren «eskulangintzarekin saltseatzan. Biok gure lanetik bizi nahi genuen eta zeramikarekin hasi ginen, baina herrira etortzean etxean ez zegoen argindarrik, bidea egin gabe zegoen... Eta zeramikarekin jarraitzea ez zen bideragarria».

«BETIDANIK OHIKO BIZIMODUTIK APARTE BIZI NAHI IZAN DUGU»

1985ean larrua lantzen hasi ziren, material moldagarriagoa eta arinagoa delako. «Gustua hartu genion eta geroztik honekin jarraitu dugu». Orain, Trok Larrua izaneko tailerra daukate baserrian.

Larrua lantzen

«Zenbait ikastaro egin izan ditugu, beste artisau batzuekin partekatu... baina eguneroko lana izan da gure irakaslea». Produktu ugari egiten dituzte, egunerokoan erabil daitezkeen piezak; gerrikoak, diru-zorroak, poltsak, motxilak... Eta baita enkargu pertsonalizatuak ere.

Lana egiteko estilo propioa dauka bakoitzak. «Ramonena klasikoagoa da», ontze begetaleko larruekin tindaketa bidez indartzen dituen formak sortzen ditu, emaitza soil eta dotorea izanik, «betierekoa». «Nire estiloa gaurkotasunarekin lotuagoa dago, garaiaren arabera aldatzen doa». Josteko makinarekin esperimentatzen du Chivitek, formekin jostatuz eta larru koloretsuak erabiliz. «Emaitza produktu original eta berritzaileak dira».

Hainbeste urtetan, hainbat lan berezi egin izan dituzte; «Erdi Aroko larruzko koraza bat, burdindegia baterako hauspo erraldoi bat, pelikula baterako liburu bat, BDSM egiteko lepoko eta uhalak, harri jasotzaileen txalekoak, sokatirako gerrikoak... Eta azken aldian egin dugun lan berezi bat *El Internado* telesail berri-rako maskarak izan dira».

Jasangarritasuna

Elikadurarako hiltzen diren abereetatik datoz erabiltzen dituzten larruak, txekor eta

txerria batez ere. «Haragi industriaren soberakin bat probesten dugu». Prozesu guztia eskuz eta zenbait tresnekin egiten dute, eta ez dute bitartekaririk, «guk sortzen duguna guk saltzen dugu».

Badaude oinarri begetalak dituzten materialak, «baina ez dira larruak, garrantzitsua da gauza bakoitzari bere izenez deitzea. Ehun hauen kasuan adi egon behar da, sortzeko prozesua askotan ez baita jasangarria».

Larruari kolorea emateko, materialaren ontze motaren arabera larrua tailerrean tindatzen dute edo zuzenean kolorearekin erosten dute. Marrazkiak egiteko, trokelekin eskuzko grabatuak egiten dituzte eta ondoren kolorea eman.

Material honen abantailarik handiena «iraunkortasuna» da. «Oso ongi zahartzen den materiala da, nahiko iragazgaitza eta ukitzeko oso atsegina, gozoa».

Bezeroekin harremana

Azokaz azoka, herriz herri ibiltzen dira haien produktuak saltzen. «Zuzeneko tratua maite dugu, bezeroekin harremanetan egotea, euren nahiak ezagutzea eta iritziak elkartrukitzea». Gainera, nahi izanez gero eta telefonoz aldezturitik abisatzen bada, tailerra bisitatzeko aukera ematen dute.

Internet bidezko salmenta ere eskaintzen dute, «gaur egun horrelakoak ere egin behar dira eta. Gure lanak www.troklarra.com web orrian erakusgai daude». Bertan produktuak egiteko prozesua eta lan egiteko modua azaltzen dituzte eta produktu guztien katalogoa eskuragarri dago, erosi eta zuzenean etxera bidaltzeko.

Etorkizunera begira, Chivitek ez dauka asmo berezirik, «batez ere lasai eta gustura bizitzea».

«GURE LEHENGAI NAGUSIA BESTE INDUSTRIA BATEN SOBERAKINA DA»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.



SUNBILLA. Baserria salgai. ☎699 69 13 80.



ZALAIN ZOKOn eraikitzean dagoen etxea salgai. Lursail txikiarekin. ☎636 42 60 94 / 639 94 46 14.

ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

BERA EDO LESAKA. Donostiako bikote bat lanagatik pisu edo logela bila. Sei hilabetetarako errentan hartu nahi dute. ☎657 70 38 98.

EROSI

Baserriak, bordak edo eraiki daitekeen lur eremuak erosi nahi dituzte. ☎693 69 49 76 (Jose Mari).

LANA

ESKAINTZAK

IRUN. Denda batean astelehenetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara aritzeko sukaldaria behar dute. Bidali curriculum: irunjanari@gmail.com. ☎ 948 63 77 35.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean egun osoz aritzeko janari-dendako saltzailea eta harakina behar dituzte. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com helbidera.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean egun osoz aritzeko zerbitzaria behar dute.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargari bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com helbidera.

BERA. Botxo ostatuan zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

ELIZONDOko La Baztanesa autobus enpresan gidaria behar dute egun osoko lanaldirako. D motako gida-baimena eta CAP izan behar du. ☎948 58 01 29 edo autobuses@labaztanesa.com.

BEHOBIA. Faisan ostatuan, zerbitzari bat behar dute, egun osoz aritzeko. Eta bertze bat asteburuetan lanean aritzeko. Bidali datuak faisanostatu@gmail.com helbidera edo deitu. ☎629 47 25 89.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BORTZIRIAK inguruan haur bati ukelele klaseak emateko pertsona baten bila ari dira. ☎658 38 18 37.

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

ANIMALIAK

SALGAI



LEITZA. Txerrikumek salgai. Pintoak. Aukera paregabea gizentzeko negurako. Labean erretzeko ere presta-

tzen dituzte. Informazioa WhatsApp-
pez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

Monturako zaldia salgai. 15 urtekoa eta izaera lasaia. Edozeinek erabiltzeko egokia. ☎653 62 91 20.

OPARITZEKO



Bi txakurkume ar oparitzeko, hilabete eta erdi dute eta mastinari eta ehiza zakurraren arteko nahasketa dira. ☎659 50 57 00.



Katakumeak oparitzeko. Jostalari eta ehiztari bikainak. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.




SUNBILLA. Arratoi zakurkumeak opari (Jose Ignacio). ☎625 70 96 80

DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Egurrezko ontzitegi lakatua, egurrezko **mahai** lakatua (handitzen dena) eta egurrezko lau **aulki** lakatu tapizatuak salgai. ☎610 38 58 67

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,18
- 1.koa 4,06
- 2.koa 3,91

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,15
- 2.koa 4,01

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,60
- 8-10 kilokoak: 7,70/8,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 30 €

Zerri gizona 1,023 €

Zerramak 0,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

90 cm-ko ohe artikulatua salgai, igo eta jaisteko karroa eta segurtasun barrekin. Egoera onean. 450 euro. **636 55 70 48.**



Bitrina salgai. 1,94 metroko altuera, metro 1 zabal eta 0,36 metroko sakonera du. Beira bikoitzeko 3 apal ditu eta azpian kajoi edo tiradera eder bat du. Egoera hagitz onean. 150 euro. **647 06 27 73.**

90 cm-ko ohe artikulatua salgai, igo eta jaisteko karroa eta segurtasun barrekin. Egoera onean. 450 euro. **636 55 70 48.**



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. **690 08 56 65.**



Sofa, relax **besaulkia**, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi **mahai** (bat lakatu zuria eta bertzea bernizatua) eta alfonbra salgai. Dena egoera onean. Dena batera edo bana-ka erosteko aukera. **610 38 58 67.**

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Urriaren 13an giltzak galdu dituzte. Motor baten giltzatak dute, Nissan giltza eta garajeko agintea (mando). **645 70 05 49.** Bagorditik Eskizera bidean Afflelou betaurreko progresiboak galdu dituzte. Montura beltza dute. **665 72 31 25 (Lore).**

MOTORRAK

SALGAI



Opel Mokka 1.4T Excellence 4X2 autoa salgai. 2016 urtekoa, 60.345 KM ditu, mantentzea eguneratua eta egoera ezin hobean. Erabilera faltagatik salgai. 13.500 euro. **647 06 27 73.**



Citroën Berlingo 1.6 hdi salgai, 2015ekoa, egoera oso onean 174.000 km. **626 22 91 92.**

TAILERRAK



KONTATU KONTUAK



Hasier Larretxearen azken lana. *Ihes baten lausoa* poema liburua argitaratu du Hasier Larretxea Arraiozko idazleak eta urriaren 30ean aurkeztu zuen Donamariako Bentan, areto bete jende zuela aitzinean. Patxi Larretxea aranztarrak egin zituen gidari lanak eta argitaletxeko ordezkariak ere parte hartu zuten ekitaldian. Bildutakoek ederki gozatu zuten idazlearen errezitaldiaz. Liburuaren atal bakoitzak bizi-tzaren atal bat biltzen du. Idazlearen hitzetan, «lehenbizikoa atala iluna eta beltza da, gaztetasuna, noraezean dabilen norbait» islatzen duena. Bigarrena «iragana eta egungoaren tartekoa» omen da, «argitasunerako bidea, baretasuna, denboran hurbilagoa». Hirugarrena, berriz, «hurbilena» da, «sorterriarekin solasaldia, gaztaroa eta naturarekin baketzea. Herrirako joan-etorriak ageri dira».



Nafarroa XXI ekimenaren aurkezpena ortzirean Lesakan. «Foruaren Hobekuntza nola egosi zen kontatuko duen herri kontakizuna osatzeko ordua» dela iritzita, Nafarroa XXI herriarren ekimena sortu dute, eta ortzirean, hilaren 12an, aurkezpena eta lansaioa egingen dute Lesakako Udaletxean, 19:00etan. Nafarroako Foru Hobekuntza indarrean sartu zenetik 40 urtera, «XXI. mendeko erronka sozial eta politikoei aurre egiteko, egungo eta etorkizuneko politikaren inguruan eztabaida plural, garden eta parte-hartzaile bat irekitzeko» deia egin dute. «Imoki pentsatzen dugu gizarteak izan behar duela eztabaida hau bultzatu eta berretsi behar duena».

Kafe kapsulak gaika biltzeko edukiontziak Bortzirietan.

Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak bi edukiontzi paratu ditu Alkaigako garbigunean kafe kapsulak gaika biltzeko: bat plastikozko kapsulenzat eta bertzea metalezko kapsulenzat. Ondotik, garraiatu eta birziklatzeko, hitzarmena sinatu du Nestle Spainia enpresarekin, eta hura arduratuko da kapsulak garbigunetik biltzeaz eta ondotik horiek tratatzeaz.



DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA

**CLUB AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian
eta %5eko deskontua
dendako produktuetan**

Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

OROIGARRIA

Mari Xan BENGOTXEA MAISTERRENA

Urdazubin, 1925/09/04-2021/08/18



Udako egun eder batean,
Itzali zinen ixil-ixilean.
Emakume fina eta zaildua,
Bizitzak aunitz sufriarazi zizuna.
Beti inria aurpegian, esker ona desio,
Bistakoa da jendeak zizula aprezio.

Zuk erakutsi gintuzunarekin gelditurik,
Sekula ez etsi, ez izan beldurrik.
Gure oroimenetan zaudelarik bizirik,
Zeruizarren artean egiten diguzularik *kirik*.
Ohore bat da zure odolaren parte izatea,
Bihotzeko amaxi Mari Xan maitea.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Loli ARANBURU ARRUTI

Beran hil zen uztailaren 23an, 76 urte zituela



Zure irribarrea eta indarra
beti izanen ditugu gogoan.
Emakume indartsu eta ausarta,
guztion gandik maitatua.
Hainbertze pasa eta gero,
momentu hoberenean eraman zaituzte gure ondotik;
eta orain zure falta daukagu,
falta handia gainera.
Gaur zuregatik eginen dugu
indarrez denok aitzinera.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Josu APEZETXEA ETXEBERRIA

Goizueta-Lekunberri, 2021eko urriaren 26an



Gizatasun neurrigabekoa
hizketa lasaia
sentiberatasun maitagarria
umore gozoa
eskuzabaltasun eredugarria
eta bihotzez erraldoi.
Ohore bat izan da bizitza hontan
zu ezagutu izana, lagun!
Gurekin betirako.

LESAKAKO ZURE LAGUNAK

URTEURRENA

Antton UITZI LUJANBIO

Goizuetan, 2020ko azaroaren 2an

I. urteurrena




Hik utzitako hutsune hori
handia dela sinistzak.
Urtea jada igaro arren
ezin beterik gabiltzak.

HIRE KUADRILLA

OROIGARRIA

Julen ELIZONDO OLLO

Mila esker
erakutsitako guztiagatik, Julen.
Zu izan zara gure irakasle.



MENDAUR DBHI-KO IKASLE, IRAKASLE ETA LANGILE GUZTIAK

URTEURRENA

Mari Krutz Altzугuren Sanzberro

Etxalarren, 2020ko azaroaren 13an
I. URTEURRENA

Gau izartsu batean hegan egin
zenuen gure artetik,
gure oroitzapenean egonen zara
zerura begiratzen dugun unetik.

Zure familia



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIA

Virtudes SANTESTEBAN IBARRA

Goizuetan, 2021eko azaroaren 1ean hil zen,
93 urte zituela



Izeba Virtudes,
beti gogoan izanen zaitugu.

ZURE ILOBAK: APEZETXEA-AIZPURI, ZUGARRAMURDI-AIZPURI,
AIZPURI-BEGIRISTAIN, MAKAZAGA-AIZPURI

SORTZEAK

- **Idoia Garat**, Sarakoa, urriaren 1ean.
- **Anna Garat**, Sarakoa, urriaren 1ean.
- **Paula Breton Leizagoien**, Sarakoa, urriaren 1ean.

EZKONTZAK

- **Christophe Legarburu** eta **Claudine Etxeberri**, urriaren 16an Saran.

HILBERRIAK

- **Armand Chatelard**, Sarakoa, urriaren 4an, 84 urterekin.
- **Pierre Sondre**, Sarakoa, urriaren 22an, 82 urterekin.
- **Juan Lakuntza Lanz**, Elizondokoa, urriaren 21ean, 90 urterekin.
- **Genoveva Otxandorena Lizarraga**, Leitzakoa, urriaren 22an, 91 urterekin.
- **Gabriel Arburua Etxeberria**, Etxalarkoa, urriaren 25ean.
- **Mateo Martin Fernandez**, Lesakakoa, urriaren 25ean.
- **Domingo Goñi Luziaga**, Lekarozkoa, urriaren 25ean, 78 urterekin.
- **Oier Errandonea Iriberrri**, Elgorriagakoa, urriaren 26an, 30 urterekin.
- **Mª Dolores Napal Zamora**, Berakoa, urriaren 26an, 84 urterekin.
- **Josu Apezetxea Etxeberria**, Goizuetakoa, urriaren 26an, 43 urterekin.
- **Juan Mª Sorozabal Alberro**, Sunbillakoa, urriaren 27an, 85 urterekin.
- **Julen Elizondo Olo**, Doneztebekoa, urriaren 27an, 15 urterekin.
- **Juana Etxeberria Galarregi**, Arizkungoa, urriaren 29an, 77 urterekin.
- **Pedro Jose Fernandez Larrea**, Leitzakoa, urriaren 29an, 51 urterekin.
- **Estefania Lasa Lekuona**, Lesakakoa, urriaren 31n, 90 urterekin.
- **Virtudes Santesteban Ibarra**, Goizuetakoa, azaroaren 1ean, 93 urte zituela.

URTEBETETZEAK



Sunbillako **Ixonek** azaroaren 1ean 3 urte bete ditu. Aunitz urtez *prexioxa* Sunbilla eta Lekunberriko familien partetik. Hiru mila muxu.



Ramon Alzugaray **Contreras** 2 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak Almandozko amatxi, ataubi eta osabaren partetik.




Leitzako **Izargi, Laia** eta **Haider**rek urteak beteko dituzte azaroaren 19an, urriaren 31n eta 22an. Besarkada eta txokolatezko muxu haundi bana! Zorionak *saltxeras*!



Nahia Gomez **Ribeiro** 9 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat Sara eta familiaren partetik.



Laia Loiarde **Bane-gas**: Lehen urtean bizi izan dugun poztasun eta amodio hau falta diren guztietan biderkatzen joan dadila. Martin, Yamileth eta Urtzi.



Igantziako **Haizea Aranguren Irigoienek** 5 urte beteko ditu azaroaren 17an. Zorionak eta aunitz urtez moñoña, zure anaia Jon, bi amatxi eta gurasoen partetik!!! Hagitz ongi pasatu zure egunean eta muxu haundi bat gure partetik!!!



Unax Zelaia **Urrizak** azaroaren 6an 4 urte bete ditu. Zorionak atona, amona eta osaba-izeben partetik!! Muxu asko maitea.



Maitane Fernandez **Telletxea** etxeko altxor ttikiak urtea beteko du azaroaren 12an. Segi beti bezain alai, zure irribarreak bizia ematen digu!! Zorionak etxekoan partetik eta berezik! Ainara eta Ibairren partetik.

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



Leire Arnalek urteak beteko ditu azaroaren 18an. Aunitz urtez *polite*!! Egun ederra pasatu zure egunean, afaritxo batekin goxo-goxo ospatuko dugu etxean. Muxu haundi bat etxekoan partetik.



Donamariako **Oinatz Ariztegi** 5 urte beteko ditu azaroaren 25an. Aunitz urte Egoi eta familia guziaren partetik. Muxu haundi bat motorista!!!




Lantz-Leitzako **Izargi Mariezkuren** 5 urte beteko ditu azaroaren 19an. Urte askoz June, Lide eta Haiderren partetik. Zorionak *printxexa*!!

PLAZAN BAZAN



MEZUA

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta txoritxoak zer dioen jakinen duzu. Esaera ezagun bat da.



ALFABETOA





INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




HANDITIK TXIKIRA

Ordena itzazu flamenko berezi hauek handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 6.



Gainera margotu egin behar dituzu, honela:

1. Isats-hegalak gorritz eta gorputza arrosaz.
2. Isats-hegalak laranjaz eta gorputza gorritz.
3. Isats-hegalak laranjaz eta gorputza urdinez.
4. Isats-hegalak horiz eta gorputza berdez.
5. Isats-hegalak berdez eta gorputza grisez.
6. Isats-hegalak arrosaz eta gorputza zuriz.



TXOLARREA



KUKUSOA



MITXOLETA

LIKANTROPOA

ERPINA



SAIA

TXERMENA



AHO-GINGILA

PAREAK BAI!

Lotu irudi bakoitzari bere izena. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

793 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
M^a Jose Mitxelena Billabona | GOIZUETA
Onddo ta Punto - Kamiseta bat
Mattari Plaza Zugarramurdi | LEKAROZ
Salting Iruñea - Bi sarrera
Rakel Irurueta Mitxelena | ALMANDOZ
Kukuka haur arropa-denda - Lote bat
Luis Manterola Ibarra | SUNBILLA
Irrisarri Land - Sarrera bat
Idoia Maritxalar Errandonea | BERA
Okille tailerra - Eguzkilo bat
Ines Gonzalez Burgete | ARANTZA
Katxiporreta - Bi DVD
Julen Vicente Arsuaga | LEITZA
Katxiporreta - Bi DVD
Eurne Imbuluzqueta Iturburu | ELIZONDO

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Jertse bat

SALTING IRUÑEA

www.saltingcenters.com



Bi sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

LESAKA

www.lesakakoudalkiroldegia.com



Sarrera bat

**LIBURUA
MUSIKA
DVD**

Andromedan



Nur
eta Olentzero



erein
argitaletxea

www.erein.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.txalaparta.eus



www.rhune.com